



**Nekane PEREZ**  
Aaiunera bidean  
Casablancan  
geldiarazia  
→ 10

## Eraikuntza

Gehigarri berezia → 11-38

### IGANTZI → 42

Kultur Egunak  
abenduaren 5etik 8ra

### SUNBILLA → 46

Malerekako eskola  
ttikien eguna ortziralean

### BERTIZARANA → 50-51

San Andresak Narbarten,  
Kattalin Eguna Legasan

### URDAZUBI → 58

Kantu Zaharren Eguna  
azaroaren 27an



## Nafarroa osorako estrategikoa izan zen Sunbillako harrizko zubia bere garaian

Urte bat eta erdiz harrizko zubia ikertzen pasatu du Francisco Javier Latasak. Principe de Viana aldezkarian argitaratu du egindako ikerketa.

ELKARRIZKETA → 3



Feriarren zazpigarren edizioak bi gune izanen ditu. Batean animaliak eta bestean postuak. Aurtengoan, Goizuetako larreetan bazkatzen diren 200 betizuetako asko bilduko dituzte Txino auzoko frontoian. → 52

GOIZUETAKO FERIA AZAROAREN 27AN

## Betizuak aurtengo protagonistak



### 300 lagunetik goiti mugitzen ditu bertsolaritzak Baztan, Bortziriak, Malerreka, Leitzalde eta Saran

90. hamarkada hasieran Lesakan sortu zen Bortziritako bertso-eskolaren ondotik, azken 20 urte hauetan bertze zortzi eskola eratu dira. Horieta guztietan 88 neska-mutiko, gazte, heldu eta bertsolari ibiltzen dira. Horrez gain, bertsolaritza Hezkuntza Arautuan ere sartua da eta eskualdeko bederatzi ikastetxetako 224 ikaslek eskola orduetan bertsolaritza lantzeko aukera dute.

ERREPORTAJEA → 4-5

ZOZKETA → 62

TTIPI TXARTELArekin  
beti irabazten da!



# Birziklatu



Ontziek bizitza luzea dute



Kartoiako ontziak, papere,  
egunkariak, aldizkariak.



Plastikoak ontziak,  
latak, brikak.



Beirako botilak,  
faskoak, potsek.



Bastango  
Uztaz



Bartzelonako  
Hiru Herriaren  
Mankomunitatea



Materrekiko  
Zerbitzu orokorraren  
Mankomunitatea



**ECOEMBES**  
SEPARAR PARA RECICLAR

## AUKERA ZABALA

lentzeria eta  
pijamentan

Behoko plaza 10  
31770 Lesaka  
T. 948 627 514



## bixkiak

KIROL ETA MODAKO  
arropa denda

Arretxea, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110





Deigual.

trang world

FORNAX ZERBITZU

payo pet

Sortez madrildarra bada ere, gurasoak eta familiako aunitz sunbildarrak dituelako, eta gaztetako oroitzenen «ederrenak» Sunbillakoak izateak bultzatu zuen Francisco Javier

Latasa Alzuri Sunbillako harrizko zubi zaharra ikertzera. Urte bat eta erdiko lanaren ondotik, Principe de Viana aldzikarian kaleratu du artikulua. Erretiratu eta Sunbillara etorria da bizi-

tzera, eta egindako lanarekin «kontent», sekula pentsatuko ez lukeen historia deskubritu duela dio. Udaletxe ondoan zubiari buruzko informazio mahaia ere paratu du Udalak.

Francisco Javier LATASA | Sunbillako zubi zaharra ikertu duena

# «Nafarroa osoan zubiak eduki zuen garrantziak deitu dit arreta»

G.PIKABEA | SUNBILLA

**Nolatan hasi zinen artikulua idazten?**

Zuhaitz genealogikoa zela eta pixka bat ikertzen hasi nintzen, baina betidanik banuen Sunbillari buruz zerbait egiteko ilusioa. Niretzat herriko gauzarik adierazgarriena zubia da eta horretan zentratu nintzen. Poliiki-poliiki prozesua aztertzen joan nintzen: noiz egin zen, berreraikitzeak... Egia errateko, ez nuen sekula pentsatua hain interesgarria aterako zela, baina zortea izan dut. Horrekin batera, Sunbillari esker-onez ere egin dut, nire familiako aunitz hemengo delako eta gaztetan momentu ederrak pasatu nituelako herrian.

**1551ean agindu zuten harrizko zubia egiteko, baina 1562an egin zen...** Errege Kontseiluak 1551ean agindu zuen osorik harrizkoa izanen litzatekeen zubia egiteko, ordurarteko egurrezko zubia ordezkatzuz; azken 30 urtetan harrizko hanka bat zuen. 1552an egin zen eraikuntza esleitzeko enkantea, baina hainbat arrazoi tarteko, 10 urte beranduago egin zen. Alde batetik, Bidasoa-Berroarango Junta-ren -Sunbilla, Doneztebe, NARBARTe eta Elgorriaga- oihanetako egurra Arantzako Aranibar burdinolari saldu zitzaion ikatza egiteko eta nego-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Francisco Javier Latasa, Sunbillako harrizko zubi zaharra ikertu duena.

ziazioetan denbora joan zen. Bertzetik, obraren ordainketa lau herrien artean egitekoa zen eta hor ere eztabaidak egon ziren. Doneztebetik Sunbillarako bidea arriskutsua zela argudiatuz, Doneztebek bertze bide bat egin nahi zuen, Arantzara Bulatxikin barna, hor Sunbillako bidearekin bat egin, eta handik Gipuzkoara joateko. Zubi bertze toki batean eraikitzea ere planteatu zen, baina azkenean bertan behera gelditu ziren proposamenak eta lau herriek eta kanpotarbatzuen artean ordaindu zuten. Halere,

**1562RA ARTE EZ ZEN EGIN «Errege Kontseiluak 1551ean agindu zuen osorik harrizkoa izanen litzatekeen zubia egiteko, ordurarteko egurrezko zubia ordezkatzuz; azken 30 urtetan harrizko hanka zuen. 1552an egin zen eraikuntza esleitzeko enkantea, baina hainbat arrazoi tarteko, 10 urte beranduago egin zen»**

gerora, berreraikuntzak egin zirenean, Nafarroa osoak ordaindu zuen. **Behin baino gehiagotan berreraiki zen...** Hasieran, ibaiak 1643an bakarrik eraman zuela pentsatzen nuen, eta nire teoria egina nuenean, 1625eko bertze idatzi bat ikusita konturatu nintzen bi aldiz konpondu behar izan zutela, 1625ean eta 1643an. Uholdeen ondorioz izan zen, eta bi kasuetan Nafarroa osorako garrantzitsua zelako, Nafarroa osoak esku hartu behar izan zuen ordaintzerakoan. Horrek zenbateko garrantzia zuen adieraz-

ten du. Lehenbiziko berreraikitze lanak 1.300 dukado kosta ziren, eta bigarrenetan tasatzaile bat bidali zuten gauza bera gerta ez zedin; 2.500 dukadotara igo zen ordaindu beharrekoa.

**Zerk piztu dizu arreta batez ere?**

Nafarroa osoan bere garaian eduki zuen garrantziak. Nafarroan orduan agintzen zutenek halako beharra ikusi zuten zubia behin eta berriz zutik paratzeko eta denek ordaindu behar izan zuten. Eugiko arma lantegia garrantzi handikoa izan zen eta armak hemendik pasatzen zituzten. Horrez gain, tropak harat-honatean ibiltzen ziren. Bere balorea zuen, ibai bazterreko arriskua saihestuz, menditik ibiliz komunikatzeko bide segurua baitzen. Bi aldiz berreraikitzeo egin zen esfortzuak ere arreta deitu dit. Bigarrenez berreraiki zenean, adibidez, idatzietan ageri denez, 2.500 harri erori ziren zubitik eta dena indarrez mugitzeko...

**Zer eskatuko zenuke?**

Zubiak iraun dezala, eta ez dadila inoiz erori. Garra batean, erortzearekin zuzen, bertze zubitik ez zegoenean ibilgailuak kontrolik gabe pasatzen zirelako eta zaharberritu zenean, errebaso handia eman zitzaion. Herriak balore handiko zerbait bezala gorde behar luke.



Baztango Mariano Izeta sariketan Jon Elizetxe gartzaindarra kantari.



Goizuetako Xaltoa sariketan Jose Luis Barberia Zili leitzarria mikrofono aitzinean.



Ioar Tainta lesakarra Nafarroako eskolarteko bertsolari txapelketan.



Sarako bertsos-eskolako neska-mutikoak iaz, Karlos Aizpurua irakaslearekin.

KULTURA → BERTSOLARITZA

# Eskualdeko 300 lagunek baino gehiagok bertso eskoletan eta ikastetxeetan asetzen dute bertso gosea

20 urteotan 9 bederatziko bertso-eskola sortu dira

Bertsolaritzaren mugimendua indartzen ari da eskualdean, eta duela 20 urte bertso-eskola bakarrik izate-tik –Lesakan–, gaur egun bederatziko izatera pasatu gara Baztan, Bortzi-

riak, Malerreka, Leitzaldea eta Saran. Horrez gain, bertsolaritza Hezkuntza Arautuan ere sartua da, eta neska-mutiko aunitzek eskola orduetan bertsolaritza lantzen dute.

## G. PIKABEA

Bertsolariari sena eta abilezia jaiotzetik datozkiola erraten da maiz, horretarako dohai bereziak behar direla pentsatuz. Beharbada, izanen da zerbait horretatik ere, baina gaur egun bertsotan

ikasi ere egin daitekeela pentsatzeko arrazoiak badira. Bertso-eskolak dira horren lekuko, bertsolaritzaren eremua aunitz zabaldu dutenak. Oraingo bertsolari eza-gun gehienak, gainera, bertso eskoletatik ater-

takoak dira. Horrez gain, bertsolaritzak Hezkuntza Araturako saltoa ere egin du, eta ez dira ez bat ez bi, eskola orduetan bertsolaritza lantzeko aukera duten neska-mutikoak. Gisa batera edo bertzera, baina ber-

tsozaletasuna hedatzen ari da, eskualdean 312 bat lagunek jorratzen baitute bertsolaritza, batzuk Hezkuntza Arautuan eta bertso-eskoletan bertzeek.

Eskualdean ere nabaria da bertsogintzaren mugimendua. Baztan, Bortziarik, Malerreka, Leitzaldea eta Saran, errate-rako, haur, gazte eta helduen bederatziko bertso-eskola daude. Bortziarrietako izan zen aitzindari, Manolo Arozenaren ekimenez, 1990. urtean Lesakan sortua. Geroztik, aunitz zabaldu dira eta Bera, Igantzi, Doneztebe, Leitza, Goizuetako, Baztan eta Saran ere badira. 34 neska-mutiko, 17 gazte, 29 heldu eta 8 bertsolari biltzen dituzte astero bertso-eskolek, 88 lagun guztira.

Eskola bakoitzaren sorrera data zehaztea zaila da, baina normalean ikastaro bezala planteatzen da hasieran, eta interesatuz gero, aitzine-ara egiten dute.

## HEZKUNTZA ARAUTUA

Bertsolaritzaren oinarriko transmisioa bermatzeko helburuarekin, Hezkuntza Arautuan, hau da, eskola orduetan, bertsogintza lantzen duten bertso bederatziko ikastetxe daude inguruan: Amairuko eskola, Azpilkuetakoa, Baztan Ikastola, Elizondoko San Francisco Javier ikastetxea, Doneztebeko San Migel, Leitzaoko Erleta, Igantzioko eskola, eta Berako Rikardo Baroja eta Labiaga Ikastola dira ikasturte honetan bertsolaritza jorratuko dutenak. Eta hauetan guztietan 224 neska-mutikok parte hartzen dute. Astean ordubeteko klaseak jasotzen dituzte, ikasturte osoan 30 ordu, eta Estitxu Arozena da guztietan irakasle lanetan aritzen dena.

Baina ez hori bakarrik. Ikastetxe eta bertso eskolek bertzelako jarduerara osagarriak ere egiten dituzte: txapelketak, topaketak, udalekuak...

**MALERREKA**

## Aukera bakarra Donezteben

### BERTSO ESKOLAK Doneztebe

- 5 gaztetxo aritzen dira.
- Hitzordua: astelehenean egiten dute (17:00-18:00).
- Irakaslea: Estitxu Arozena.

### HEZKUNTZA ARAUTUA

- 54 laguneko taldea elkartzen da **Doneztebeko San Migel ikastetxean**. Bi taldetan banatuta lantzen dute bertsolaritza.

**SARA**

## Euskaraz bizitzeko bidea emanaz

### BERTSO ESKOLAK Sara

- 2006/07an eratua Karlos Aizpuruak. Bi urteko geldialdiaren ondotik, 09/10ean berriz hasia.
- 9-10 urteko 5 haur biltzen dira ikastolan.
- Hitzordua: astelehenean (16:45-18:00).
- Irakaslea: Karlos Aizpuru.
- Helburua: Saran bertsozaleak sortu eta herriko bertso saioetarako bertsolariren bat ateratzea. Bide batez, gazteei euskaraz bizitzeko parada eskaintzea.

**LEITZA/GOIZUETA**

## Goizuetan eta Leitza bertso eskola bana

### BERTSO ESKOLAK Leitza

- 5 gaztetxo eta 6 heldu biltzen dira.
- Hitzorduak ortzegunetan: helduak (19:00-20:30) eta gaztetxoak (13:50-14:50).
- Irakaslea: gaztetxoena Estitxu Arozena eta helduena Joxema Leitza.

### Goizuetan

- 5 gaztetxo eta 8 gazte.
- Hitzorduak: haurrak astearteetan (14:00-14:45) eta gazteak asteazkenetan (13:00-13:45).
- Irakaslea: Maialen Urtzi.

### HEZKUNTZA ARAUTUA

- 17 gaztetxo **Leitzako Erla eskolan**.

**BORTZIRIAK**

## Bera, Igantzi eta Lesakan zabaldua

### BERTSO ESKOLAK Bera

- 5 gaztetxo eta 7 heldu elkartzen dira.
- Hitzorduak: gaztetxoak astelehenean (17:15-18:15) eta helduak astearteetan (20:00-22:00).
- Irakaslea: Julen Zelaieta.

### Igantzi

- 5 gaztetxo biltzen dira.
- Hitzordua: astearteetan (19:15-20:15).
- Irakaslea: Estitxu Arozena.

### Lesaka

- 6 gaztetxo, 9 gazte (bi taldetan banatuak) eta 4 heldu elkartzen dira.
- Hitzorduak: haurrak astearteetan (16:30-17:30); gazteen talde bat asteartean (18:00-19:00); gazteen bertze taldea asteazkenetan (16:00-17:00) eta helduak ortziraletan (19:00-20:30).
- Irakaslea: Estitxu Arozena.

### HEZKUNTZA ARAUTUA

- Aurten lehen aldiz, eta Hezkuntza Sailarekin Bertsozale Elkartek duen akordiotik aparte, **Berako Labiaga Ikastolan** Bertsozale Elkartearen bertsolaritza programa landuko dute 24 ikaslek.
- **Berako Ricardo Barrojan** 13 haurrek lantzen dute bertsolaritza.
- **Igantzi**ko eskolan 15 ikaslek jorratzen dute.

**BERTSOZALE ELKARTEAK**

Norbaitek bertso eskolan izena eman nahi badiu, Bertsozale Elkartetara jo behar du. **Nafarroakoa:** [nafarroa@bertsozale.com](mailto:nafarroa@bertsozale.com) edo (0034) 948 143747. **Iparraldekoa** (Senperen du egoitza): [iparralde@bertsozale.com/bertsularien-lagunak@wanadoo.fr](mailto:iparralde@bertsozale.com/bertsularien-lagunak@wanadoo.fr) edo (0033) (0) 559541504.

**BAZTAN**

## 101 ikasle ikastetxeetan bertsogintzan

### BERTSO ESKOLAK Elizondo

- laz sortua.
- 12 heldu aritzen dira bi taldetan banatuta, bat hasiberriena eta bertzea iaz hasitakoa. Haurren talderik ez dago.
- Hitzordua: ortziraletan (20:00-22:00) San Francisco Javier ikastetxean.
- Irakasleak: Jon Barberena eta Jon Elizetxe.

### Oronoz

- Urrian sortua, Nafarroako Bertsozale Elkartearen ekimenez.
- 8 bertsolari biltzen dira: Amaia eta Bittor Elizagoien, Estitxu Arozena, Ander Fuentes *Itturri*, Egoitz Gorosterrazu, Jon Elizetxe, Julen Zelaieta eta Jon Barberena.
- Hitzordua: ortzegunetan (18:00-20:00) eskolan.
- Irakaslea: Arkaitz Gokoetxea.
- Helburua: Txapelketan aritzen diren bertsolariak trebatzea. Izen-ematea zabalik.
- Baldintza: bertsotan bat-batean aritzeko maila ona edukitzea.

### HEZKUNTZA ARAUTUA

- 9 laguneko taldea **Amairko** eskolan.
- 6 laguneko taldea **Azpilkuetako** eskolan.
- 16 laguneko taldea **Baztan Ikastolan**.
- 70 lagun **San Francisco Javier** ikastetxean. Bi talde dira.

**TXAPELKETA ETXAK SARIKETA**

## Bortzirietako bertso-eskolen txapelketa eta Izeta Sariketa abenduan

Aurten hamabigarrenez, bertso eskolen txapelketa egiten da abenduan. **Malerrekako** saioa abenduaren 3an egiten da, bi hirukoteren artean. Iker eta Egoitz Gorosterrazu eta Alazne Untxalok osatuko dute talde bat, eta Irati Arrieta, Maialen Belarra eta Ander Fuentes *Itturri* bertzea. Doneztebeko Ekaitza ostatuan ariko dira, eta Lesakako saiorako txartela izanen dute jokoan. **Baztan**en lau hirukote ariko dira abenduaren 10ean Erratzuko elkartearen. Lehenbiziko taldean Maialen Gamio eta Bittor eta Amaia Elizagoien ariko dira; bigarrenean Jon Barberena, Xabier Maia eta Gorka Urtasun; hirugarrenean Jon Elizetxe, Oier Amiano eta Maialen lantzi; eta laugarrenean Iñaki Aleman, Iban Dufurrena eta Kotte Plaza. Irabazleak Lesakako saiorako txartela eskuratuko du. **Bortzirietatik** sei taldek parte hartuko dute abenduaren 10 eta 11ko saioetan. *Beratarrak* taldean Julen Zelaieta, Patxi Castillo eta Aitor Elepuru ariko dira; *Txope Taberna* taldean Kristiñe eta Maddi Ane Txoperena eta Garaxi Taberna; *Klasikoak* taldean Juan Mari Lopez, Manolo Arozena eta Joxe Juan Zubieta *Etxabe*; *Zapelpunk*-en Gaizka eta Jon Silveira eta loar Tainta; *Estrata Estrit*-en Egoitz Telletxea Xabier Terreros eta Iñigo Olaetxea eta *Ortizilko Santuk* taldean Josu Sanjurjo, Iban Garro eta Aitor Arotzena. Abenduaren 10ean bi saio jokatuko dira Berako Espidobaitan: batetik, *Beratarrak* Malerrekako txapelketa aurka ariko dira; bigarrenean *Ortizilko Santuk* eta *Estrata Estrit*. Hilaren 11n, Lesakako Arranon, *Klasikoak* eta *Zapelpunk* eta Zialdo ostatuan Baztango onenak eta *Txope Taberna* lehiatuko dira. Finalerdiak Lesakako Haizegoan eta Atxaspin egiten dira hilaren 11n. Hasteko, Espidobaitako lehen kanporaketako garailea eta Arranoko irabazlea lehiatuko dira; eta Atxaspin, Espidobaitako bigarren saioko garailea eta Zialdoko irabazlea. Egun berean, Lesakako Lindurrenbordan egiten da finala.

Bertzalde, bi urtetik behin egiten den **Mariano Izeta Sariketa** abenduaren 8an egiten da Elizondoko eliza ondoko aretoan. Nafarroako 13 bertsolari gazte ariko dira: Aimar Karrika (Auritz); Iker Gorosterrazu (Ituren); loar Tainta, Josu Sanjurjo eta Iban Garro (Lesaka); Saioa Alkaiza (Antsoain); Iñaki Aleman (Irurita); Jose Luis Barberia *Zili* (Leitza); Irati Majuelo, Haizea Beruete eta Ainhoa Aranburu (Iruñea); Amaia Elizagoien (Oronoz) eta Patxi Castillo (Bera). Goizez bi kanporaketa egiten dira, eta 17:30etik aitzinera finala sei bertsolariarekin.



**Nire txanda**  
Beñardo GOIETXE

## Haizea, euria eta kazkabarra

**A**gurraren eta esker onaren lezioa atzentzen ari den jendea. Irri eta negar errazegi egiten duen jendea. Lagun bila ibili beharrean, beti etsai eske ibilki den jendea. Uste ustelak trabaturik, ezagutu gabe juzkatzen duen jendea. Teman, barkatzen ikasi ezin duen jendea. Bertzeek erran eta egina gaizkiegi edo ongiegi hartzen duen jendea. Boteredunak, sosdunak eta famatuak lerdea darian miresten dituen jendea. Auto, etxe eta mainetan barra-barra gastatuz, zorion perfektua lortzen duen jendea. Beti krisian egonen den jendea. Nekez edo aiseegi, hilean guttiegi edo sobera irabazten duen jendea. Nondik heldu den ahantzita, bere erroak errotik ateratzen ari den jendea. Dena politegi edo itsusiegi ikusten duen jendea... Udazkenak haizea, euria eta kazkabarra bezalaxe, geu bezalaxe, urak ekarki eta eramaki duen jendea.

**Nondik heldu den ahantzita, bere erroak errotik ateratzen ari den jendea...**


### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Gure historiaz zer dakigu?

Iñaki Perurenak Bilbovisioneko kazetari lotsagariari emandako erantzunak harat-honat dabilta sare sozialetan. «Euskalduna kontsideratzen zara» harrituta txorimaloak, «kontsideratu ez, euskalduna naiz!», xalo erantzun leitzarrak. «Jakintsu» ere deitzen dio Manuk, «jakintsu ez, gure historia ezagutzea da guttienean egin dezakeguna», erantzun Iñakik. Guretzako ere har dezakegu leitzarraren errana.

### Nabarmentzekoak



**Nekane PEREZ**  
NaBaiko parlamentaria

Aaiunera joateko bidaia oztopatu zion Maroko poliziak beratarri Casablancako aireportuan, bertze zenbait parlamentariri bezalaxe. Saharan ez du lekukorik nahi Marokok.



**Jon JAUNARENA**  
Pilotari leitzarra Aspera

Abenduaren 29an debutatu egiten du profesionalan Tolosako Beotibarrren. Hiru urterako kontratua sinatu du 18 urteko aurrelari leitzarrak. Afizionatutan palmares ederra osatu du.



**Jose Mari IRAZOKI**  
Hezkuntza Saria

Ekainaren 30a arte Toki-Ona institutuko zuzendari izan den bertarrak Hezkuntza Sarietako bat jaso du, bere zuzendari lanagatik. Azaroaren 23an jasotzekoa zuen saria Iruñean.

### Atzera begira → 1992.11.26 / TTIPI-TTAPA 98. zbk



### Bertziko Kontsorzioa sortu zen duela 18 urte

«Bertziko Kontsorzioa zonaldeko turismo eskaintza bulkatzeko asmoarekin osatu da» izenburupean erreportajea argitaratu zuen TTIPI-TTAPAK 1992an. Azaroaren 13an egindako prentsaurreko batean eman zen sorreraren berri. Proiektuak Baztan, Malerreka eta Bortzirietako udalak eta Hiruak-Bat agroturismo etxeen elkarteak, hotel, ostatu eta hostalen elkarteak, jatetxe elkarteak, komertzio elkarteak eta ostatuen elkarteak biltzen zituen bere baitan hasiera hartan. Udal ordezkariak onartu zuten, «Kontsorzioak ez ditu zonaldeko arazo ekonomiko guztiak konponduko, baina zenbait ate zabalduko ditu».



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Ixaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia, Patxi Dutoournier...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....37€	Europa	.....55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....31€
Ipar Euskal Herria	.....55€	Amerika eta Australia	.....123€	Leitza	.....15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Zilbetiko magnesita meatzea: Segi eta segi lortu arte?

Alejandro ARIZKUN (Ekologistak Martxan)

**D**uela hiru urte Magna enpresak Erdizen ireki nahi zuen magnesita meatze proiektuari buruz idatzi genuen. Gure kontrako iritzia agertu genuen, argudio hauetan babestuz:

- Natura 2000 Sarearen baitan dagoen Alduideko ZECarentzat izanzen zituen ondorio larriak.

- Eragin horiek Alduiden dauden lehentasuneko zenbait habitat eta espezieetan biltzen dira, bertzeak bertze, bular zuriko okila (*dendrocopos leucotos*) edo ugazta (*Gypaetus barbatus*).

- Europako Habitaten Zuzendaritzaren arabera, Sare hori eragiten dion proiektu edo plangintza onartzeko «osasunarekin edo segurtasun publikoarekin zerikusia duten kontsiderazioak bakarrik erabil daitezke, edo ingurumenarendako garrantzi handiko eragin positiboak». Horren aitzinean, zonalderako garrantzi handia izanzen lukeen proiektuaren irudia indartzeko, MAGNA enpresak indar guttiko argudioak erabiltzen ditu:

- 35 lanposturen sorrera, baina bakarrik meatzea ustiatuko den hamabortz urterako.

- Ingurumenarekin errespetua izanzen duen proiektua dela diote, baina aipatutako eraginez gain, orduro 25 Tona garraituko duten 11 kamioi ibiliko den errepidea egitea aurreikusten da.

- Enpresa, zonalderako etorkizun jasangarriko berme gisara aurkezten du bere burua, baina 1945etik inguruko bertze lekuetan ari da lanean, etorkizuneko abantailak inon ageri ez direla.

Baztango bizilagunak proiektuaren kontra azaldu ziren eta Udalak ere babestu ez zuenez, Magnak proiektu hori utzi eta gaur egungoa hartu zuen, ezberdintasun guttirik... Bakar-bakarrik bere edukia okerragoa dela!

Alduideko ZEC beraren baitan, baina bertze herri batean, Erron kokatzen du meatzea gaur eguneko proiektuak. Bi tunel eginen lituzkete eta ez du lanpostu berririk sortuko, baina Zubiriko lantegiko lanpostuen berme gisara aurkezten du. ZEC berean dagoenez, lehengo ondorio kaltegarri berberak izanzen lituzke. Nafarroako Gobernuak PSIS deklarazioa bultzatu du baina Erroko bizilagunek errekurtsioa jarri dute. Baina informazio publikorako epea abuztuan irekitzeak Gobernuak onartzearen aldeko interesa duela erakusten du. Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak Natura 2000 Sarea babestea espero dugu eta bailara honetako bizilagunek etorkizuneko garapen jasangarri eta sozialaren alde egitea, eta ez dagoeneko gurean kaduzitate-epea daukan multinazional baten alde.

«Zilbetikoa  
Erdizkoaren ZEC  
beraren baitan  
dagoenez, lehengo  
ondorio kaltegarri  
berberak izanzen  
lituzke»

### Sahara baztertua eta Nazio Batuen ardura

Juainas PAUL ARZAK

**A**zaroaren 14a. Duela 35 urte gauzatu zen traizio baten urteurrena izan da: frankismo-ko azken gobernuak sinatu zuen Maroko eta Mauritaniarekin Mendebaldeko Sahararen banaketarena, hain zuzen.

Oposizioaren oihuak eta protestak nabarmenak izan ziren. Ospetsuenetarikoak, beharbada, Felipe Gonzalez jaunarenak. Berak, boterera igo diren guztiak bezala, atzenduaren jolasa burutzen joan da gero: eskubidea bai, baino... gogoia non?

Mauritania baztertu zen. Marokok, ordean, merkaturatu paratu ditu Saharako aberastasunen kontrola, etorkinen uholdeak, Ceuta eta Melillako aferra eta, batez ere, bere kokapen estrategikoa.

Herriaren bizkarrera duen sistema politiko-erlijiosoak lasaitasuna eskaintzen dio munduko jabeei, Mendebaldeari. Trukean, ezmoraltasuna areagotuz, nazioarteko babesarekin ordaintzen diote. Beste Israel bat balitz bezala, muga guztien gainetik nahi duena egin dezake Mohame VI.ak. Egungo egoerak frogatzen du.

Aaiun ondoan zegoen protesta kanpalekua urratu dute, bertan gordeak ziren terroristek harrika erasotzen baitzieten inguratzen zieten armada «baketsuari». Sahararren hobe beharrez, lurralde okupatutako hiriak kontzentrazio esparruak eta sarraski eremuak bihurtu dituzte.

Garbiketa etniko bat ari dela gauzatzen eta hobi edo fosa komunak erabiltzen salatzen dute bertan diren kazetari eta kanpotar ez-marokoar banakak. Ez omen da nahikoa. Ongi aztertu behar omen da -Espainiako gobernuaren iritzian- gertatzen ari dena. Kasualitatez, Marokoko agintariak debekatzen dute lekukoek bertaratzea. Berririo Palestinarren irudira.

Makurrago, zoritxarrez. Hilabeteak dira sahararrek Nazio Batuen inplikazioa eskatzen dutela. Giza eskubideen ardura har dezatela, alegia. Bertan, Sahara okupatutako diren MINURSOko edo Nazio Batuen begiraleak urteak darabate deus egin gabe. Aaiunen, hango hoteletan eta harat-honata kotxez joan-etorrian pasatzen dute denbora. Zein izan da euren ardura egun hauetan? Zer ikusi dute eta nola saiatu dira? Hedatu behar dute, nahitaez, euren testigantzak, froga zehatzak, dokumentatuak... edota, guztia gertatzen ari zela beste aldera begira egon dira?

«Aaiun ondoan  
zegoen protesta  
kanpalekua urratu  
dute, bertan  
gordeak ziren  
terroristek harrika  
erasotzen  
baitzieten  
inguratzen zieten  
armada  
'baketsuari'»

## Irakurleak mintzo

## Josu Jonen herentzia

Joxe Fermin  
LIZARRAGA LAZKANO

Zapatero salbatzearen truke, gaur egun euskaldunok ezinbestekoak ditugun eskubide politikoak, judizialak eta abar exijitu beharrean, espainolistek ikurtzat duten autonomismoa indartuz, duela hogeita hamar urte lortutakoaren zati zaharkitu bat lortu dute. Lehen edo orain gezurra esan digute.

Urkulluk orain, ezker abertzaleari denbora agortzen ari zaiola eta hitzetatik ekintzetara pasatzeko exijitzen dio. Une honetan non dago bortizkeria? Nor mugitu beharko litzateke bide soilik politiko eta demokratikoetara?

«Conflicto vasco» delakoa moldatzeko Madril en egiten dituzten bileretan, Iñigo, Alfredo eta Jose Luisek, agian Euskal Herrian mugitzeko gehiegi estutzen duen gorbata laxatu eta oinak mahaiaren gainean dituztela, eroso aritzen dira. Beraien erabakiei arrazoiak azalduz aurre egiteko gai diren politikariak kartzelan edo kartzelarekin mehatxatuta dauden bitartean. Erakunde ageriko eta baketsuen kontrako sarekadak, hauen kideei eman beharreko tratua, sakabanaketak, eskubide judizialak, politikoak eta abarri dagozkien salbuespenak, non erabakitzen dira? Bozka abertzaleei eus-

teko eginahaletan, tar-teka, ustez denborak eta esanak ongi neur-tuta Egibarrek esaten dituenak, entzungarriak izan arren, partidu barruko paper banaketa batetik haruntzago ez dute sinesgarritasunik, politikan esateak baino egiteak balio askoz handiagoa baitu.

Nahiago nuke ala ez balitz, baino, zerbait jokoan dagoen aldiro bezala, EAJ botere espainiarrarekin lerrotatuta ikusten dut.

## Andoni Aizpuru eta Xabier Euzkitze lagunei

Xanti BEGIRISTAIN (Iruña)

Kaixo, Andoni eta Xabier:

Badakit oso saiaturak zaretela gauza guztiak ongi-ongi esan eta idazteko, eta, gainera, aitortu behar dut pertsona eredugarritzat jotzen zaituztedala alor horietan. Hala eta guztiz ere, denak pertsonak gara, eta ez da batere harrigarria noizean behin zertxobait pasatzea eta itzurtzea.

Andoni, zurekin hasiko naiz. Orain dela gutxitik aurrera, ETB1eko eguraldi mapan, egunero-egunero ikusten ditugu Ortzan-zurieta eta Irurzun hitzak. Suposatzen dut ez dela izanen inoren borondate txarragatik, baina begiratzen baduzue Euskaltzaindiaren webgunean, ikusiko du-

zue bi kasuetan ere esaten dutela Ortzan-zurieta eta Irurzun direla euskal era arautuak; hortaz, ba, Andoni laguna, ez baldin bada go beste arrazoi sendoagorik behinik behin horrela agertzeko, eskatuko nizueke bi akats horiek ahalik eta azkarraren kentzeko.

Eta orain, zurekin, Xabier. Gaur egun, pilota partidetan, sarritan agertzen ez badira ere Eratsun eta Mugairi herriak, egia da garai batean askotan agertzen zirela, Julian Retegi, Mikel Goñi, eta abar zirela-eta. Esan bezala, gaur egun ez da oso arrunta hitz horiek agertzea, baina, hala ere, batzuetan oraindik ere, Iñaki Eskudero dela-eta edota Otxandorena dela-eta,

agertu ohi dira Eratsun eta Mugairi herriak. Aitortu behar dut, zuk zerorrek, Xabier, oso ongi esan ohi dituzula hitz horiek, baina ez dakit inoiz erreparatu ote dionzun, ETB1en beti agertu izan direla gaizki idatzita, alegia, Eratsun eta Mugairi; zalantzaren bat baldin baduzu, errepasatu pixka bat aurreko programak eta ikusiko duzu horrela dela.

Beno, Andoni eta Xabier lagun estimatuok, badakit ohitura txarrek batzuetan pisu handi samarra izaten dutela zuzenduak izateko, baina zuen prestutasunarekin ez dut zalantzarik egiten, berehalaxe zuzenduko dituzuela hitz desegoki horiek.

Har ezazue besarkada bero bana.



## Bota bertsoa

Garaxi TABERNA • Doinua: Haizak hi mutil mainontzi

## Bortzgarren urteurrena

Bortzgarren urteurrena  
herrien oihu ozena  
Zutaz oroitzuz txoko hontatik  
zuretaz omena  
Zuk egin zenuen dena  
eta zure ahalmena  
izan zinenak egiten zaitu  
ahaztezinena

Zenbat urte pasa diren  
zenbat euri egin duen  
eta gehiago adierazten du  
elkartzeak hemen  
zen garen edo nor gauden  
noizbait zenbat izan ginen  
izan ginenaz eta garenaz  
zer izango garen

Izan zinez maitea  
heldua eta gaztea  
ezin saihestu daitekeena da  
malkoak jaitea  
beste izar bat piztea  
eta oroitaraztea  
laister herria izango dela  
betiko askea

Garaitu zenuen guda  
eta bizitzaren muga  
orduz geroztik borrokatzea  
da gure ardura  
Ezinbestean lilura  
begiratuaz zerura  
zure ahotsa entzun dezaket  
«garaia heldu da»

**Ttapi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!**  
proiektu zenbakia:  
**15.996**  
Zure laguntza eskertzeko, boltsa eder hau opari izanen duzu!

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTAPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net

Posta: Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.: 948 63 54 58 Faxa: 948 63 54 57



**Prentsatik bildutakoak**



«Pilotan jokatzeko inoiz baino gusturago nabil, bigarren semea ere bigarrena aurrera... Emaztea ere lanean hasi da eta etxeko lanak egitea egokitu zait azkenaldian (...) Gustura nago komunikabideetatik urrutik. Profesional mailako azken hilabetetarako, askotan gehiegi azaltzen nintzen. Nire pilota ibilbideak baino nire bizitzako ohiturak eta ekintzak bihurtu ziren albiste iturri».

**Mikel GOÑI**  
Oronoz-Mugairiko pilotaria  
DROGETENITTURRI, 2010.10



«Eskubaloia eta mendia dira nire aitaren afiziorik haundienak, eta bai nire anaiak eta bai nik ere afizio horiek konpartitzen ditugu. Nire aita beti izan da mendizalea eta ttikitatik, bortz edo sei urte nituenetik, inguruko mendietara eta Pirinioetara joan izan gara, batez ere, udan (...) Doneztebe mendi artean dago eta beti ibili izan gara mendian».

**Niko MINDEGIA**  
Eskubaloia jokalaria  
D. NOTICIAS, 2010.11.11

**11 galdera labur**

**Trikitixarekin, dantzan, sukaldetan... Zeinetan moldatzen zara hobekien?**

Dantzan.  
**Moha izengoitia nondik heldu zaizu?**

Istoria luzea da. Lagun bat denei izengoitiak paratzen aritzen zen. Ni nahiko beltzarana naizenez, hortik atera zen eta geroztik hori gelditu zait.

**Trikitixa jotzen noiztik zabilta?**

17 urte nituenetik.

**Nolatan sortu da Aierrik taldea?**

Lagun artean sortu zen. Denak batean hasi ginen entsaizatzen, eta nahiko ongi moldatzen ginela eta, hortik burutu zitzaigun talde bat egitea. Helbururik gabe hasiginen.

**Orain arte bisitatu dituzuen plaza artean gustukoena zein da?**

Aurtizkoa.  
**Bertzeak juergan eta zu lanean egote hori nola eramaten da?**  
Momentuan behinik behin ongi eramaten dugu. Aurrerago ikusi beharko dugu.

**Eszenatoki gainetik ikusi duzun zerbaitek harritu al zaitu?**

Ez, orain arte ez dugu ikusteko aukera haundirik ere izan. Baina goitik dena garbi-garbi ikusten da.

**Inauteriak ala bestak. Zein dituzu nahiago?**

Inauteriak, dudarik gabe. Sakratuak dira.

**Gustuko musika talderen bat? Ze esate!**

**Gustura joko zenukeen toki edo plaza bat?**

Zubietakoa, etxean bezala.

**Adinean aitzinera, zer egitea gustatuko litzaizuke?**

Ez dut askorik pentsatzen eta etortzen dena etorria izan dadila, eta horri etsi.



**Joxe Mari MITXELENA → Aierrik taldeko trikitilari zubietarra**

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**FRUTAS VERDEJAS**  
**ERANDONEA, S.L.**  
FRUTAS DE CALIDAD GARANTIZADA  
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

arropak • maindreak  
mantak • nordikoak  
toallak • kortinak  
alfonbrak  
**Goya**  
Bera  
Alzola, 4 • Tel: 948 630 083

**XITELI**  
Aldea 1 - BERA  
Tfn: 948 631 446

**ERROTAZAR**  
**harategia**  
Bertako produktua  
Eztegara, 3 - BERA  
Tel/Fax: 948 630 088

**ZOANSA**  
SEAT  
VW  
HYUNDAI  
Audi  
**MARKA GUZIEK KONPONKETA**  
Banaria, 2 - Alkaiaga industrialdea  
LESACA (samera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa  
• Kirol Fisioterapia  
• Osteopatia  
• Masaiak  
• Trafiko istripuetan aholkularitza  
• Istripu eta osasun aseguruak  
• METODO BERRIA  
Umeentzako arnas fisioterapia  
Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

## GIZARTEA

NEKANE PEREZ → CASABLANCAKO AIREPORTUAN GELDIARAZIA

## «Argi zegoen Marokok sartzen utzi nahi ez bazigun, zerbaitegatik zela»

Bizitutakoa  
kontatu dio  
TTIPI-TTAPARI

## TTIPI-TTAPA

Marokok Aaiun setiatua du azaroaren 8az geroztik, eta ordutik egoera larrian daude Mendebaldeko Saharako hiriburuak. Nekane Perez Nabaiako parlamentari berritarra Aaiunera joateko azen hilaren 7tik 9ra, egoera salatzeraz, baina Marokoko poliziak Casablancako aireportuan geldiarazi eta berak eta berekin zihoazenek ezin izan zuten Aaiunera ailegatu.

«Irailean Saharako aktibista batzuekin egon ginen Argelen konferentzia batean, eta zer gertatzen ari zen ikustera joateko eskatu ziguten». Hala erabaki zuten Aaiunerako bidetara hartzea, «egoera eta giza eskubideen urraketaz salatzeraz». Lehenbizi, Nayem Elgarhi Marokoko poliziak hildako 14 ur-



Nekane Perez.

teko sahararren familiarekin egotea zen asmoa, eta biharamunean Aaiun-go kanpalekura joatea.

Aireportura ailegatu orduko zenbait arazo izan zituzten, baina azkenean zigilua paratzea lortu zuten, eta «hegazkineratze-ko txartela arazorik gabe hartu genuen». Aireportutik kanpo aktibista batzuekin bildu ondotik, garaiz itzuli ziren aireportura, eta hasierako polizia kontrolak erraz pasatu ondotik, hegazkineratzean hasi ziren beneta-

ko arazoak: «txartela bikoiztua genuela erran ziguten eta airepotuan bueltaka ibili gintuzten, non geunden jakin gabe. Azkenean, nazioarteko esparrura eramantuzten». Hasieran arazorik ez zela egonen erran omen zieten, nahiz eta gero, txartela eta pasaporteak kendu: «handik inora ere ez ginela mugituko erran ziguten». Orduak aitzinera, medioetara deika hasi ziren: «presio mediatikoa izugarria izan zen, eta kontsulatu-

ere etorri zen. Gerora, pasaportea ere itzuli ziguten. Argi zegoen Marokoko Gobernuak sartzen utzi nahi ez bazigun, zerbaitegatik zela. Etxera etorri ginenean, jakin genuen zer gertatu zen». Alegia, Maroko Aaiun erasotzen hasi zela.

Nahi eta ezin, «inpotentzia haundiarekin» gelditu da Perez: «ahal dena egin genuen, baina berandu». Eta ezkor begiratzen dio etorkizunari: «Marokori bost axola zaio indarkeria erabili, eta bat, bi edo milaka lagun hil behar baditu ere». Espainia eta Frantziako gobernuak jarrera aldatzen ez badute, bere irudiko, egoera okertu egingen da: «35 urte ditu Saharako herriak erresistentzian eta gero eta okerrago ikusten dut egoera. Gerra bat da azken finean, eta gerra horretan Marokok dituen irabaztekoak, medioak badituelako». Horren harira, jendeari egoera salatzeraz deia egin dio.

## MUSA

Bortzirietako  
III. Mus  
Txapelketa  
abian

## TTIPI-TTAPA

Bortz herrietako Osasunazaleak biltzen dituen Bortzirietako Gorriak peñak Bortzirietako Mus Txapelketa antolatuta du hirugarren aldiz. Lehenbiziko partidak azaroaren 19an jokatu ziren **Lesakako** Koxkila ostatuan. Ortziral honetan, hilak 26, **Etxalar**ko Herriko Ostatuan jokatuko dira, 23:00etan hasita. Abenduaren 3an, 23:00etatik aitzinera **Arantzako** Pabloenean jokatuko dira. Abenduaren 11n, **Berako** Errekalden jokatuko dira partidak 16:00etan eta **Igantzi**ko Allinean, abenduaren 17an, 23:00etatik aitzinera. Herri bakoitzeko sailkatutakoek Eguberri Egunean jokatu dute finala **Lesakan** 18:00etatik aitzinera. Izen emateak mus partidak jokatu diren lekuetan egiten ahal dira, hasiera ordua bitartean. Informazio gehiago 606 542395era deituz.

## BORTZIRIAK

HIRI HONDAKINAK → KONPOSTAJEAREN HIRUGARREN KANPAINA

110 konpostontzi gehiago  
banatuko dira urtea bukatzerako2008an eta  
2009an 183  
konpostontzi  
banatu dira

## TTIPI-TTAPA

Hedatzen ari da etxeko konpostajea Bortzirietan.

Datuek hala diote. 2008an egin zuen Hiri Hondakinen Mankomunitateak etxeko konpostatze indartzeko lehen kanpaina bortz herrietan eta arrakasta ikusita 2009an bigarrea egin zuen. Guztira 181 familia eta bi eskolak hartu dute parte.

Baina urtea bukatzerako, gehiago izanen dira. Eskara aunitz jaso direnez, Mankomunitateak, Nafarroako Partzuergoarekin, hirugarren fasean 110 konpostontzi gehiago banatuko baititu.

Sortzen den hondakinen kopurua murrizteko



Hirugarren kanpaina banatuko diren konpostontziak.

lanean ari da azken urteotan Mankomunitateak, etxeko konpostajea bultzat-

zen. Izan ere, etxean sortzen den hondakinen %40-45 organikoa da.



# ERAIKUNTZA GEHIGARRIA

531. zenbakia | 2010eko azaroaren 25a





## Zure sukalde berriaren muntaketa **musu-truk**\*

Duela urtebete ALKAIN TODO&MAT-ek sukaldeko altzarien departamentu berria zabaldu zuen eta horri esker, etxearen hornikuntza osoaren gune bezala berretsi zen.

Urtemuga hori ospatzeko, ALKAIN TODO&MAT-ek zure sukalde berriaren muntaketa **musu-truk**\* eskaini nahi dizu.

\*2010-XII-31 baino lehen egindako eskaera guztiei, 400€tan baloratua den sukalde-altzari eta elektrotresnen muntaketa doan egingo zaie.

todo&mat  
**alkain**  
dena&mat



LAPURRETA

## Zer egin etxean lapurretaren bat izan baldin baduzu

Etxera iritsitakoan etxean lapurrak izan direla hauteman baduzu, arras garrantzitsua da lasaitasunari eustea eta hemen zehaztuko ditugun aholkuak segitzea; izan ere, hala, delituari buruzko polizia-indarren ikerketa errazago egin ahalko da.

### ABISUA EMAN ETA EZ UKITU

Ez da deus ukitu behar, ezta mugitu ere, etxea hankaz gora egon arren. Modu berean, ez da inola ere gomendagarria inongo leiho edo aterik zabaltzea ere. Berehalakoan deitu behar zaio poliziari. Ziurrenik, gaizkileek ihes egingen zuten jada, baina ziur ez bagaude, hobe da polizia etorri arte itxarotea etxera sartzeko.

Komisariara edota 112 larrialdietarako telefonora deitutakoan, lapurreta egin duten etxebizitzaren helbide zehatza adierazi behar da. Salaketa jartzeko garaia iristen denean, erabilgarritasun handikoa da lapurtutako objektuen jabetza eta ezaugarriak ezaugarritzen dituzten tiketak edo argibide eskuliburuak eskura izatea, eta baita etxetresna elektrikoaren serie zenbakiak ere. Era berean, garrantzitsua da zerbait entzun edota ikusi duten bizilagunak poliziarekin harremanetan jartzea.



### SALAKETA

Salaketaren frogagiriarekin geratzea garrantzitsua da, aseguru konpainiari erreklamazioa aurkezteko. Normalean nahikoa izaten da salaketaren kopia zigilatuarekin. Izapideak arintzeko, gero eta lapurreta gehiago saldaitezke telefono edota Internet bidez, nahiz eta, gero, biktimak komisariara joan beharko duen salaketa sinatzera.

Lapurreta aurkako aseguruak hirugarrenek aseguratuak legez kanpoko edozer lapurretaren ondoriozko kalteak esaltzen ditu. Aseguru konpainia batzuek etxeko arrisku anitzeko aseguruaren baitan hautazko estaldurak proposatzen dituzte. Beraz, horiek kontratatu ala ez erabakitzea aseguratuaren esku geldituko da.

Bertzalde, kreditu txartelak, aurrezki libretak, banku elektronikoarekin lan egiteko gakoak... harrapatu dituztela uste bada, telefono bidez jakinarazi behar zaio banku erakundeari, eta zenbat eta lehenago egin hobe. Berdin egin beharko litzateke enpresa, garaje edo klubetarako txartel zein agirirekin ere. Banku eta kutxa batzuek txartelak babesteko asegurua kontratatzeke aukera eskaintzen dute. Hala, txartelak lapurtzen badituzte edota galtzen badira, estaldura handiagoa eskaintzen du.




**EZPELURA ITURGINTZA S.L**

Berokuntza - Gasa  
Elektrizitatea - Eguzki plakak  
Zoru bero emalea

T. 606 337 427 - OITZ (Nafarroa)



**BAZTAN**  
Ferreteria

Pintura | Aroztegiko gauzak  
Kristalak | Tresneria | Opariak

Santiago, 79 · Industrialdea · ELIZONDO  
T. 948 580 423

**MADERAS SANTESTEBAN**

Mendi lanak  
(Pisak, koralak, etc.)

Bigak

Montaje obran

Tallaturako egiturak  
(ak, bertak eta bigarritakak eta garrak)

Osagarriak

Autoklabe tratamendua



Airazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77  
info@maderasantesteban.com




**ERREMINTA ELEKTRIKOEN KONPONKETA PROFESIONAL ETA BIKOLAJEA BAINO GEHIAGO NAHI DUTEN GUZTIEI ZUZENDUTAKO BURDINDEGIA**

T 948 630 492 • San Esteban, 17 • 31790 BERA




# IRIBARREN

## zurgindegia

Fabrikazioa  
salmenta  
instalazioa



Antsolokueta, 28  
31760 ETXALAR  
Tel./Faxa: 948 635 071



- EGURREZKO LEIHOAK, "CTE" BERRIA BETETZEKO MODURIK ERRAZENA
- **CE** ZERTIFIKAZIOAREKIN
- ISOLAMENDU TERMIKOA
- NATURALA, GOXOA ETA SENDOA
- ENERGIA AURREZPENAK
- AIRE KAMERADUN KRISTALAK
- ISOLAMENDU AKUSTIKOA
- EGURRA, ERAIKUNTZAKO MATERIAL NATURAL BAKARRA
- INGURUNEA: "CO<sub>2</sub>" EMISIO GUTXIAGO, BIRZIKLAGARRIA ETA BIODEGRADAGARRIA

***Gure leihoa, zure leihoa, denon leihoa, egurrezkoa!***



# TRANSTXAKAIN

TRANSTXAKAIN, s.l.  
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY



## MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

- Kamioia 15mko garabiarekin
- Kamioia 32mko garabiarekin
- Kaja baskulatzailerekin
- Zisternarekin
  - Putzu septikoak • Tuberietako ataskoak kentzea
  - Ura lekuz aldatzea

Otsango Ind. 14 • LESAKA • transtxakain@yahoo.es  
T 669 840 198 / 948 638 052 • Faxa: 948 627 578



DEKORAZIO TRIKIMAILUAK

## Nola egin bistarako haundiago etxeko gela bat


Gela bati argiztapen egokia ematea garrantzitsua da

Badaude zenbait trikimailu neurritz ttikittoa den gela bat begien oharpenarentzat haundiagoa bihurtzeko arras baliagarriak direnak. Adibidez, **zolaren ezau-garriak** baliatuz, parketako oholtoxoak edota keramikazko piezak ohikoak baino ttikiagoak paratzen baditugu.

**Ispiluak** jartzearena ere maiz erabili ohi den trikimailua izaten da. Logeletan ez ezik, espazio ttikia duten korridoreetan, jantzigeletan edo harrerakuetan aukera ona da pareta osoko ispilua jartzea.

**Argiztapen** egoki bat ere lagungarri gertatuko zaigu berez ttikia den gela bati handitasun tentsazioa emateko. Gelako sabai aldera argitzen duten zutikako lanparek altuera haundiagoaren itxura ematen dute.

Eta gehiegi erabiltzen ez den txoko batean, adibidez, irakurtzeko lekutxo bat presta dezakezu hori koloreko lanpara bat paratuz, zola argitzen duena. Harmonia eta goxotasuna emanen dio txokoari.



ELEKTRIZITATEA  
PROIEKTU ELEKTRIKOAK

# MARITX

**ETXETRESNAK**

948 630 592 • Legia, 23 • BERA



suministros electricos

material elektrikoen salmenta

T 948 581 261 • Faxa: 948 452 397  
Santiago: 83 • Industrialdea • ELIZONDO

# Tximistindar

ELEKTRIZITATEA • INSTALAZIOAK

**ETXE • INDUSTRIA  
ARGI APAINGARRIAK  
EGUZKI PLAKAK**

Askain, 12 - 4.Ezk • 31780 BERA  
☎ 948 63 1452  
639 608 034 | 639 125 046



Telekomunikazioak




- TOT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektibok
- Portero automatikoak
- Etxeko hari musikala
- Satelite bidezko interneta

Tel. 670 415 720 • joxeanlizardi@hotmail.com

Carpintería  
**EZPELA**  
Zurgindegia

**BERA**  
678 350 412 (Eloy)  
617 081 335 (Matias)

**ba**  
bidasoa arkitektura bulegoa

Antoio 27 - 4 - 31770 Lesaka  
T 948.637.503 M 661.847.107  
E estudio@arkbidasoa.com

**arteka**  
arkitektura arquitectura

Juan Mari Aleman - Patxi Valer  
Etxebizitza berriak  
zaharberritzeak  
nabeak/lehorrak...

Tel: 948/30610 Fax: 948/452434  
Proiektuak: Doctor Juan E. I. A.  
21700 Elizondoko  
Nabarra, Leizola

**LABORRA - LARUMBE**  
arkitektoak

T. 948 580 122  
Santiago, 54 - 1 • ELIZONDO

www.laborra.com



## ETXEGINTZA

### Etxe iraunkorra edukitzeko segitu behar diren 10 gakoak

Etxetik atera gabe ingurumenaren iraunkortasunean aurrera egiteko badira zenbait oinarri, hala nola: papera, plastikoa eta brikak birziklatzea; produktu ekologikoak erostea, uraren kontsumoan aurrezte eta sukaldean erabiltzen den olio berrerabiltzea.

Baina haratago ere joan zitezke, batez ere, zure etxebizitza zaharberritze-ko edo etxe berria eraikitze-ko asmotan bazabiltza. Zure etxebizitza toki iraunkorrago bihurtuko duten hamar gako proposatzen dizkizugu, hona hemen:

**1. ORIENTAZIOA.** Iraunkortasuna etxebizitza eraikitzen den momentu berean hasten da, argiaren eta beroaren erabilera eraginkorragoa lortzeko kokapen guztiak ez baitira neurri berean egokiak. Klima hotzen kasuan, etxeak hegoalderantz orientatuta egon beharko luke, eguzki-orduak neguan hobeki aprobetxatu ahal izateko. Hartara, berogailuak denbora guttiagoz erabiliko dira.



**2. ERAIKUNTZA-MATERIALAK.** Natura dena da iraunkortasunaren oinarria, baita eraikuntza-materialei dagokienez ere. Ildo horretatik, zenbait materialei lehentasuna eman behar zaie, adibidez: zurari —oihan iraunkorretatik datorrenari—, harriari, buztinari edo zementu naturalari.



**3. ISOLAMENDUAK ETA LEIHOAK.** Leihotarako kortxo- eta zelulosazko isolatzaileak erabiltzeaz gain, beira bikoitza eta junturak ongi itxiak eduki behar dituzte. Bertze hainbat aldaera ere kontuan hartu behar dituzte, adibidez, konduktibitatea eta eguzki-irabazia —hau da, transmititzen duen beroa eta xurgatzen duten erradiazioa— eta airearekiko iragazkortasuna. Modu berean, hegoalderat orientatutako etxeetan, horizontalean jarritako eguzki-babesekin ere hornitu daitezke, edota, bertikalean jarritakoe-kin ekialdera eta mendebaldera begiratzen dutene- tan. Horrela, udan, etxebizitza sobera berotzea ekidin duzu.



**4. EGUZKI PLAKAK.** Estimaten den edozein etxebizitza iraunkorrek eguzki-plaka batzuk eduki behar ditu etxebizitzak behar duen energia neurri batean hornitzeko. Horrela, energia aunitz aurrezten da eta atmosferara igitzen den kutsadura modu garrantzitsuan murrizten da.







**5. GALDARA-MOTAK.** Etxebizitzetako giroa eta ura berotzeko aukera ugari daude. Eraginkorren artean, kondentsazio-galdarak daude; hauek gasarekin funtzionatzen dute eta, galdara arruntarekin alderatuz, %30-40 energia guttiago kontsumitzen dute. Bertze batzuk, biomasazkoak adibidez, erregai ekologiko berriztagarriez (egur-hondakinak, peleta...) erabiltzen dute eta horien kostua ttikia da eta errendimendua handia. Garrantzitsuena, ordea, zure galdara baldintzarik onenetan edukitzea izan da.



**6. TENPORIZADOREAK.** Berogailuaren eta uraren erabilera eraginkorra izatea garrantzitsua da. Horretarako, tenporizadoreak eta termostatoak erabili daitezke; etxea aireztatu aurretik ez piztu berogailua; purgatu aldizka erradiadoreak; etxe barnean ez abusatu gehiegizko temperatuz, ez udan (gehienez, 25°C) ez neuan (20°C); eta kaniletan jarri ura aurrezteko sistemak.



**7. ARGIZTAPENA.** Argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzeaz gain, kontsumo ttikiko lanparak erabili; horrela, energiaren kontsumoan %50-75era bitartean aurrezten da. Gainera, presentzia detektatzeko sistema bat instalatzen bada, gelan inor ez dagoenean argiak ez dira piztuta geldituko.

**8. ETXETRESNA ELEKTRIKOAK ETA GASO-DOMESTIKOAK.** Etiketa energetikoa dutenak aukeratu. A mailakoen artean sailkatutakoekin, gainera, aurrezpen hori %55ekoa izan daiteke.



**9. BIRZIKLAPENA.** Hondakin "organikoak", paperak, latak, plastikoak eta brikak bereiztea ahalbidetuko dizun birziklapen-sistema desberdinez hornitzea komeni da. Modu berean, etxeko olioak ere aprobetxa daitezke gisatuak egiteko berrerabiliz.



**10. "BIO"DEKORAZIOA.** Bukatzeko, etxebizitzari ukitu ekologikoagoa eman diezaiokegu dekoratzeko material biodegradagarriak erabiliz; kortxoak eta banbua, aire-gozagarri ekologikoak eta ingurumena kaltetzen ez duten pinturak.

Gogoan izan, zure etxea zaharberritzerakoan etxeko ongizatea ez-ezik, inguratzen gaituen ingurunea ere kontuan hartu behar dela.

**Matias MITXELENA eraikuntzak**

Etxeak  
Zaharberritzeak  
Teilatuak

Tfnoa: 948 637182 • 608 777 908 • LESAKA

**Red Nasursa**  
OPIONAS COMERCIALES  
DE OBRAS Y SERVICIOS  
DE BURGOS Y SU ZONA DE INFLUENCIA

Etxebizitza eta hirigintzari buruzko  
Aholkularitza teknikorako  
Eskualdeko bulegoa  
Herriarrendako zerbitzuak  
Udalendako zerbitzuak

Tel: 948 456 103 • Fax: 948 451 320  
baltan-bidasoa@nasursa.es • www.nasursa.es  
Merkatarien karrika, 6 DOMESTEBE

**BALLARENA CONSTRUCCIONES, SL.**

ERAIKUNTZA: ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA, ERREFORMAK  
PLADURHEZKO LANAK,  
ISOLAMENDU TERMIKO AKUSTIKOAK

INSTALAZIOAK: ITURGINTZA, ELEKTRIZITATEA,  
KALEFAKZIOA,  
ABRE-EGONITIA, GEOTERMIA

SANTIAGO 606 ELIZONDO (NAFARRUA)  
TEL/FAX: 948-45 23 95 • MOB: 647 66 66 66 / 647 66 66 62  
ballarenaitel@com

**"TELLETXEA"**  
Lorazaintza  
Paisajismo  
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea  
Ureztatze Sistema Automatikoak  
Kimaketak  
Mantentze Lanak

John Telletxea  
Nekazar Ingeniari Teknikoa  
Ongizateko Injeneria, I+D, Injeneria nabia  
11770 LESAKA (Nafarroa)  
T. 948 418 881 - F. 948 437 849  
john@telletxea.com

[www.telletxealopezaintza.com](http://www.telletxealopezaintza.com)

**Gonzalez anaiak**  
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F. Joakin Iriarte, 5 • ELIZONDO  
Tfnoa: 948 580 337

**SERRERIA ALEMAN S.L.**

**SERRERIA ALEMAN S.L.**

Telatarako estruktura (doglas pinus, haritz...) • Taloak  
Haritz, izela laminatu • KVH • Laminatuak  
Egur iriak • Tratamenduak

**CE**

Frantsisko errep. 2-A • ERRATZU • T.948 453 175 F. 948 453 082  
info@serrerialleman.com • www.serrerialleman.com

**GOIENBURU**  
iturgintza

Iturgintza, berokuntza eta gasa  
eguzki plakak eta biomasa

Goienburu, 10 • 31790 ARANTZA • 600 902 723

**OKILA**  
Zurgindegia

• tarimak, leihoak, ateak, eskailerak  
• obrerako lanak orokorrean

Lander Soia  
Mikel Arburua

Piedadeko gaina • IGANTZI  
Tel.: 948 637 249

**D**

◀◀◀◀ H I R U K I D E ▶▶▶▶

Eguzki panelak ▶▶ Iturgintza  
Industria mantenimendua ◀◀  
Aire egokitua ◀

T. 948 625 395 • F. 948 625 392  
Alkaiaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

**GONZALO FERNANDEZ LAMANA y A.T., S. CV.**  
Ingeniari Tekniko Industrialia

- Bulego teknikoak:  
- Proiektuak, obra zuzendaritzak, etab...
- Instalazio elektrikoak
- Etxeko eta industriako elektrizitatea
- Enpresen mantenimendua, etab...

**DANIEL FERNANDEZ TELLETXEA**

- Baimendutako instalatzailea
- Instalazio fotovoltaikoak
- Eguzki-energiako plakak

Eizagibela, 5 • Tfnoa-Faxa: 948 450 760 • DONEZTEBE

**Javier Manterola**  
Tehniko instalatzailea

ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

☎ 629 449602  
Iturlandeta 4, behea • BERA

**EZKAIN** eraikuntzak S.L.

Lizarraga, 3 • LEITZA  
M. 650 910 868 • 650 910 867  
T/F. 948 610 956 • 948 610 956

**DOZAGARAT**  
eraikuntzak

eskatu aurrekontua konpromisoak gabe

Itzea, 5  
31780 BERA  
948 631 168  
660 382 458

**ALVARO LOPEZ**

Eskaiola, pladur lanak,  
sabai modularra,  
tabikeak

OBRA ZIURTAGIRIAK

LESAKA • 651 704 593

**APITTU ALUMINIOAK**

**XIXO JOSU**

626 312 326 626 313 162

Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak,  
Ateak, Portxeo itxidurak eta Barandilak

Oteango auzoa, 7 - Pab. 31770 Lesaka (Nafarroa)  
T.F. 948 638 297 - apittu@apittu.com  
www.apittu.com

**AROZTEGI METALIKOA**  
CARPINTERIA METALICA

**KORTA ANAIAK**

Bidasoa kalea 76, 17.atea  
31780 BERA (Nafarroa)  
tel/fax: 948 631 651



ETXEGINTZA

## Etxe ekologikoaren bila

Erosoa izatea, energia aurreztea eta ingurumenari ahalik eta guttien eragitea. Hiru alderdi hauek bateratzea izaten da helburu etxebizitzak eraikitzerakoan

Arkitektura bioklimatikoa XXI. mendeko kontzeptua da, baina muina aspaldikoa du: inguruko klima kontuan hartu eta barnealde eroso lortzea. Orain arte egin izan denari erreparatzen badiogu, berehala ohar-tuko gara ez dela gauza berria: zergatik jarri izan dituzte etxeetako leihoak hegoalde-dera begira? Argi gehiago edukitzeko, ja-



kina. Eta Mediterraneoko etheen paretak zergatik zuritu izan dituzte? Eguzkia islatu eta barnealdea freskoago egon dadin, hain zuzen. Etxeak eraikitzeke era horren eta gaur egungoaren artean, ordea, bada alde bat: teknologia eta material berriak ditugu egun, eta horiei esker, beste urrats bat egin eta ingurumenaren gaineko eragina nabarmen urritu da.

### Etxeak eraikitzeke moduak berebiziko eragina du energia-gastuan

Araudirik berriek ere hala agintzen dute, gainera. Hor dago, konparaziora, eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko Europako zuzentaraua (2002/91/EC) eta horren gainean egin den berrikuspina. Zuzentzarauak guttieneko baldintza batzuk ezartzen zituen energia-eraginkortasunaren arloan, eta ziurtagiri bat lortzera derrigortzen zuen onespina izateko (gehienez, 10 urterako balio du agiri horrek). Orain, baldintza horiek ez ezik, bertez hauek ere bete behar dituzte 2019. urtetik aitzinera eraikiko dituzten eraikin guztiek: buruaskiak izan behar dute energetikoki, eta atmosferara ezingo dute isuri inolako gas kaltegarriarik. Neurri horiek, desagerrarazi egin nahi dituzte etxebizitzak berrien energia-gastuak, eta gutti- egin nahi dute etxebizitzetan kontsumitzen den energia kopurua. Euro- pako Batzordeak eman dituen datuen arabera, European kontsumitzen den energia guztiaren % 40 etxebizitzek kontsumitzen dute.



Etxebizitzak eraikitzeke moduak berebiziko eragina du energia-gastuan. Europako Batasunak ohartarazi duenez, gaur egun eraikitzen diren etxeek urtean 3-5 litro erregai behar izaten dituzte metro koadro bat bertotzeko, eta etxe zaharretan, aldiz, 25 litro ere behar izaten dituzte batzuek (okerrago isolatuta daudelako gertatzen da hori).

**GAZMENDI**  
ERAIKUNTZAK

DONIBANE KARRIKA  
GURE BORDA • SUNBILLA  
T. 948 450 130 - 948 451 666  
M. 619 469 784

**LEIZA ANAIAK**  
ERAIKUNTZAK

Lizarraga, 17 • LEITZA  
689 231 961  
660 334 102

**MITXEO zerrategia, S.L.**

Eraikuntzarako  
estrukturak  
eta enbalajeak

**SALDIAS**

Zubizarra • 948 615 044 • 948 615 108

**anajak, apezetxea**

Idoeta, 71 - 1ª • 31745 GOIZUETA  
Tel.: 650 20 16 27 • 699 63 24 60  
www.apezetxeaanajak.com  
excavaciones@apezetxeaanajak.com



**AGUSTIN  
PORTU  
aroztegia**

Ameltziaga - Kaule auzoa - BERA  
T. 948 631 058 - 670 422 316

**INDARRI**

• Hotz komertziala eta industrialia  
• Aire girotua

T. 948 630 898  
M. 639 103 305 BERA

*Aristela*

DEKORAZIO  
TATLERRA

- Kortinak: Estoreak, bisilloak, panel japoniarrak eta mota guzietako kortinak neurrira egiten dira
- Telak, barrak, mekanismoak... eta kortinak egiteko pieza guztiak saiga
- Ohe eta Eteko jantziak: mañdiak, mantak, koltsak, sehasketako jantziak, haurrentzat ohe jantziak, mantelaria, esku-erretako etab...
- Euskal jantziak: Blusak, gonak, gonagonontzak, alkandorak, artilezko gaitzertziak, trapelak, abarkak...
- Inausterietako telak

Landa Industrialdea, Suizpi 3 LESTZA (Nafarroa)  
T. 948 61 06 11 - 635 71 39 92

AZKEN JOERAK

## Sukaldeak, batez ere praktikoak eta ederrak

Sukaldea da etxeko txokorik garrantzitsuenetakoa bat. Denbora luzea ematen dugunez sukaldean, garrantzitsua da praktikotasunak diseinuarekin bat egitea txoko atsegin bat sortzeko. Sukaldean, bazkaria prestatu eta jateaz aparte, hamaika zeregin egiten ditugu, hori dela eta, espazio guztiak ongi aprobetxatzea komeni da.

Sukaldean, bazkaria prestatu eta jateaz aparte, hamaika zeregin egiten ditugu, hori dela eta, espazio guztiak ongi aprobetxatu behar ditugu, dugun tokia ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Espazioa hobeki antolatuz, gaur egun ikusten diren joeretan honako aukera hauek ditugu, besteak beste: armairu izkinetako tolesgarriak, erretilu biratzaileak, armairu osagarriak eta zintzilikatzeko moduluak.

### SUKALDE-GAINEKOA, ERABILGARRIA ETA GARBITZEKO ERRAZA

Sukalde-gainekoaren materiala aukeratu aurretik kontuan izan behar dugu hobe dela material hori iraunkorra eta garbitzen erraza izatea. Oraingo joera da sukalde-gainekoan aluminioa jartzea, kolore xuabea eta distiratsua duelako. Horrez gain, betikoak ditugu: marmola, granitua, zura edo zeramika. Aluminioa jartzea ez ezik, altzairu xaflatua jartzea ere boladan dago. Altzairu hori 250°C-ko temperatura jasateko gai da.



### LERRO ZUZENAK ETA ETXETRESNA METALIKOAK

Gaur egungo sukaldeetan Italiako joera nagusitu da, hala ere, betiko estilo klasikoak eta zurezko altzariak ere eskura ditugu. Lerro zuzenak eta garbiak eta kolore argi eta biziak tartekatzen dira sukaldeari itxura alaia emateko; beste batzuek serigrafia jartzen dute armairuetan.

Altzairuzko eta zilarrezko bukaera duten etxetresnak primeran txertatu dira gure sukaldean, distira eta dotoretasuna ematen baitiote. Etxetresnekin batera, armairuen heldulekuak ere metalikoak izanzen dira. Sukaldeko mahaia eta aulkiek ere bat egin behar dute sukaldeko altzariarekin. Aukera ona izaten da altzairu, egur edo kristalezko detaileren bat jartzea.



Sukalde berrietan kolore argiak nagusitzen dira eta, bizitasuna emateko, altzairuzko eta metalezko detaileak tartekatzen dira



HAURRENDAKO LOGELAK

## Dibertimendua eta segurtasuna seme-alaben logeletan

Logelan biltzen da haurren mundu ttikia. Denbora gehiena hantxe ematen dute: jostetan aritzen dira eta hainbat gauza berri aurkitzen dute, barrabaskeriak egiteaz gain. Haien logela etxe osoko lekurik seguruena izatea lortzen baduzu, lasai egonen zara zeren seme-alabek ez baitute inolako arriskurik izanen.

Umeen logela alaia, ikusgarria eta dibertigarria izateko moduan apaintzen da. Panpinak, peluxeak eta kolore ikusgarriak egindako oheko arropak jartzen dira, eta modu horretan espazio eroso bat sortzen da, ume-girokoa, hain zuzen ere haurrak gustura egoteko moduko lekua. Hala ere, aldi berean umeen segurtasuna bermatu beharra dago, arras garrantzitsua da eta.

### ALTZARIAK

Gaur egun, umeentzako altzariak egiten dituzten profesional gehienekertz biribilekin sortzen dituzte. Babesle hori material ugari izan daiteke, hala kautxuz nola plastikoz. Kolore anitzetan saltzen dituztenez, gelako altzariekin bat etortzeko inolako arazorik ez duzu izanen.



Bertzalde, ona da altzarietako tiraderek segurtasun-topeak izatea; horrela, seme-alabek ezin izanen dute tiradera osoa atera eta eduki guztia lurrera bota.

### LURREAN

Umeek denbora luzea ematen dute lurrean jostetan; beraz, komeni da elementu bigun eta eroso erabiltzea. Alfonbrak ez dira gomendagarriak, hauts eta akaro ugari biltzen dute eta. Zer da, bada, egokiena? kautxuzko edo goma-aparrezko zolak. Hainbat koloretakoak saltzen dira, eta modelo batzuk puzzle gisara egin daitezke. Umeek erabiltzeko bereziki sortuak dira, erosoak eta hanpatuak, eta ez dute ohiko alfonbrek adina zikinkeriarik edo hautsik biltzen.



Umeen logeletako koloreak aukeratzeko orduan ausardia handiagoa izaten dugu. Helduen logeletan, ordea, oinarriko koloreak erabiltzen ditugu; izan ere, ez da gauza bera logela ume batendako edo heldu batendako apaintzea.

**Logelari bizitasuna emateko modu bat da paretetan bi kolore desberdin txandakatzea**

Logelari bizitasuna emateko, adituek proposatzen dute bi kolore desberdin txandakatzea, bi pareta bi koloreekin margotzea; hau da, logela batean, burukiaren aldean kolore bat erabiltzea eta bertze gainerako paretak bertze kolore batez margotzea. Gaur eguneko logela eta egongeletan grisa, beltza, moka, beixa eta antzeko kolore neutro batzuk erabiltzen dira. Koloreak aukeratzeko orduan ausartagoak izan beharko genuke. Kolore aukera zabala dugu gure eskura, horietako batzuk berezi-bereziak dira eta gure etxea bertzeenetik bereizteko eta geure gustuen arabera pertsonalizatzeko erabil ditzakegu.

**sukaDeco**  
bainu eta sukalde estudioak

www.sukaldec.com  
IRURITA - 948 580 666

**BORTZIRI  
UNSION ANAIK**  
Sukalderako altzariak

Berrau etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK  
JAURENA**

Julio Caro Baroja. 6 behea  
31780 BERA • Nafarroa  
Tel/Faxa: 948 631 217

**cenor**

**aurrerakada**  
lan bertikalak  
(andamiorik gabe)

Marga lonak  
Fatxadak konponketak  
Alturan egiten den edozein lan

Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe

aurrerakada@hotmail.es

616.413.660  
647.673.000

Donibane kalea, 18  
Sunbilla 31791 Nafarroa

aroztegi metalikoa

**odriozola huicj**

Alkaiaga Industrialdea · Euba, 3-18  
31789 LESAKA · Nafarroa  
Tel. 948631244 · 628363136 · Faxa: 948625564  
e-Posta: odriox@gmail.com

**J.P. AGERREBERE**

- Karrozeria
- Aroztegi Metalikoa
- Erremolkeak



BAKATZAILA

Zaldubi ind. IRURITA · T. 948 580 538 | 630 184 847

**LABIAGA**  
eraikuntzak

IMANOL 608 117 634  
XATUR 608 117 635

**BERA**

aroztegia 1890az geroztik



**Arotxa**

GARAJEKO ATE SEKZIONALAK




Miguel Azcárraga (Irurita)  
T. 948 581 418 | 650 532 073  
arotxa.taller@gmail.com

## DIRULAGUNTZAK

## Etxeak zaharberritzeko hartu diren dirulaguntzak nabarmen hazi ziren joan den urtean

2009an Nasursak tramitatu zituen espediente kopuruari erreparoa egiten bazaio, kopuru hori 2008arekin konparatuta nabarmen hazi dela ondorioztatzen ahal da. Izan ere, 2009an 143 espediente tramitatu ziren Nasursaren bitartez (237 etxebizitzaren gainean eragiten zutenak) eta 2008an 52 espediente tramitatu ziren (113 etxebizitzaren mesedetan). Horrek erran nahi du kasik hirukoiztu egin direla Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekan tramitatu diren espedienteak eta, bistan dena, inbertitu diren diru kopuruak ere araberan hazi direla. 2009an etxeak zaharberritzen 5.548.583 euro inbertitu ziren Nasursako datuen arabera gorago aipatu diren herri horietan. Dirutza horretatik 4.319.333 euro partikularren saketatik atera ziren eta, gainerako 1.229.250 euroak, Nafarroako Gobernuak onartutako dirulaguntzetatik. Batez besteko bat eginez gero, partikular bakoitzak inbertitutako 100 euroetatik 22,15 euro Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izan zen.

Nasursa arduratzen da Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekan etxeak zaharberritzeko dirulaguntzak tramitatzeaz. Arano, Areso, Goizueta eta Leitzakoek aldiz, Leitzako Udalean dute gai hauetaz arduratzen den bulegoa.

2009an TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK		
Herria	Etxebizitza kop.	Espediente kop.
ALMANDOZ	1	1
AMAIUR	2	2
ANIZ	1	1
ARANO		1
ARANTZA	3	3
ARESO		3
ARIZKUN	4	4
ARRAIOZ	4	4
AZPILKUETA	2	2
BEINTZA-LAB	2	2
BERA	13	28
DONAMARIA	3	4
DONEZTEBE	10	20
ELGORRIAGA	2	2
ELIZONDO	25	72
ERRATZU	4	5
ETXALAR	7	9
EZKURRA	2	2
GARTZAIN	1	1
GOIZUETA		9
IGANTZI	7	7
IRURITA	4	4
ITUREN	10	10
LEGASA	5	5
LEITZA		29
LEKAROZ	3	3
LESAKA	14	32
NARBARTE	1	1
OITZ	2	2
ORONOZ-MUG	2	2
SALDIAS	1	1
SUNBILLA	5	5
URDAZUBI	2	2
ZUGARRAMUR.	1	1
<b>Denetara</b>	<b>143</b>	<b>279</b>

Leitzaldeko datuei erreparatu gero, lau herrien artean 2.001.494 euroko inbertsioak onartu ziren 2009an. (Arano 22.339 €, Areson 96.966 €, Goizuetan 345.659 € eta Leitza 1.536.530 €). Dirutza horretatik 585.699 euro gobernuko dirulaguntzekin ordaindu dituzte (Arano 8.960 €, Areson 39.876 €, Goizuetan 77.077 € eta Leitza 459.786 €). Alegia, batez besteko bat eginez gero, partikular bakoitzak inbertitutako 100 euroetatik 29,26 euro Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izan zen.

### NON GALDETU

Dirulaguntzak tramitatzen hasteko, partikularrek laguntza eska dezakete Nasursak Donezteben duen bulegoan (Baztan-Bidasoaldekoek) edo Leitzako Udaltxean (Leitza-Goizueta aldekoek). Horko teknikoek ematen

dizkizute espedienteak tramitatzeko segitu behar duzun bidea eta gainerako xehetasun guztiak.



Gaugero badira urte batzuk gisa honetako zerbitzuaz baliatzen ahal gara-lu Iruñeraino joan beharrik gabe. Eta egia da jendeak, orohar, jakin duela aprobetxatzen eskaintzen zaion aukera. Nasursara argibideak eskatzera joan zen jende kopurua bikoiztu egin zen 2009an aurreko urtearekin konparaturaz. Izan ere, 2008an 263 kontsulta atenditu bazituzten, 2009an 579raino ailegatu ziren Donezteben atenditutakoak. Zerbitzua "ezagunagoa" egin izanarekin batera, iaz dirulaguntzen kopurua handitu izana eta etxe barneko obrendako espedienteen tramitazioa erraztu izana daude arrazoen artean.

### ETXE BARNEKO OBRAK: ORAIN TRAMITAZIO SINPLIFIKATUA

Etxeak zaharberritzeko prozeduratik aparte tramitatzen dira etxe barneko obrendako dirulaguntzak eta, gehienbat, pisu etxeetan erabiltzen dira. Iaz Nafarroako Gobernuak onartu zuen legeari esker, eskaerak tramitatzeko sistema sinpleagoa da orain. Hurrengo koadroan ageri dira Nasursak tramitatutakoak udalerrri bakoitakoak.

ETXE BARNEKO OBRAK 2009an			
Herria	Espediente kopurua	Aurrekontua	Dirulaguntza
BAZTAN	25	337.894,21	72.665,23
BEINTZA-LABAIEN	1	11.000,00	2.200,00
BERA	10	126.170,00	24.634,00
BERTIZARANA	8	120.152,75	5.600,00
DONEZTEBE	5	53.897,03	10.779,41
ELGORRIAGA	2	33.800,00	6.000,00
ETXALAR	3	64.639,00	8.400,00
EZKURRA	1	20.559,77	3.000,00
IGANTZI	2	40.451,10	6.000,00
LESAKA	13	367.852,60	34.017,84
SALDIAS	1	15.400,00	3.000,00
SUNBILLA	4	51.000,00	10.200,00
URDAZUBI	2	30.800,00	6.000,00
ZUBIETA	1	12.000,00	2.400,00
ZUGARRAMURDI	1	13.812,38	2.762,48
<b>Denetara</b>	<b>79 etxebizitza</b>	<b>1.339.428,84</b>	<b>197.658,96</b>

### BIDASOALDEKO 12 UDALERRIRENDAKO HIRIGINTZA ZERBITZUAK

Hamabi udal zeuden bazkideak Nasursan 2009an hirigintza arloko zerbitzuak jasotzeko hitzarmena sinatu ondotik: Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Igantzi, Lesaka, Oiz, Urdazubi, Urroz eta Zugarramurdi.



### BIZIGARRITASUN-ZEDULEN KOPURUA URRITU EGIN DA

Administrazio publikoak egiten duen dokumentua izaten da bizigarritasun-zedula; erai-kinaren eta etxebizitzaren osasungarritasun eta higieneko baldintzak ziurtatzea da helburu nagusia. Zentzu horretan, Nasursaren bitartez 16 zedula tramitatu ziren 2009an Baztan, Bertizarana, Bortzirriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdi. Kopuruaren urritasunak agerian uzten du ez dagoela aktibitate gehiegirik etxe berriak egiten.

reformas  
**LASTER**  
berrikuntzak

SUKALDEAK · BAINUGELAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK  
OBRA TTIKIAK ETA INTEGRALAK

Paseo Eztegara, 14  
31780 Bera, Nafarroa  
T/F 948 625 397 • M 687 717 563  
eduprojet@gmail.com

**LEITZELARREA S.L.**  
Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa Industrialdea, 20  
T. 948 510 598 M. 669 368 991  
LEITZA

**BERTIZARANA**  
**TAILERRAK**  
ERRETEGIAK ETA BARBAKOAK  
ESTRUKTURA METALIKOAK  
ATEENDAKO MEKANISMOAK - ATEAK  
BARANDA ETA FORJA ARTISTIKOA  
Tel-Faxa: 948 592243 · NARBARTE

**OLAZAR**  
aroztegia S.L.

- aroztegi metalikoa
- ibxiera metalikoa
- aluminio aroztegia
- estruktura metalikoak
- zerrailgintza
- galdaragintza
- ate baskulatzailak
- ate automatikoak

Aparan Ind, 1  
Tfnoa - Faxa:  
948 456 183  
Mugikorra:  
649 139 365  
**DONEZTEBE**



Ipar karrika, 15  
31780 BERA  
Tel. 948 630 304

**INAKI OLAIZOLA**  
elektrizitatea

- Elektrizitatea orokorrean
- Muntaia elektrikoak
- Alarmak

Bittiria, 39 • LESAKA  
948 637 405 - 670 417 499

**Larreta**  
IGELTSU PROIEKTATUA

Bidasoa kalea 36  
31780 Bera - Nafarroa  
Gorko Arretxe 627.225.514  
Luisen Soroleg 637.921.299

Juan Luis  
**OTXOTEKO**  
Pintorea

Eskatu aurrekontua  
konpromisonik gabe

Bittiria, 26 3.B - LESAKA - Nafarroa  
T. 948 637 902 M.678 993 818  
otxotekopinturak@yahoo.es

## ETXEAREN BEROKUNTZA

### Noiz aldatu behar da etxeko gas-instalazioa?

Etxeko gas-instalazioa zaharkitua denean eta sistemen eta egituren sakeneko zaharberritzea eskatzen duenean bakarrik aldatu behar da. Kasu horretan, mereziko du kanalizazioak erabat berri-tzeak eta instalazio berriak eskainiko dituen zerbitzuak planifikatzeak, hau da, sukaldean aritzeko, ur bero sanitariorako eta berokuntzarako energiaren hornituko duen, edota, horietako esparru batean bakarrik erabiliko den.

Zure etxeko gas-instalazioaren egoerari dagokionez zalantzarik baldin badituzu, jarri harremanetan enpresa hornitzaileko profesional batekin eta hark emanen dizkizu egin ditzakezun hobekuntzen berri.

Ez legoke soberan enpresa hornitzaileko langile baten bisita ere, behin berrikus daitezkeen alderdiak egiaztatuta, gas-instalazioaren bideragarritasuna eta egokitasuna ziurta dezan.

### BEROKUNTZA-SISTEMARIK ERANGINKORRENA

Ekologiaren, energia-aurrezpenaren eta iraunkortasunaren aldeko apustua egiteak, gure etxebizitzan ongi funtzionatzen duten aparatuei eta elementuei ahalik eta aprobetxamendurik handiena ateratzea erran nahi du. Egiaztatu huts egiten duena galdara den edota arazoak erradiadoreetatik ondorioztatzen diren.

Galdarek, gutti gorabehera, hamabi urteko iraupena dute eta zahartzen ari direla edo izan dezaketen higadura jakiteko, erradiadoreetatik igarotzen den ura berotzeko dituen zailtasunean antzematen da. Erradiadoreei dagokienez, 25-30 urte igaro ditzakete inolako arazorik gabe.

Galdaran edo erradiadoreetan akatsen bat sumatzen baduzu, abisatu konpainia fabrikatzaileko teknikariari edo iturginari, egin beharreko konponketak zehaztu ditzaten. Galdara zaharra bada, eraginkortasun handiko bertze batez ordezkatzeko



**TXARUTA, S.L.**  
iturgintza | berokuntza | gasa

948 45 17 28 • 659 77 00 15  
GAZTELU





Egiatzatu huts egiten duena galdara den edo arazoak erradiadoreek sortzen dituzten



momentu egokia izanen da. Galdara estandarra edo kondentsaziozkoa izan daiteke; kondentsaziozkoa baldin bada, ahal den neurrian eraginkortasun handiko erradiadoreak edo zoru bero-emailea jartzeko aukera kontuan hartzekoa izanen da, nahiz eta galdara horri ahalik eta etekinik handiena ateratzeko obra sakonagoa eskatu.

Bertzalde, eraginkortasun handiko galdara estandarra ere soluzio egokia izan daiteke erradiadore konbentzionalekin jartzeko, konparazio batera, xaflazkoak, kostuan eta eraginkortasun-gehikuntzan orekatuak.

Arazoa erradiadoreren batek eragiten baldin badu, aldatu purgagailu automatikoez eta balbula termostatikoez hornitutako **modelo modernoago** batez. Kasualitatez, erradiadoreak eta galdarak arazoak ematen hasten bazaizkizu eta etxea zaharbertitzeko asmoa buruan biraka baduzu, arras gomendagarria izanen da berogailu-sistema eraginkorrena instalatzeko aukera baloratzea. Kasu horretan, zola bero-emailea izan daiteke aukerarik onena duen energia-kontsumo txikiagatik, temperatura-uniformetasunagatik eta instalazioak eskaintzen duen konfort termiko handiarenagatik, bertze berokuntza-modalitateek baino bero osasungarriagoa igortzen baitu. Arestian aipatu den moduan, hori da, gainera, galdara itxiei etekinik handiena ateratzeko aukerarik egokiena.



Arestian aipatu den moduan, hori da, gainera, galdara itxiei etekinik handiena ateratzeko aukerarik egokiena.

Kidatzpegi Auzoa, 6 Dendaminea Etxeko 31770 Leizako-Navarra  
Tel: 948 627 554 - 656 763 186

►Txus Ubiria Andueza  
margoketa lanak · pintor

Melo Pinturak

T. 609 873 178  
LEITZA

**PATXI ZAMORANO**  
KALITATEZKO LANA ETA PRODUKTUAK

- Barnizatuak eta lakatuak kabinan
- Etxebizitzak eta Lokalak
- Fatxadak

Leizako bidea • DONEZTEBE  
T. 948 450 734 • 606 377 424

"Zure etxea eraikitzeke ideia baduzu, eman beharreko lehenbiziko pausua etxearen PROIEKTUA egitea da. Horretarako, **ZURE-ETXEA** arkitektura proiektuak, eskura jartzen dizkizu beharrezko baliabide guztiak."

**ZURE ETXEAREN PROIEKTUA 3.000 €**

Diseinu eta zerbitzu parigabea zure politikora egokitua.  
Hurbildu gure bulegora eta aukera ezberdinak erakutsiko dizkizugu.

[www.zure-etxea.com](http://www.zure-etxea.com)




T.: 948 625 403 San Esteban 8, BERA

# Lasao

• egurrezko altzaria

Lasao Ind. - 20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 • F. 943 15 10 98  
informacion@lasao.com • www.lasao.com

*Altzari bereziak, fabrikatik zuzenean, bitartekorik gabe*



*"Nafarroan estimatzen den altzaria"*

# miguellena



sukalde eta bainuko altzariak • etxetresnak  
armairu enpotratuak • erlojudenda • bitxidenda



T. 948 450 925 • M. 677 525 292 - 677 525 324 • Travesia Amezitia, 1 • 31740 DONEZTEBE



ETXEKO HODIAK

# Etxeko hodi edo tutuak garbitzea eta zaintzea

## Behar bezala erabiliz gero, arazorik ez

Ataskuak, kiratsa eta ur-isuriak dira gure etxeetako hodi edo tutuek maizen dituzten arazoak: batetik, zernahi gauza botatzen dugulako, eta bertzetik, denbora pasatu ahala azkenean hondatu egiten direlako. Behar bezala erabiltzeaz gainera –gogoan izan ez direla hondakinak botatzeko tokia–, garbi eta egoera onean eduki behar ditugu.

### KONTUZ HONDAKINEKIN

- Ez bota hondakinik isurbidetik behera. Janari hondakinak, ileak, azazkalak eta antzekoak urak daramatzen sedimentuekin nahasita, gatzarekin edota karearekin adibidez, metatu egiten dira eta hodiak ataskatu.
- Libragarri kimikoak erabiltzen badituzu, kasu eman: produktu horiek gai toxikoz osaturik daudenez, larruazala ez ukitzen ahalegindu beharko duzu. Produktua disolbatzen baduzu eta errazago sartzeko ur irakina erabiltzen baduzu, babestu zeure burua nahasketak sortutako gasetatik. Ezinbestekoa da produktu horiek baliatzeko argibideak irakurtzea, ez baita arraroa izaten gaizki erabiltzea: horietako batzuk hodian edo tutuan barrena bota aurretik uretan disolbatu behar badira ere, ez dira beti modu egokian baliatzen nola erabili ez dakigulako.
- Ikuska ezazu isurbideak begibistan duen ahoa, uraren pasabidea ataskatu dezakeen objekturik ez dagoela egiaztatzeko.
- Komuna libratzeko, egin saio hau: bildu eskuoihal zahar bat eskobilaren inguruan. Ondotik, eragin eskobilari gora eta behera, zanpatuz.
- Harraska ataskatu bada eta gomazko libragailurik ez baduzu, estali kainuzuloa eta bete harraska urez, heren bat-edo. Esku batez estali goialdeko aire-hodia, eta, tapoia kenduta, eragin bestearekin, bentosarena egiteko.
- Libratu hodiak sosa-kristalak eta ur irakina boteaz; aski izanen da katilu bat sosa bi ur litroko.



### KIRATSIK EZ BERRIRO

- Sifoiak galarazi behar diete bidea hustubideetatik gora datozen kiratsei, baina, nolanahi ere, batzuetan usain txarra sifoiatik bertatik etortzen zaigu. Pieza hori garbitzeko, kendu bihurguneetako batean dagoen tapoia eta atera barnean metaturik dauden hondakinak.
- Oporraldietara irten aurretik ur-pasabidea eten baldin baduzu, litekeena da lurrinketaren ondorioz sifoietako urmaila jaistea eta sifoietako gasak etxean hedatzea. Kiratsak kentzeko, ez bota lixibarik eta ur-pasabidea berriro ireki sifoiak berriro bere mailaraino bete eta beren lana ondo egin dezaten.
- Kendu usain iraukorrak: bota katilu erdi bat bikarbonato sodiko, katilu bat ozpin eta bi katilu ur bero, nahasita. Ondotik, bota ur irakina hustubidetik behera.

### UR-ISURIAK

- Egiaztatu hodi edo tutuak ihesik ba ote duen, hortarako, detergente likidoa paratuz, uretan disolbatu gabe. Isuririk baldin bada, gune horretan bertan sortuko dira burbuilak.

**INSTALACIONES ARKALE c.b.**

Gas instalazioak  
Iturgintza orokorrean  
Berokuntza eta aire egokitua  
Mantenu lanak  
Zintzilikatuta egiten diren lanak

T: 948 450 172 - 810 509 177  
Amatzaia, 10 - DONEZTEBE

T: 649 853 440  
LEITZA

**TXARAGORRI**  
iturgintza

**JUANTXO SAN MIGEL**

Iturgintza • Berokuntza  
Gas instalazioa

Tel. 948 450 866 Mug. 626 112 415  
31740 DONEZTEBE

**TXIRULA**

CLIMALIT kristal bikoitza  
ISPILUAK edozein lodiera eta  
kolorekoak, alakadunak, kanteatuak...  
BEIRA-PLAKA LANDUAK  
BEIRA BLINDATUAK

Antoia, 34 C • LESAKA • T./F. 948 928 976



**JAURENA**  
Carpinteria - Zurgindegia

Ordoki Industrialdea  
ARIZKUN  
Tfnoa: 948 453 451  
619 514 048



**Juanotena**  
zurgindegia

TEILATUAK - ZOLAK  
KONTRALEIHOAK - ARMAIRU ENPOTRATUAK  
ATEAK - ESKAILERAK - LEIHOAK

Zurgin lanak orokorrean

Leticuko bidua, 35 B - DUNEZTEBE - 948 450 211



**ITURRIONDO**  
ZURGINDEGIA

- parketak - ateak - leihoak...

leilatuak - estrukturak - tarimak

Zelai Ind. 7 - BERA - 948 631 430 - Faxa: 948 625 330



**LUCIANO IRIARTE S.L.**

ESKABAZIOAK • HARRIZKO PARETAK  
LUR MUGITZEAK

Tel: 948 592 139 • 649 947 181 • 649 947 182  
**NARBARTE**

## ETXEKO ZOLAK

# Zola, jartzen azkenekoa baina arras garrantzitsua

### TARIMA, KLASIKOA

Parketa edo tarimak ez du zola zuzenean ukitzen. Hauxe da tradizio zaharreneko egitura, aspaldikoena, eta baserri zaharretan ez ezik, hirietako eraikin dotoreetan ere topatuko duguna. Oholak, luze eta lodiak, arrasteletan josten dira iltzeekin, bata bertzeari ondoko matxinbraren bidez. Parketa jartzea lan neketsua da. Oholek oinarri leun-leuna eta xuxena ezinbertzekoa ez badute ere –zola egokitu egiten da, den-dena erabat horizontal gelditu arte– piezak banan-banan jartzeko denbora ausarki behar delako.



Zola jartzeko sistema honen abantaila nagusia da tarimek urte aunitz irauten dutela egoera onean: oholak kalitate handikoak izaten dira beti, eta denboraren poderioz eginiko higadurak ezabatzeko zura lixatu behar izaten bada ere, eragiketa horren ondotik eta oholen lodierari esker, ez da galerarik nabaritzen. Bertze aldetik, lurraren eta zoruaren artean gelditzen den aire-tarteak egurastea hobetzeaz gainera, zura hezetasunetik babesten du.

### PARKET JOSIA

Duela hogeita hamar bat urteko etxegintzan nonahi erabili bazen ere, aspaldi honetan behera egin dut parket josiaren salmentak. Izatez, zurezko lama tikiak dira, zementuari kola bereziarekin itsatsiak. Azken emaitza ona izanen bada, zola ongi-ongi zelaitua prestatu behar da. Zinez erakargarria da honelako egituraren estetika, nahi adina irudi muntatu eta koloreak tartekatzeo aukera ematen duelako. Jositako parketa kalitate onekoa baldin bada, behin eta berriz lixa daiteke, inolako txikiziorik nabaritu gabe. Hori bai, hezetasunarekin kontuz ibili behar da, parketak kalterik ez izateko.





### PARKET MUGIKORRA, KALITATE ETA AKABERA HOBEKOA

Hauxe da etxebizitza berrietan gehien jartzen den zola. Egurrezko ohol luze hauek ez dira lurreen itsasten, eta arrastrelei ere ez zaie josten: neoprenozko mintz baten gainean jartzen dira. Matxinbrak elkarrekin itsatsi edo oholak batak bestearekin lotzen dira, autotrabetak edo metalezko klipen bitartez. Parket mugikorrek kalitatea eta akabera ditu abantaila nagusi; izan ere, xehetasun handiko teknologiari esker, pieza guztiak lantokitik bernizatuturik eta itsatsirik ekartzen dituzte.



Zaharberritze-lanetan arras egokia gertatzen da, lehendik zeuden solairuen gainean jartzeko, baita jende aunitz dabilen tokietan ere, gai hori erraz berreskuratzen baita. Egur-itxura duen parket mugikorra ere badago merkaturuan, eta denda eta bulego ugarian erabiltzen dute (horrelako tokietan, zolak etxebizitzan baino garrantzi tikiagoa du). Erosteke merkeagoa bada ere, hondatuz gero ezin berrizta daiteke: zaharraren ordez berria jartzea da intebide bakarra.

### ZOLAK ZAHARBERRITU ETA ZAINTEZA

Produktu bizi eta naturala den heinean, denboraren karga ere nabaritzen du egurrak, baina arras kasu guttitan izanen da beharrezkoa zola aldatzea, zahartzen denean bakarrik; uholde, sute edo antzeko ezbeharrik gertatu ezean, zola zaharberritu egin daiteke, eta jarri berritan zuen itxura eskainiko digu berriz. Adituek aholkatzen dute egurra sei-zazpi urtean behin lixatzea, hala eginez gero, egurra ez da sobera hondatua egonen, eta nahikoa izanen da milimetro gutti batzuk lixatzea.



Zura lixatu gabe hamarkada aunitz igaro baldin badira, sakonago sartu beharko da lantresna, azalera leun-leuna gelditzea nahi badugu. Sakonago sartze hori, noski, lehengaiaren eta gure sakelaren kalterako izanen da: ez baita gauza bera sei-zortzi urteko erabilerak hondaturiko parketa lixatzea edo berrogei urteko higadura jasan duen zoruan aritzea; bigarren hauetan lana astunagoa denez, denbora eta ahalegin handiagoak eskatuko ditu. Bernizatzea da parketa ongi zaharberritzeko berte urrats bat. Itxura polita lortu nahi bada, zurari bi aldiz eman behar zaio berniza, guttienez.

**MIGUEL ETXEBERRIA**  
zurgindegia

zurgin lanak orokorrean

T. 948 450 310 • 608 677 997  
ELGORRIAGA

**da**  
astizanaiaak  
ZURGINDEGIA  
info@astizanaiaak.com

Aldude etorbidea, 5  
31700 ELIZONDO

699325449  
690687995

**ILLURDI**  
zurgindegia

- ateak
- tarimak
- parketak
- leihoak
- eskailerak
- teilatuak
- portbreak
- teilak
- isolamenduak

Klase guztietako zurgin lanak

670 30 55 20  
680 98 68 36  
31790 ARANTZA  
Nafarroa

**INDEGIA**  
ZURGINDEGIA

Ateak, tarimak, eskailerak, parketak, teilatuak, leihoak, armarriak, sukaldak.

T. 948 451 906 - M. 689 531 012 - ALURTITZ  
carpa.mindegia@yahoo.es - www.mindegia.com



Neurrira egindako leihoak  
Diseinu eta modelo ezberdinak  
Banakako soluzioak  
Isolamendu termiko eta akustikoak  
Energia aurrezpenak

Ordoki industrialdea • ARIZKUN  
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423  
betikopvc@betikopvc.com  
www.betikopvc.com

## PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK



BAINUGELA

# Nola apainduko dugu gure etxeko bainua?

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da bainuan zenbat toki dugun eta zertarako erabiliko dugun. Hartara, lehen egitekoa izanen da benetako beharrei erantzuteko konponbideak bilatzea, eta gero, bertze erabilera batzuk asmatzea; beti ere, dugun espazioaren arabera. Ez ditugu berdin diseinatuko umeendako, gazteendako edo nagusiendako bainuak.

Spa kontzeptua ere nagusitu da azken aldian. Gure bainugelak izan ditzakegu sauna, bainu turkiarra, hidromasaje-bainuontzia....



## TALOTXA IGANTZI ERAIKUNTZAK,



Piedadeko auzoa, 8 • 31790 Igantzi (Nafarroa)  
608 20 21 26 • 618 90 18 10

616 513 497  
Piti  
ESKABAZIOAK

GARRAIOAK  
ESKABAZIOAK  
KONTENEDOREEN  
ZERBITZUAK



Kontenedoreak: 5 m<sup>3</sup> - 7m<sup>3</sup> - 12m<sup>3</sup> - 30m<sup>3</sup>

Mota guztietako hondakinak biltzen dira

Tel/Fax: 948 45 13 89  
C/ Ameztia, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)

## Ekindarra

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Berokuntza sistema berriak  
%50ko aurrezpena

Eguzki energia eta biomasa

XABIER ZELAIETA

652063220

ekindarra@ekindarra.com



## arkitektoak

ERAIKUNTZA-PROIEKTUAK  
URBANIZAZIO-PROIEKTUAK  
ZAHARBERRITZEAK  
LUR NEURKETAK eta KUBIKAZIOAK  
REPLANTEOAK  
OBREN ZUZENDARITZA  
NABEAK  
KONTSULTAK

Santiago, 54 BIS Behea  
www.arkitektoak.com

ELIZONDO T. 948 581 931  
arkitektoak@arkitektoak.com

## ANZABAL INMOBILIARIA



- Zürich Aseguruak  
Autos, etxebizitza, istripu eta biotza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria  
Baserrri, berrita, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



**JOISA**



**AROTEGIA  
MAKINA ERREMINTA  
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK**

Barandak, balkoiak, ateak,  
hesiak, forja artistikoa, ...

**T./F. 948 638 150  
M. 646 774 117**

Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com



**Behetik**

Añorga-txiki, 14 behea  
T. 943 368 781  
671 073 888  
[www.behetik.com](http://www.behetik.com)

*Eskailerak igotzea... ez da oztopo!*



plataformak • igogailu bereziak • aulki bereziak...

# AMAIUR altzariak



**ESKAINNTZA ZABALA • ESTILO GUZTIAK**

Rosa Seminario 13 • DONEZTEBE • T. 948 450 400





BAINUGELA

## Bainuaren ordeztutxa bat hartuz naturarekin koherenteagoak gara

Dutxa azkar bat edo bainu lasaigarri bat? Bigarren aukera atsegingarriagoa da, zalantzarik gabe, baina aukera horretaz abusatzeak uraren kontsumo handiagoa eskatzen du. Udan, lurruntan eta ur beroaz betetako bainu-ontzian denbora luzez sartuta egoteko joera ttikiagoa izan ohi da; aldiz, urte-sasoi egokia da zure ur-kontsumoaz eta higiene pertsonalaz hausnarketa egin eta dutxa azkar batek sakelarentzat ez-eziki ingurumenarentzat dituen alderdi positiboak ezagutzeko.

Aski da litro-kopurua konparatzea: 5 minutuko dutxa azkar batekin, kasurik onenean, guttienez, 50 litro ur kontsumitzen dira. Bainu-ontzia betetzeko, aldiz, lau aldiz gehiago beharko da, 200 bat litro inguru. Dutxa luzeagoa edota ohikoa baino emari handiagokoa hartuta ere, ura aurreztuko zenuke. Greenpeace erakunde ekologistaren arabera, bainua hartu ordeztutxa hartuta, egunean, bataz beste, 70 litro ur aurreztuko zenituzke.

**ASKI DIRA 5 MINUTU**

Gomendiorik ohikoena ur azpian pasatzen dugun denborarekin du zerikusia. Arau orokor gisa, 5 minutu aski dira goitik behera dutxatzeko. Tenta-zioak saihesteko, bada musikaz baliatzea gomendatzen duenik ere. Saiatu musika-ekipamendua bainugelan konektatzen (hori bai, uretatik urrun); programatu gogoko dituzun hiru kanta eta kalkulatu zure mugimenduak azken kantaren amaierarako lehortuta eta jantzita egoteko.

**HUTSARTEAK DUTXAK DIRAUEK BITARTEAN**

Xaboitzea, ilea garbitzea, ile-egokitzaila edo ile-maskara ematea urik eskatzen ez duten ekintzak dira.

Hortzak garbitu bitartean txorrota itxita edukitzeko ohitura aspaldidanik baduzu, zergatik ez duzu gauza bera egiten dutxatzerakoan? Egin proba eta ikusiko duzu keinu soil horrekin nola pare bat litro ur aurreztuko dituzun.

Uda baino zein urte-sasoi izan liteke hobe ohitura hori hartzeko?

Alegia, hotza aitzakia dela uraren giltza ixteko kementik gabe geratu aurretik?



**APROBETXATU SOBERAKINAK**

Dutxan sartu baino lehen denok denbora pixka bat egoten gara ura tenperatura egokira iritsi arte. Bitarte horretan isurtzen den ur hori aprobetxatu daiteke: bildu ontzi batekin eta berrerabili landareak ureztatzeko edota ontziak garbitzeko.

**URAREN GILTZA**

Ekologistek eta kontsumitzaileek etxeko uraren giltza orokorra apur bat ixtea gomendatzen dute. Ekintza horrekin, etxeko txorrotetako uraren emaria zertxobait murriztu egingo da eta, horrela, kontsumo iraunkorren bidean zeure harri-koskorra jarriko duzu.

## Composites Baztan Poliesteretzko lanak



- Inpermeabilizazioak: terrazak, igelak, depositak...
- Fosa septikoak, koipe banatzaileak.
- Karrozien errebestimenduak, furgonetak, erremolkatuak, traktoreak.
- Era guztietako molde eta pieza egiten dituzte, produktoreak.



Tel-Faxa: 948 581 824  
compositesbaztan@terra.es  
Zaldubia Ind. Iruña • Dantzarinea  
31730 IRURITA

## BERATARRA ERAIKUNTZAK



**Lan mota guztiak  
Gremioen koordinazioa**

Jose Ignacio Maritorea Larralde  
670 489 337 • DONEZTEBE • BERA



## IKERKETA

Geologikoak  
Geoteknikoak  
Hidrogeologikoak  
Ingurumenakoak

620.796.005

Zimentazioak • Lur azpiko urak  
Ezponden egonkortasuna • Zabortegiak

Xalbador Kalea, 28 - 31700 ELIZONDO (BAZTAN)

**JAVIER ALZUGARAI**  
Hondeaketa eta Garraio Lanak  
C.I.F. 44 557 527 - H

**Tel. 646 986 448**

Nabaz Auzoa - Guillen-Borda - 31770 Lesaka - Nafarroa  
Fax. 948 637 390 - excavacionesjavieralzugarai@gmail.com

**BigMat**  
MENDITXURI  
DONEZTEBE - Leizako errep. - 948 450 305

## ti-tauerreformak

fatxadak  
komunak  
sukaldeak  
pisuak  
zaharberitze lanak  
pladurra  
pintatze lanak  
isolamenduak

ti-tau erreformak, s.l.u.  
Baztan Berri plaza 6 behea  
Tel. 629 317 066 (Angel)  
Fax 948 580 648  
31700 Elizondo (Nai)

ti-tau@hotmail.com





ETXEBIZITZEN MERKATUA

# Zer komeni zaigu, etxea erostea edo errentan hartzea?

Bankuari hipoteka ordaintzea, errenta ordaintzea edo etxebizitza partekatzeari diru eskura ditugun aukerak. Aukera horien aurrean egoten dira gazte gehienak. Aukera horiek etxe bila hasi baino lehen hausnartu behar dira eta erabakia hartu egin behar da; izan ere, norberak dituen beharren arabera, alde batera edo bestera egin beharko baita.

Urteetan, etxea erostea izan da aukera nagusia. Hala ere, errentan hartzeko joera indartu egin dute merkatuaren egoerak eta krisiak.

### EROSTEKO AUKERAK AZTERTU

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da etxebizitzen merkatua nola dagoen jakitea. 2008an, etxebizitzen prezioak beheraka hasi zirenetik, merkatuan etxe aunitz dago salgai. Interes tipoak jautsi egin dira, eta horren ondorioz, diru maileguak ekonomikoagoak dira. Maileguak merkeagoak badira ere, krisiaren ondorioz, bankuek ez dituzte kredituak hain erraz ematen.

Bigarren eskuko etxea erosi nahi badugu, komenigarria da etxea erosi baino lehen jabetza erregistroan etxebizitza zein egoeretan dagoen galdetzea. Etxe berrietan, ordea, ona izaten da

obra lizentzien kopia eskatzea, baita lehenengoz okupatzeko lizentzia ere. Interesgarria da objektiboki ebaluatzea nork zernolako etxea erosi dezakeen. Etxebizitza berria erosterakoan, argi izan behar dugu zenbat diru dugun aurrezturik eta zenbateko zorrari aurre egiteko gai garen. Maileguaren diru kopurua aurrezkien eta diru sarreraren arabera izan da. Ondotik, bankura edo aurrezki kutxara joan gara. Adituek gomendatzen dute ahalik eta banku eta kutxa gehien bisitatzea, merkatuan dauden hipoteka motak konparatzeko. Lehen aipatutako datuak aztertu ondotik, zenbateko kreditua emateko prest dagoen adieraziko dio bankuak eskatzaileari, eta eskatzailea etxe berria bilatzen hasi beharko da, kopuru hori kontuan harturik. Bankuekin negoziatu ahal izateko, komenigarria da hara joan baino lehen hipoteken gaineko informazioa jasotzea, bertan agertzen diren kontzeptuak ezagutzera, alegia. Horrek aukera emanen dio erosleari finantza entitateekin negoziatzeko.

### ERRENTAN HARTZEA

Sektoreak duen krisi ekonomikoaren ondorioz, gero eta gehiago dira etxea erosteko asmoa baztertu eta errentan hartzeko prest dauden herritarrak. Iaz jasotako datuen arabera, errentan eman diren etxebizitzen eskaintza hiru aldiz handitu da. Baina ez da hori handitu den kopuru bakarra, izan ere, alokairuen prezioak inflazioa baino 3,5 puntu gehiago igo dira.

TALLER DE CANTERIA

# HARRI LAN, S.L

harri zizelkariak

Oharriz auzoa z/g  
☎ 948 452143 • Faxa: 948 452452  
31795 - LEKAROS

Aintzinaldeak, angeluak, pareta-aitzinakoak, lehoak, aleak, arkuak, pilareak, tominak, erlatzak, moldurak, zokaloak, hilariak, marrazkiak.

Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587  
Inongo enp. BERA  
www.antzuzelai.com • info@antzuzelai.com

JOSE LUIS ITURBIDE IRISARRI  
LIXATU ETA BERNIZATUAK

SANTIAGO, 69 - 3. Ezk.  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 392  
M. 696 35 74 96

# kinttalko

Manduli promozioak

Adi!! **VPOak**  
laster **BERAN**

T. 948 514 036 | M. 653 709 495-96  
31754 Goizueta (Nafarroa)





# Iñaki Alzuyet margoak

Pintura dekoratiboa eta industrialak • Dekorazioa: estukatzeak, beladurak  
Fatxadak • Barnealdeak  
Lakaturak eta berrizatuak kabinan • Pladurra  
Harri eta egurra arenadorekin garbitzen da

Tel.: 659 862 417 • Itur-ttapi etxea - Landibar Auzoa • 31711 URDAZUBI  
[pinturasalzuyet@yahoo.es](mailto:pinturasalzuyet@yahoo.es)



## Beorlegi

ZURGINA - EBANISTA

Tel. 948 451 553 - 657799688 Donamaria

Neurrira egindako mogleak...  
zure gustura!



ZUREZKO LANAK - DEKORAZIO PROIEKTUAK - PARETAKO ARMAIRUAK - LOKAL KOMERTZIALAK - SUKALDEAK - ATEAK - ZOLAK



## CIABAR OBRAS Y CONSTRUCCIONES



*Zatoz eta informatu konpromisurik gabe!*

- \*VPO etxebizitzak Beran
- \*Hurrengo partzela unifamiliarren, bifamiliarren, etxe libre eta VPO promozioa Elizondoko Datue parajea
- \*275m<sup>2</sup>-tik gorako partzela industrialak Ordokin
- \*Azkeneko bifamiliarra Oronozen
- \*Eraikuntza eta igeltserotza aurrekontuak

PROMOCIONES INMOBILIARIAS

# ZIOZ

C/ SANTIAGO 55 ELIZONDO TLF 948 58 04 52-529 50 31 25 [ciabar@terra.es](mailto:ciabar@terra.es)



# suteia

INMOBILIARIA

Gremio guziak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailua instalatzen dizugu

## dena

geure esku utz ezazu!!

ELIZONDO  
M.649 699 820-10  
T/F. 948 452 557  
[suteia@suteia.com](mailto:suteia@suteia.com)



PINTURA

## Testura duten pinturen akabera

Paretak pintatzeko aukera aunitz daude. Kolorea testura efektuarekin konbinatzeak halako ukitu pertsonala ematen dio gelari. Holako zerbait egitea erabakiko bazenu, kontuan hartzekoa den aukeretako bat da profesional bategana jotzea. Gainerakoan, zuk zeronek saiatu nahiko bazenu, hona hemen argibide batzuk lagungarri izanen dituzunak.

### LANERAKO TRESNAK ETA MATERIALAK

Dentsitate altuko pintura, tenplea edo iztukua, koloreak nahastu nahi badira pinturarako tintreak, pintura orraziak, belaki edo esponjak, eta erliebe eta silueta efektua lortzeko tanpoiak. Pintatzeko ontziak edo baldeak eta lanerako eskailera.

### PINTURAREN AUKERATZEA

Hori da lanik garrantzitsuena. Pintura erosi baino lehen, lortu nahi duzun efektua imaginatu behar duzu. Pentsa ezazu kolorean edo nahastu nahi dituzun koloreetan, bai eta erabiliko duzun pintura motan ere. Tenple pintura merkea da, bere berezko dentsitatean aplikatuz gero, testura duten lanak egiten uzten du. Horretarako ez da urarekin nahastu behar, edo arras ur kantitate guttirekin gustuko dentsitatea lortu ahal izateko. Tinteekin nahasteko errazak dira. Emaitza ikusteko komeni da probak egitea aldez aurretik. Beste material batzuk ere badaude, hala nola iztukua, edo testuratuertarako pintura jakinak. Pintura klase hauek aukera zabalagoa eskaintzen digute.



### PARETA PRESTATZEA

Arras garrantzitsua da pintatuko den azalera egoera ezin hobean egotea. Pintura testuratuak paretan dauden arrailak betetzen dituen arren, hobe da beti akatsak lehenagotik berriztatzea. Horretarako, bete itzazu arraila guztiak juntura-orearekin. Eta pinturak ez badu itsaspen onik, pareta alisatzeko oreka edo igeltsua eman behar da. Paretan papera badago, kendu. Bertze pintura batzuk baldin badaude, kasu horretan, egiazta ezazu pinturara testuraturako euskarri egokia izanen dela.

### ARRABOLAREN EFEKTUAK

Estaldura horrentzat, eman pintura dentsitate egokiarekin. Ondotik, erliebe jakineko gomazko arrabola bat pasaz erliebe efektuak lortuko dituzu. Normalki pinta ezazu, eta utzi lehortzen fabrikatzailearen gomendioen arabera.

### ORRAZIAK ETA BELAKIAK

Zabalera eta lodiera ezberdineko pinturarako orraziak daude. Horien bidez, emandako pintura geruzaren gainean pasaldiak egin ahal izanen dituzu. Goraka edo aldeetara lan egiten da pintura bustia dagoenean. Pintura gainean belaki baten bidez presioa eginez gero, pikatu efektua lortuko duzu. Modu berean, plastikozko poltsekin edo trapuekin ere lan egin dezakezu zure estilo partikularra lortzeko.

**GEEA**  
ESTUDIOS GEOLÓGICOS

**IKERKETA GEOTEKNIKO  
ETA HIDROGEOLOGIKOAK**

edozein eraikuntzarako zimentatzeak,  
eraikuntza zibila, lurpeko urak, ingurugiroa

[www.geea.es](http://www.geea.es)

696 435 907 • 606 507 335

**H. LOPEZ**

FONTANERÍA • ITURGINTZA  
Santiago 93, Elizondo  
Tel. 948 452 126

ZERAMIKA

TXIMINIAK

MANPARAK

KOMUNAK



**ELIZONDoko Baztan Berri Plazan**

# **PREZIO MUGATUKO ETXEBIZITZA LIBREAK**

(onura fiskal handiak eta finantziazio abantailak)

**3 logela - garajea - trastelekua**

**26.200.000 Pta. + BEZ  
157.465€ + BEZ**

Eta baita ...

**VPT ETXEBIZITZA BABESTUAK**

**3 logela - garajea - trastelekua**

**Kalitate hoberena, zure eskura. Galdetu!**

Mendinueta, 6 behea · T. 948 580 304

[www.jbiturria.com](http://www.jbiturria.com)

ibardin gaina, 30  
BERA  
T. 948 630 709  
www.beolaetxea.com



**BEOLA-ETXEA**

/ supermerkatua / bar / jatetxea /  
/ lurrindenda / moda /

# EGUBERRIETAKO ESKAINTZA

Abenduaren 1etik 31ra

**OINETAKOAK**

**BISUTERIA** (Ciclon)

**ARROPA** (AmarilloLimon, Beste Bat, Lee, Tifis, Bench, Khujo...)

**%30**

**DESKONTU BEREZIAK**

**perfume  
eta**

**kosmetikoetan**

(Armani, Cartier, Lolita Lempicka, Burberry, Givenchy, Kenzo, Guerlain ...)



## BERA

DANTZAK → KULTUR BATZORDEAK ANTOLATUA

# Haurrentzako dantza klasikoa eta ballet ikastaroa antolatu dira

Abenduaren 2a baino lehen eman behar da izena

## TIPI-TTAPA

Kultur Batzordearen eskutik, haurrentzako dantza klasikoa eta ballet ikastaroa egingen da abenduaren 26tik 31ra Kultur Etxean. Amaia Leiza Apeztegia irakaslearen gidaritzapean, 4 eta 6 urte bitartekoek 16:30-etik 17:30era egingen dute ikastaroa eta 7 eta 10 urte artekoek, 18:00etatik 19:30era. Izen emateko epea abenduaren 2ra arte zabalik dago, 012ra deituta behar da eta 20 euro ordaindu. Gehienez 14 lagun apunta daitezke talde bakoitzean.

## Gurasoentzako hitzaldiak

Familiatan euskarren erabilera sustatzeko gurasoentzako bi hitzaldi antolatu ditu Bortzirietako Euskara Mankomunitateak abenduaren 1erako Beralandetan. Lehena 17:00etan hasiko da, guraso euskaldunei zuzendua izanen da eta euskaraz egingen da. Bigarrena, 18:30ean, euskaraz ez dakiten gurasoentzako izanen da. Bietan Iñaki Eizmendi izanen da hizlaria.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Bortz urtera ere Kotto gogoan

Bosgarren urteurrenean ere Kotto izan zuten gogoan hainbat lagunek. Berez, urteurrena urriaren 31n izan arren, aurten aste bat beranduago egin zen ekitaldia, azaroaren 7an. Goizean mendi itzulia egin zen eta eguerdian Kottok bereziki gustokoa zuen paraje batean omenaldi xumea baina hunkigarria egin zitzaion. Eguraldi euritsuak ez zuen ekitaldia eragotzi eta bertsoak eta gosari goxoa dastatzeko aukera izan zen. Goizeko ekitaldian 40 bat lagunek parte hartu zuten baina ez zen honetan bukatu eguna, Saran egindako bazkariak 100 lagun inguru bildu baitzuen. Oroitzapenen tartean, lagunek prestatutako Kottoren argazki sorta ikusteko aukera ere izan zen. «Kottok arlo guztietan egindako lanak arrasto sakonak utzi dituela nabarmen gelditu zen».



ARGAZKIA: LABIAGA IKASTOLA

## Bertsolaritza proiektua Labiaga ikastolan

Bertsolaritza proiektua bere eskola-curriculumean sartuz, bertsolaritzaren aldeko apustua egin nahi du Labiaga ikastolak. Ikasleen artean bertsozaletasuna bultzatu nahi du eta horretarako Nafarroako Bertsozale Elkartearen eskutik, ikasturte osoan astean ordu batez Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleek bertsolaritza jorratuko dute Estitxu Arozena bertsolari lesakarrarekin. Bertsozale Elkarteak ekoiztutako materialarekin lan egingen dute bi helbururekin: alde batetik, zonaldean ikasleen eta gazteen artean bertsozaletasuna eta ahozko literaturarekiko zaletasuna bultzatzea; eta bertzetik, ikasleen irudimena eta berezkitasunaren garapenari laguntzea.

## FLASH

### Hezkuntza saria

Jose Mari

### Irazokirentzat

Ekainaren 30era arte Toki-Ona Institututoko zuzendari izan zen Jose Mari Irazoki Elgorriaga herritarrek Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sarietako bat jaso du, bere zuzendari lanagatik. Astearte honetan, azaroak 23, hartzeko za saria Iruñean. Sariketa honetara aurkeztutako memorian, Irazokik egindako zubilanak nabarmendu dira: «Nafarroako Gobernu eta institutuaren artean, zuzendaritza eta langileen artean, familia eta ikasleen artean...». Eta «1967an hiru irakasleekin hasi zen Ofizialia Eskola, egun eskualderako erreferentzia den puntako ikastetxea bilakatu dela» ere dio aipatu memoriak. Hainbat hezkuntza plan eta programa abiatu izana ere goraiatu da memorian. 26 ikasturte egin ditu zuzendari: 1978-1984 eta 1989-2010.

### Ura hizpide

Uraren inguruko Ekoikuskaritz eta Bidasoa Ibai-Lurraldearen Kudeaketa Planaren 2. parte-hartze tailerra egingen da ortzegun honetan, hilak 25, 19:00etatik 21:00etara Belandeta Erabilera Anitzeko Egoitzan. Tailerraren helburua bikoitza da: lehenik udal instalazioetan egiten den uraren erabilera eta Bidasoa ibaiaren egoerarekiko proposatu diren eskuhartzeko aukerei buruzko iritzi edota kezak biltzea, eta bertzetik lehenitasuna dutenak identifikatzea, horrela Esku-hartzeen Behin betiko Plana zehaztu ahal izateko.





**FUTBOL ZELAIA → 133.000 EUROKO INBERTSIOA**

## Mastegiko aldagela berriak inauguratu dituzte azaroaren 13an

Belar artifiziala  
aldatzeko  
asmoa dauka  
Beti Gaztek,  
abudo 14 urte  
beteko baititu

### Aitor AROTZENA

Mastegi futbol-zelai-ko aldagela berrien inaugurazio ofizialean ekitaldi hunkigarria egin zen azaroaren 13an. Beti Gazte elkarteak lehenbiziko bazkideak, 95 urte dituen Justo Urkijo Bizkarguenagak, egin zuen zintaren mozketa. Olaia lantzik eta Urkijoren bi birbilobek, Manex Larralde eta Naroa Villalvak, zintari eutsi zioten. Zinta moztu eta aldagelak inauguratuztat eman ondotik, Nafarroako Futbol Federazioko Felix Gonzalezek oroi-garri bat eman zion Justo Urkijori, Federazioren korbata, hain zuzen. Salvador lantzi Beti

Gazteko presidentek ere elkartearen intsignia eman zion eta eskerrak eman zizkien, bi federazioei, Udalari eta Nafarroako Kutxari. Izan ere, 133.000 euro inguruko inbertsioa egin da aldagelatan. Espainiako Futbol Federazioak 60.000 jarri ditu, Udalak 50.000 eta Nafarroako Kutxak, 23.000, *Zuk Aukeratu Zuk Erabaki* programaren bidez.

Orain, Mastegiko belar artifiziala aldatzeko asmoa dago, 1997an jarri baitzen eta geroztik aunitz erabili da. Salvador lantziren ustez, «belar honi ez zaio bi urte baino gehiago gelditzen, eta horregatik aprobetxatu dugu federazioetako agintarien bisita laguntza eskatzeko». Hauek dirulaguntza emateko prest azaldu dira, baina oraindik behin betiko aurrekonturik ez dagoenez, kopurua zehaztu gabe. Gaur eguneko belarraren gai-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Beti Gazteko argazki lehiaketaren lehen saria Bizkaiara

48 argazkilarik 139 argazki aurkeztu dituzte Beti Gazte antolatutako argazki lehiaketara. Lehen saria, 300 euro, Berangoko Javier Pedro Fernandez Ferrerasen *Luchadores* lanarentzat izan da. Bigarren saria, 200 euro, Bergarako Benito Canteroren *Tre Zimera begira* argazkiarentzat eta hirugarrena, 100 euro, Bergarako Juan Jose Lopez Azurmendiren *Behelainoa larrean* argazkiarentzat. Beti Gazteren 70. urteurrenaren ospakizunekin zerikusia duen argazki onenaren sari berezia Irantzu Pastor Ordoki lesakarrak eskuratu du *Domikoren babesean* lanarekin. Argazkiak hilabete bukaera bitarte ikusgai izanen dira, astelehentik larunbatera 18:30etik 20:00etara eta igandetan 11:30etik 13:30era.

nean berria jartzea aztertzen ari da Beti Gazte, horrek %40 jausten baitu gastua, baina aldi berean, bertze zenbait lan egiteko ere aprobetxatu nahi da. Izan ere, zenbait tubo hondatuak daudenez, ureztatzeko sistema aldatu beharko litzaiteke eta alboetako porteriak ere aldatu nahi dira.

### Mendi abesbatzak kontzertua

Doneztebeko Mendi abesbatza kontzertua eskainiko du abenduaren 3an, Xabierko Frantziskoren egunean, eguerdian San Martin elizan. Gobernuak antolatu du emanaldia, Nafarroaren Egunen barnean.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### 700 lagun sartu ziren Udazkeneko Azokan

Lesakako Zerbitzuen Elkarteak Udalaren laguntzaz antolatuta Udazkeneko Azoka egin zen azaroaren 7an frontoian. Euro bateko sarrerarekin, Elkartearen logotipoa zuen giltzaria jaso zuten bezeroek. Denera, 700 bat lagun sartu ziren sarrera ordainduta eta Udaberrikoan baino jende guttixeago bildu arren, orokorrean gustura zeuden merkatariek. Orain, ortzeguneko Feria Egunean 1.000 euroko bonoa zozketatuko dute merkatariek eta irabazleak, azaroaren 27an egin beharko ditu erosketak.

### Ba al zenekien...

Irailaren 30ean bukatu den 2009/2010 nekazaritza urtean San Anton ingurua izan dela Nafarroan euri gehien bildu den lekua, metro koadroko 2.277 litro. Egun bakarrean ere, bertan bildu zen euririk gehien, 165,4 litro ekainaren 16an.



**XATURETXEA**  
Zerbitzua  
JATETXEA  
T. 948 637 260 - LESAKA

**IRU BIDE**  
Energia - Auzoak  
Barrutia, 31 - Lesaka  
Tel. 948 637 127

**TATANKA**  
Udazkeneko eskaintzak Stihl-en  
AURREAN 175 ANTE MAHARRIK ONEWAREKIN  
Barrutia / Koroaketa / Odoakoz plaza  
T. 948 038 299 | Bittiria, 6 | 31770 Lesaka

**BOZZ-AID**  
LANTZARITZA  
Barrutia 41 • T. 948 6376 • LESAKA

# ETXALAR

AISIALDIA → LARRABURUA ELKARTEA

## Mus Txapelketa jokatzen ari dira aurten XIX. aldiz Larraburuakoak

Abenduaren  
17ra arte ariko  
dira lehia

### Irupe eta Itsaso

Urteak dira Larraburuan mus txapelketak antolatzen hasi zirela eta aurten ere ez dute hutsik egin. 2010eko mus txapelketa, XIX.a, hain zuzen, azaroaren 14an hasi zen Larraburuan. 10 bikote ari dira parte hartzen eta abenduaren 17ra arte irauenen du.

Abenduaren 27an, berriz, bazkaria eta trofeoak banatzea izanen da. Jose Javier Zubietta eta Joxe Mari Arburua antolatzaileek erran dutenez, bikote irabazleak txapela eta trofea hartuko dute eta bigarren, hirugarren eta laugarren bikoteek trofea.

### Bortzirietako Mus Txapelketa

Bortzirietako Osasuna-

zaleek antolatutako Mus Txapelketaren Etxalarko kanporaketa ertzirahonetan, azaroak 26, jokatuko da Herriko Ostatuan. 23:00etan hasiko da eta ordura arte apuntatzen ahal izanen da.

### Dantzadi Nafarroako Kantu Txapelketan

Etxarri-Aranatzen azaroaren 7an eta Berriobeitin azaroaren 13an egin ziren Nafarroako Kantu Txapelketarako bi kanporaketak. Eta puntuazioa kontuan hartuz, herriko Dantzadi taldea pasatu zen joan den larunbatean, azaroak 20, jokatzekoa zen finalera.

Taldeko lau partaideek eurek sortutako kantarekin aurkeztu ziren: Davidek baxua, Iñigok bateria, Itsasok gitarra eta Irunek trikitixa joz. *Abendua* izan zen kantatu zuten abestia.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Edertasun ikastaroa

Herrian gero eta ikastaro gehiago antolatzen badira ere, ez genuen horrelakorik oraindik izan. Pili Arrolak edertasun ikastaroa eman zuen azaroaren 6an Iharrian. Mari Kay markaren ordezkaria da bera, eta aurkezturiko kremak garestiak baina hagitz onak direla erran zuen, Telecinco katean jendea moldatu eta edertzeko krema hauek erabiltzen dituztela gehituz. Ikastaroaren akaberan partaide bakoitzak krema bat hartu zuen opari eta bere produkturen bat erosteko aukera ere izan zen. Jendea interesaturik egonez gero, berriro ere ikastaroa antolatuko luke Pili.

ARGAZKIA: ANGELA IRISARRI



### Onddo ikusgarria

Duela egun batzuk, Iturraldeko Borda inguruan, Angela Irisarrik aurkitu zuen argazkian ageri den onddo erraldoi eta arraro hau. Landagain eskolara eraman zuen eta gela guzietan barrena pasatu zuten ikertzeko. Erran dutenez, erditik puskatu zutenean, barrena zuri-berdeska zuela ikusi zuten.

**USOA**  
nekazari kooperatiba  
ganaduarentzat  
pentzurik egokiena  
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**GOBEKO**  
GARBIAKINAK  
FRAN AZZUA - LESAKA  
Tfnoa: 948 637 826

**LEGARRA**

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ  
Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

**BERA**  
Zere ingurua klase guzietako insektuz  
(xomorro, zinoera, armiarma, kukuxu...)  
eta orretai xagutzar garbitu nahi baduzu,  
ditul Termite eta Pipien tratamendukoak  
**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak  
Tel: 948 625 597 • Zalein, 42 A • BERA

**ERREKALDE**  
PLATER KONTRAKTAK  
PINTURAK  
KANTITATIBO  
TFNOA: 948 630 259 BERA

KULTURA → ABENDUAREN 5ETIK 8RA

## 'Igantzi besta giroan' erakusketa ikusgai izanen da Kultur Egunetan

Euskara Batzordeak lau egunez hainbat kultur ekitaldi antolatu ditu

### TTIPI-TTAPA

Igandearekin hasi eta asteazkena bitarte, gazetxo nahiz helduek gozatzeko moduko ekitaldiak prestatu ditu Euskara Batzordeak. Abenduaren 5etik 8ra izanen dira Kultur Egunak. Egunez egun, hau izanen da egitaraua:

### IGANDEA, ABENDUAK 5

- 16:00etan haurrentzako zinea eta krispetak Ziberrean.
- 17:45ean haurrentzako zinea eta krispetak Ziberrean.
- 19:00etan helduentzako antzerki emanaldia Baratzondon: Ainhoa Alberdi & Iraia Elias taldeak *Eta Karmele?* ikuskizuna eskainiko du. Bi emakumeren arteko elkarriketa umoretsua, eroa eta gazi-gozoa, pentsamendu zentzudua,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean hainbat postre eta tortilla dastatzeko aukera izan zen Kultur Egunetan.

netik egoerarik absurduenera pausu tiki bat bertzerik ez dagoela erakusten diguna. Guztia-ren erdigune Karmele da.

### ASTELEHENA, ABENDUAK 6

- 18:00etan opil ikastaroa Biltokian. Nahi duen guztia joaten ahal da. Anuntxi eta M<sup>a</sup> Luisa ariko dira irakasten. Ondotik dastaketa izanen da.

### ASTEARTEA, ABENDUAK 7

- 16:00etan haurrentzako ipuin ilustratuen tailerra eskolan, Iraia Oki-

narekin. Iraia Okinak *Zirkua amets* ipuineko ilustrazioak egin zituen, eta haurrekin eginen duen tailer honetan horren inguruan ariko da.

- 17:30ean *Zirkua Amets* erakusketa eskolan. Haur Hezkuntzako ikasleek ipuin horren inguruan egin dituzten lanak erakutsiko dituzte.

- 19:00etan Oskar Txoperenaren hitzaldia Ziberrean: *Parrokiko Artxiboa, Igantziko iragana- ren lekuko aberatsa*. Oskar Txoperena hainbat

urtetan aritu da parrokiako artxiboa begiratzen, eta hortik gure herriaren historiari buruz hainbat informazio atera du. Hitzaldia horren inguruan izanen da.

### ASTEAZKENA, ABENDUAK 8

- 11:30etik 18:00etara *Igantzi besta giroan* erakusketa Baratzondon. Urtero Biltokik antolatu duen erakusketak aurten herriko hainbat jairen ingurukoa izanen da. Kabalgata, ortzegun gizen, inauteriak, sanjoa-

nak, sanmigelak, omenaldiak... eta herrian izaten diren bertzelako jai eta ospakizunekin zerikusia izaten ahal duen edozein material (orogarriak, blusak, argazkiak, programak...) bildu eta erakusketan paratuko dituzte. Bide batez, herritarrei etxean izaten ahal dituzten puskak erakusketarako uzteko dei egin du Biltoki elkarteak. Bilketa abenduaren 4an 18:00etatik 20:00etara eginen da Biltokian.

- 12:00etan bizkotxo lehiaketa Biltokian. Ordu-bete lehenago Biltokian aurkeztu behar dira.
- 19:00etan bizkotxo dastaketa Biltokian.

### XXV. Mus eta partxis txapelketak

Aurten XXV. aldiz eginen diren mus eta partxis txapelketetan parte hartzeko abenduaren 8a baino lehen eman behar da izena Biltokian, bikoteko 25 euro ordainduta. Mus txapelketa abenduaren 18an eta partxiskoak 19an hasiko dira.

UNE-EN-ISO 9001  
**LAC**  
SISTEMA DE CERTIFICACION EN CALIDAD ISO 9001  
SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua**  
**Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tlhoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 560

**F. LANCHAS**  
Akutxalorea eta berriztatzea  
Parket eta parket flotatzaila  
jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 736 M: 607 406 781

**sarobe**  
geologia olindega

07 de azararen 25 bako  
9:00 berargarria) 1948 630 899  
www.sarobe.net

# ARANTZA

UDALA → LANPOSTU DEIALDIA 2011RAKO

## Herriko eraikinen garbiketarako lehiaketa publikoa zabaldu du Udalak

Proposamenak azaroaren 30era bitarte aurkez daitezke

**Nerea ALTZURI**

Hurrengo urteari begira, medikuaren kontsulta, Herriko Etxea, lu-

doteka, baskula eta eskoletako garbiketa lanen esleipena egin du Udalak bando bidez.

Informazio gehiago nahi izanez gero, baldintza plegua Herriko Etxeko idazkaritzan eskura daiteke, baina jakin, interesa izanez gero, proposamenak aurkezteko



ARGAZKIAK: BERTSOA.COM

### Kultur Egunetako bertso saioa Hitzetik Hortzeran

Giro ederrean eta erantzun onarekin joan ziren Kultur Egunak. Horren harira, aipatzekoa da, Hitzetik Hortzera saioak Ekaitza Elkartearen egin zen bertso afariko irudiak hartzen izan zirela. Azaroaren 21ean emititzekoak ziren, baina bakarren batek ikusi ez badu, [www.bertsoa.com](http://www.bertsoa.com)-en orduko giroa eta bertsoak ikusgai ditu.

epea azaroaren 30ean, heldu den asteartean,

14:00etan akautuko dela. Plegu itxien irekiera

hurrengo udaleko bilkuran egingen da.

## Frantziara egingen da hurrengo urtean opor bidaiaria

Abenduaren 31rako apuntatu behar da

**N.A.**

2011ko ekaina urruti dagoela ematen du. Halere, bidaiaria bat aitzinetik antolatuta behar duen horrentzat, zenbat eta lehenago lotu, orduan eta hobe. Herriko kronika idazten dugun ur-

teotan, hainbat herrialderen deskribapena egin dugu eta munduko hainbat toki ezagutu dituzte herritar batzuek. Azken urteetan, herritarrak zein inguruko aunitz batu dira bidaiariaren taldera. Ongi antolatu eta gidatuz gero, lagun aunitzek izena ematen du. Martin Legarra apaizak hartzen du guzia lotzeko ardura.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA  
Paris izanen da bidaiaria ezagutuko tokietako bat.

Ekainaren 13tik 21era Frantziara joan dira. Xehetasun batzuk aipatuz, erran, Iruñetik Nantez aldera abiatuko direla eta Rennes, Vannes, Quimper, Saint Malo, Rouen eta Paris ere ezagutuko dituztela.

Bidaiaren prezioa 1.170 eurokoa da. Garraioa, gidaria, lau

izarreko hoteletan egonaldia, hotel eta jatetxeetako hainbat zerbitzu, bisitatu beharreko lekuetarako sarrerak, eta bidaiaria aseguruia prezioan sartzen dira. Abenduaren 31 da apuntatzeko azken eguna (948 634030-Martin). 350 euroko seinalea ere utzi behar da.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

**Alberto RETEGI**  
abokatuia  
abokatuia  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA


**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
agardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAJARROA  
Tel: 948 641 474

“

NIRE BIZITZAN ZER IZAN DEN  
HUNKIGARRIENA?  
**ITZULTZEA**

ABENDUAREN 3a. NAFARROAREN EGUNA

”



Aspaldi joan nintzen itunoz bestaldera, beste zenbait bezala, bizimoda hobearren bila. Desberdina zen dena, eta gurea baino askoz ere handiagoa. Baina herrimina sentitzen nuen: gure alorren usaina, goizeko freskura, nega hotzak. Lagun onak egin nituen, jendea maitatu. Haiak ere maitatu ninduten. Baina nire etxoaren, nire jendearen, gure jan-edanaren falta sumatzen nuen. Eta norbait ere, itzultzeko ordua silegatu, eta gure lurrera etortzea erabaki nuen, zalaparra handirik egin gabe, oso egun berresian: Nafarroaren Egunean.

*Sanzolo Momonal*

Sanzolo Momonal, emigrazioa, duela 76 urte Nafarroatik Argentinara joan.



Nafarroako  
Gobernua

# SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → MALERREKAKO IKASTETXE TTIKIAK

## Eskola ttikietako ikasleen topaketa eginen da ortziral honetan

Jokoak, ipuin kontalariak, bazkaria eta musika izanen dira

biduko dira. Aurten lehen aldiz antolatu den ekimen honen helburua ikasleen arteko harremanak sendotzea eta horrekin batera, ekin-tzak euskaraz egitea da.

### GOIZ ETA ARRATSALDEZ

Herri bakoitzetik gurasoekin etorriko dira haurrak autoetan eta buelta ere hala eginen dute. 09:30ean elkartuko dira eta 16:00 arte ongi pasatzeko hainbat jarduera izanen dituzte.

Ikasleak hiru talde-tan banatuko dira: Haur Hezkuntzakoak alde barietetik, Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoak bertetik eta hirugarren taldean Lehen Hezkuntzako bigarren eta hiru-



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

### Dantzarien jaialdi ederra

Ikuskizun ederra eskaini zuten dantzariak azaroaren 6an herritarren aitzinean, eta herritarrek ere ederki erantzun zuten. Adin guzietako 50 bat dantzari elkar-tu ziren jaialdirako espreski dekoratutako pilotalekuan, eta urte osoan egiten duten lanaren zati bat erakutsi zuten. Saioaren ondotik, dantzari helduek Eii-zondoko Eskisaroi jatetxean afaldu zuten eta ttikiek kanpinean.

### I. ARRIETA/TTIPI-TTAPA

Beintza-Labaien, Eratsun, Ituren, Legasa, Narbarte, Saldias eta Sunbillako eskoletako neska-mutikoen topaleku bihurtuko da ortziral honetan, azaroak 26, Sunbilla. Malerrekako eskola ttikien eguna antolatu baitute zazpi herrietako eskolek elkar-lanean. 161 ikasle dituzte aipatutako ikastetxeek eta denak ez bada ere, horietako aunitz

garren ziklokoak. Aldi berean, hiru txoko antolatuko dituzte: haur joko-koen txokoa, Pello Añorga ipuin-kontalariarena eta mahai jokoen. Ikasleak batetik bertera ibiliko dira.

Eguerdian pilotalekuan bazkalduko dute eta ondotik, musika ere izanen da. Etxerako bidea hartu aitzinetik, txokolatada izanen dute.

### Ba al zenekien...

Google bilatzaileko irudietan *Galicía* paratuta lehenbiziko argazkian Sunbilla ageri dela?

### Eskolako jangela

Ikasle kopuruaren gorakadaren aitzinean, eskolako jangela haunditu ala bertze gela bat egokitzeko asmoa dabil ahoz aho. Dena den, Pako Errandonea alkateak

oraindik ez dagoela deus ere erabakia adierazi dio TTIPI-TTAPARI, baina «oraingo jangelaren parreta bota gabe, ate bat egin daitekeela» azaldu digu. Denborak erranen du zer gertatuko den.





Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

<b>Bera</b> SAN JOSE BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Doneztebe</b> SAN PEDRO BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Elizondo</b> FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA	948 58 19 59
<b>Leitza</b> LEITZAKO BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Lesaka</b> LESAKAKO TANATORIOA	948 63 74 04

MALERREKA → ALDI BATERAKO LANPOSTUA

## Kudeatzailea eta kontuhartzailea hartzeko deialdia egin du Mankomunitateak

Probak abenduaren 15ean egingen dira

### TTIPI-TTAPA

Idazkari-kontuhartzailea eta kudeatzailea behar ditu Malerrekako Mankomunitateak, eta

horretarako, lanpostu deialdia egin du. Aldi baterako lana izanen litzateke, sei hilabeterako, eta gehienez lanpostua behin betiko bete arte luzatzen ahalko da. A mailari dagokion ordainsaria izanen luke langileak eta plantila organikoan onartutako osagarriak.

Interesatuak azaroaren 30a baino lehen Doneztebeko Enplegu Bulegoan inskribatuak egotea ezinbertzekoa izanen da eta jakin, deialdiko oinarriak Enplegu Bulegoan eta Mankomunitateko bulegoan daudela. Probak, berriz, Sunbillako Herriko Etxean egingen di-

ra, abenduaren 15eko goizeko 9etan.

### Bertso afaria abenduaren 11n

Urtero bezala, Gazte Burrenba Taldeak bertso afaria antolatu du abenduaren 11rako. Iker Zubeldia eta Jexux Mari Irazu gonbidatu di-

tuzte eta Aranzoko elkartean izanen da saioa, 21:30etik aitzinera.

### TXARTELAK

Afarira joan nahi dutenentzat, txartelak Titi ostatuan paratzekoak dira salgai, 25 eurotan Burrenbako bazkideendako eta 30 eurotan gainerakoendako.

## Talde guztien aurkezpena igande honetan egingen du Erreka Elkartek

Zortzi talde eta 140 jokalaria. Halaxe dituenboraldi honetan Erreka Kirol Elkartek, eta horien guztien aurkezpena egingen du igande honetan, irailak 28, kiroldegian. Horrez gain, egun berean eta aurkezpenaren aitzinetik, senior taldearen partida garrantzitsua jokatuko da: Erreka A-Anaitasuna. 11:30ean hasiko da lehia eta partida akitzean egingen da talde eta jokalarien aurkezpena.

### SASKIAREN ZOZKETA

Aitzineko urteetan bezala, Erreka Elkartek Eguberrietako saski ederra zozketatuko du abenduaren 18an, larunbatarekin. Elkartearen egoitzan egingen da zozketa, 13:00etan.

Saski konpletoa egin dute aurten ere: mendi bizikleta, mikrouhin-labea, telebista, zuku-makina, sandwich-ontzia, turroiak, urdaiazpikoa, ardoa, likoreak... Deneztarik du zareak eta bole-



ARGAZKIA: ERREKA ELKARTEA

### Meoki eta Mindegia non, doneztebarrak han

Denboraldi ederra egiten ari dira Ibai Meoki eta Niko Mindegia San Antonio-ko bi jokalaria, eta herriko zaleak gozaten ari dira horrekin. Jarraitzaile aunitz dituzte herrian eta Iruñeko partidetara ez ezik, etxetik kanpokoetara ere joaten dira. Hori ikus daiteke, adibidez, argazkian. Logroñon ateratakoa da.

toak komertzioetan daude salgai. Elkartek urte

osoan egiten dituen ekimenak finantzatzeko

erabiltzen da zozketatik ateratako dirua.

**APARAN, S.A.**  
ERIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
DONEZTEBE

**artlepo**  
web orriak  
irudi korporatiboa  
kartelak  
gonbidapenak  
egutegiak  
liburuxkak  
logobipoak  
txartelak  
oroigarriak

www.artlepo.com

**ondo**  
SA ZURTA  
sudaderak  
kamisetak  
Tenporadako  
arropa eta  
outlet

www.ondobapunto.com

Denda berria Donezteben!!  
Zazpigerutze, 3 - L8 Doneztebe 948 450 478  
artlepo@artlepo.com

## ITUREN

OSPAKIZUNAK → IBINTZA KULTUR TALDEA

# Kultur ekitaldiz beteta dator aurtengo abendua

Abenduaren  
4an haurren  
eguna eginen  
da

## Arkaitz MINDEGIA

Etortzeaz dagoen zubi honetan, Kultur Egunak antolatzen ditu Ibintza Kultur Taldea urtero. Baina aurtengoan hilabete osoan hainbat ekitaldi eginen ditu. Abenduaren 3an, erraterako, ilubarrean Herriko Etxeko Ganbaran talo-jatea izanen da, eta tripa ederki bete ondotik, mus txapelketa eginen da goizeko ordu ttiak arte.

Abenduaren 4an, berriz, haurren eguna izanen da: goizean haurrendako tailerrak eginen dira, eguerdian haurren bazkaria Ganbaran eta arratsaldean haurrentzako ikuskizuna izanen da.

Ekitaldi hauek abendu hasieran izanen badira ere, aipatu bezala, hilabete osoan ekitaldi gehiago izanen dira, eta aurrerago aipatuko ditugu gainerako hitzorduek.

## BOLETOAK

Hainbat ekitaldi antolatzen ditu urte osoan Ibintzak, eta horiek finantzatzeko diru iturri garrantzitsuak diren boletoak laster aterako dira eta herriko komertzio eta ostaluetan paratuko dira salgai.

Bestalde, Kultur Taldeak deialdia luzatu die herritarrei kide berriak behar dituztelako ideia berriak aitzinera eramateko.

## Eskolako berriak

Ortiziralean, azaroak 26, Sunbillan Malerrekako eskola tikien eguna ospatuko da, eta zazpi eskolako haur, guraso eta irakasleek parte hartuko dute, eta tartean izanen dira Iturengo eskolakoak ere.

Bertzalde, eskolako Guraso Elkarteak boletoak paratu ditu salgai. Euro batean eros daitezke eta zare eder bat zoketatuko dute. Boletoak abenduaren 22a baino lehen erosi beharko dira, egun horretan eginen baita zozketa eskolan, Eguberrietako bestaren barne.



ARGAZKIA: AINARA GARCIA/NOTICIAS DE GIPUZKOA

## Joaldunak lehenbizikoak Behobia-Donostiako helmugan

Korrikalari profesional eta afizionatuek hitzordu handia izaten dute azaroan Behobia-Donostian. Hainbat tokitatik etorritako milaka lagun elkartzen dira, baita eskualdekoak ere. Eta aurtengoan iturendarrak ere han izan ditugu. Ez, ordea, korrikalariak, joaldunak baizik. Beraien arteko erronkari eutsiz, joaldunak hilabete batez hortxe aritu dira entrenatzen eta egun haundian, 06:30 aldera dena prest zutela joare soinuak hasi ziren Behobiako sarrera ondotik. Ibilbideko malda, zelai eta kilometroak pasatuz, atsedendietan estiratuz eta herritarren laguntza, edari eta animoekin aurrera eginez, nahiz eta azkenerako hankak pixka bat kargatzen hasiak izan, Donostian bildu zen jendearen harridura eta animoekin helmugatik pasatu ziren. Egindakoaren ilusioarekin, besarkatu, argazkiak atera eta podiumera ere igo ziren. Ondotik joareak kendu eta La perla bainuetxera joan ziren, eta gero bazkari eder baten inguruan ospatu zuten. Ondorioak izanen zituzten biharamunean baina egun dutena azpimarratzekoa bada behintzat. Zorionak!



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

## Besta parte-hartzaileak

Eguraldiak emandako pausaldia aprobetxatuz –ortziralean eta larunbatean, hilak 12 eta 13, eguraldi ona egin zuen–, parte-hartzaileak izan dira aurtengo Aurtizko bestak. Mus txapelketa, adibidez, hamar bikotek parte hartu zuten, eta herri bazkarian 50 lagunetik goiti bildu ziren. Haur, gazte zein helduek gozatu dute San Martinetan.

**Zalain**  
JATEXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa  
T. 948 631 106 w. www.zalain.com

Eginazu  
**TTIPI-TTAPA**ren alde  
proiektu zenbakia:  
**15.996**

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatua

Santiago, 57 2C · ELIZONDU  
T. 948 581 468 M. 630 354 816



GIZARTEA → HAUR ETA GAZTETXOEN TXOKOA

## Ludotekaren funtzionamendurako kultur elkarte bat sortzea proposatu da

Gurasoek abendu hasieran ireki nahi dute

### Fermin ETXEKOLONEA

Abendu hasierarako zabaldu nahi dute gurasoek ludoteka, eskola zaharraren beheko solairuan egokitu den haur eta gaztetxoentzako txokoa. Eta nola funtzionatuko lukeen erabakitzekoan, kultur elkarte bat sortzearen alde egin dute guraso gehienek. Iritzi horretakoak ziren azaroaren 5ean ludotekaren harira egin zen lehenbiziko bileran elkartu ziren 20-25 gurasoetatik gehienak. Joan den larunbatean, hilak 20, bertze bilkura bat egitekoazuten, kontua hobeki zehazteko.



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Haur eta gaztetxoentzako egokitu da eskola zaharraren beheko solairua.

### KUOTAK

Hasierako proposamenaren arabera, ludotekara joaten den haur bakoitzari kuota bat kobratuko zaio hilabetean. Haur bakoitzeko hilean 8 euro ordaindu beharko litzateke; bi

hurrekin 12 euro eta 3 hurrekin 16 euro.

Asteburuetan bakarrik joanez gero, erdia kobratuko litzateke: haur bakoitzak 4 euro eman beharko litzateke; bi haur izatekotan 5 euro eta hiru hurrekin 8 euro.

Noizbehinkakoen kasuan, ludotekara joaten diren aldi bakoitzeko euro bat kobratu nahi dute gurasoek.

### ORDUTEGIAK

Astelehenetan izan ezik, haur eta gazte-

txoen txokoa ia egunero zabaltea da gurasoen asmoa: asteartetik ostiralera 17:00etatik 19:00etara irekiko litzateke atea. Larunbat eta igandetan, aldiz, goizean bi orduz eta arratsaldean bertze bi orduz zabalduko litzateke.

Lortzen den diruaren arabera, arduradun bat hartu ala ez ere erabakiko da.

### Bake-epaile bila

Orain arte Ikazpeko Sebastian Indakotxeak bete duen bake-epailearen postua hutsik dago. Hortaz, norbaitek bake-epaile izan nahiko balu udaletxera joan beharko luke, eta inor aurkezten ez bada, Udalak berak izendatuko luke herritarren bat. Bake-epaileaz gain, honen ordezkoa ere behar da.

**endanea**  
garden

**Gabonetako ze aukera!**  
Pasko lore, pinuak, apaingarriak, eta abar

8ª Jaizubia 40 20280 Hondarribia Tel: 943 64 17 10 Infor@endanea.com www.endanea.com

## NARBARTE

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 4AN ETA 5EAN

# Aizkora eta motozerra apustua jokatu da San Andresetan

Bazkarirako txartelak Esther janari-dendan eta Herriko Ostatuan daude salgai

### TTIPI-TTAPA

Aurtengoan San Andresak abenduaren 4 eta 5eko asteburuan ospatuko dira eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu dira bi egunetan.

### LARUNBATA, ABENDUAK 4

• 12:00etan: motozerra

eta aizkora apustua plazan.

- 14:00etan: bazkaria Herriko Ostatuan.
- Arratsaldean dantzaldia Santxotenaren eskutik.

### IGANDEA, ABENDUAK 5

- 16:30ean: mus eta partxis txapelketak Herriko Ostatuan.

### OHARRA

Bazkariko txartelak erosteko Esther janari-dendan edo Herriko Ostatura jo behar da eta horretarako azken eguna, asteazken hau, azaroak 24, da.



UTZITAKO ARGAZKIA

San Andresetako bazkaria Herriko Ostatuan.

## DONAMARIA

IKASTAROAK → ESKULANGINTZA

# Artisautza ikastaroa antolatu nahi da urtarriletik aitzinera

Abenduaren 20a baino lehen apuntatu behar da liburutegian

### Iñaki TELLETXEA

Negua ate joka dugu eta garaiko arratsalde ilun eta hotzak pasatzeko artisautza ikastaro bat martxan para-

tu nahi da. Urtarrilean hasita, bi hilabetez, astean behin bi orduko saioak emanen lirateke erabilera anitzeko lekuan.

### IZEN-EMATEA

Ikastaroan parte hartu nahi duen guztiak abenduaren 20ra bitarte herriko liburutegian ematen ahal izanen du izena.



UTZITAKO ARGAZKIA

### 95 kiloko basurdea Donamaria eta Oizko ehiztarien eskuetan

Joan zaigu aurtengo uso ehiza garaia ere eta azkeneko urteotan bezala, ehiztariak nahiko deskontentu agertu dira denboraldiarekin. Uso ehizaz aparte, basurdeetan ere ibiltzen dira herriko ehiztari batzuk. Argazkian ikus dezakezue. Donamaria eta Oizko talde honetan Periko Etxegiak hil zuen 95 kiloko basurdea. Hori duk bitxia hori!

Behin taldea osatzen denean, orduan ados-

tuko litzateke artisautza saioak zein egune-

tan eta zein ordutan emanen diren.

# LEGASA

## OSPAKIZUNAK

# Egun osoko egitaraua prest larunbateko Kattalin Egunerako

Goizeko gosariarekin hasiko dira ekitaldiak

pasatzea erabaki da. Normalean eguneko ekitaldi nagusia bazkaria izaten da, 60-70 lagun biltzen dituen otordua, hain zuzen.

### TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, azaro iristeak Kattalin bes-ta hurbil dugula erraten digu legasarro. Eta aurtengoan, larunbat honetan, azaroak 27, ospatuko dugu Kattalin Eguna. Erran, berez Kattalin Eguna azaroaren 25ean izaten dela, baina aste tartez denez, hurrengo larunbatera

### EGITARAUA

- 09:30ean gosaria.
- 10:30ean haurrendako joko klasikoak.
- 14.00etan bazkaria eta ondotik zozketa.
- 17:00etan DJ Joxe Mari.
- 19:00etan kutxen joko helduentzat.
- 21:00etan afaria.
- 22:00etatik 00:00etara DJ Joxe Mari.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bazkaria izaten da Kattalin Eguneko ekitaldirik jendetsuena.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Malerrekako Gazte Asanbladaren zozketako saria Leitzara

Malerrekako Gazte Asanbladak argazki lehiaketa antolatu zuen irailaren 25ean Legasan. Eta egun horretan egin zuen uda guztian saldutako Gazte Zozketaren boletoen zozketa. Lehenbiziko zorbakiaren jabea, ordea, ez zen agertu eta berriz egin behar izan zuten. Kasu honetan, saria Leitzara joan da. 372 izan zen bigarren zozketa egin eta atera zen zorbaki sariduna. Eta zorbakiaren jabea, berriz, argazkian ageri den Maitane Billabona leitzarria izan da. Saria ondoan duela ageri da.

ASISTENCIA DOMICILIARIA

## ZENTURIA

Zure zerbitzura eguneko 24 orduak...  
... urteko 365 egunak

ZENTURIA-rekin ETXEAN BEZALA  
.....INON EZ!

ZENTURIA ETXERO LAGUNTZA TALDEA  
ZURI LAGUNTZERA DATOR!

- Arreta pertsonalizatua - garbitasuna-Jaki/Oheratu
- Etxeko laguntza - garbitasuna - konpainia
- Fitoterapiak - produktu naturalak
- Fisioterapia - errehabilitazioa etxean
- Asteburuak - familiaren atsedenaldia
- Ganak - ospitalea/etxea
- Burneko langileen kudeaketa
- Langile kualifikatuak

MENDEKOTANUN LEGERAKO PRESTAZIO  
EKONOMIKOEN KUDEAKETA EGITEN DUGU!

Telefonoak: 943 639 049 - 656 737 698  
ayudadomiciliaria@zenturia.es  
www.zenturia.es

egoi bardot obregojo arkitektoa

679649789 elizondo - braulio iriarte 33, 1ºD - 31700  
948250371 iruñea - irateko monastegia 62, 4ºC - 31011

BEINTZAKO  
OSTATUA

☎ 948 45 00 14

web: www.beintzakostatu.com  
www.ostatu.com  
11701 BEINTZALARAKEN

ORBELA

# GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → LARUNBAT HONETAN FERIA

## Betizuek protagonismo berezia izanen dute larunbateko Ferian

Herri bazkarirako txartelak Amaiarenean daude salgai

### Esteban AROTZENA

Joxemiel Barandiaranen euskaldunontzat mitologikoa zela esaten zuen animaliak, betizuak, alegia, orain arte izan ez duen protagonismoa hartuko du larunbat honetan ospatuko den Feria berrituaren zarpigaren edizioan. Antolatzaile taldea eta betizuen jabe batzuen arteko elkarlanari esker eginen da hau, buru kopuru polit baten presentzia ziurtatu baitute abeltzainek.

Aise ulertzeko moduko arrazoiengatik eman diote antolatzaileek betizuari leku berezia aurtengo –eta akaso hurrengo urteetako– Ferian. Oraintsu arte galtear egon den arraza autoktono honetako 700 buru inguru daude Euskal Herrian, Nafarroan 400 eta hauetatik 200 gure larreetan edo herrian alaitzen dira. Sei jaberena dira denak.

### FERIAK BI GUNE

Abeltzainak, nekazariak, artisauak... Eta publikoa aurreko edizioetan baino erosoago egonen da aurten, Feria bi gunetan banatuko baitu antolakuntzak. Animaliak, betizuak barne, Txino auzoko pilotaplaza

irekian egonen dira eta postuak plazan. Horrez gain, beste hainbat gune ere erabiliko dira. Esaterako, zaharren elkarteko zenbait kide zohian ariko dira Belakotarren etxe aurreko lursailean.

### HERRI BAZKARIA

Aurrekoetan bezala, ehunka lagun Lubineko frontoian elkartzen dituen bazkaria izanen da aurten ere festa haundi honen ardatz. Gogoan izan, bazkarirako txartelak Amaiarenean daudela salgai (948 514242).

Janari-edariak, bazkaltiarren umoreak, goizean hildako zerriaren zozketak eta Modestoren musikak osatzen duten koktelak eguneko festa borobiltzen ederki lagunduko dute. Gauekoa beste kontua izanen da.

### Gazte topaketa

Hilaren 13ko eskualdeko gazte topaketa Goizueta eta Aranoko gazteen topaketa izan zen azkenean, Areso eta Leitzakoek erantzun es-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Txinga eta aizkora txapelketak abenduaren 5ean

Abenduaren 5ean 12:00etatik aurrera bi zapel egonen dira jokoan Lubineko frontoian eginen den herri kirol jaialdian. Aurrena, Euskal Herriko gizonezkoen txinga txapelketareko finala jokatuko da. Eta ondoren, Nafarroako bigarren mailako aizkolariena. Argazkian ikus daitekeenez, iaz leporaino bete zen frontoia.



ARGAZKIAK: ESTEBAN AROTZENA

### Zaharren Eguna giro ederrean

Egun ederra igaro zuten herriko zaharrenek beraiei eskainitako egunean. Argazkiko hauek jaso zituzten bezperan jokatutako truk eta museko txapelketetako sariak.

kas xamarra eman baitzioetan Gizarte Zerbitzuen deiarri. Dena den, ausentzia horrek ez zuen festa zapuztu, egun-pasa eta gaupasa ederra egin baitzuten bildutakoek.



### Baialtzinikin...

Arnaldo Otegi askatzeko eskatu duten 250 pertsona ezagunen artean Asier eta Aimar Olai-zola daudela?



UTZITAKO ARGAZKIA

### Badira nonbait onttoak...

Ontto denboraldia ez da oparogea izan aurten, baina Anderrek kolpe polita eman zuen orain egun batzuk.

OSPAKIZUNAK → BALORAZIO ONA

## Ederki jantziak gelditu dira San Martin festak

Ohitura zaharra ezagutarazi du Anttoniok kanpaiak joz

### Ainhoa ANSA

Goizean prestakuntzekin hasi eta arratsaldean ere bazen zeregina. Kanpandorreko argiak lehenago jarriak zuden eta kanpaiak jotzeko ordua baino lehen, Anttonio Exkerra ere kanpandorrean agertu zen.

Kamarak piztu eta Anttoniok kanpandorreko bi kanpaien sokak bere tokian jartzeari ekin zion. Bitartean jendea hurbiltzen joan zen eta plaza atarian irakurri zuen Mainerrek aurretik prestatua zuen testua: «Aranoko elizan 2 kanpana dia, bat larriya -dan- ta bestia

agudoagoa edo bizigua -din-. Geo izan bihar zun beste bat eliza sartu aurretik sakristitik apezak o monagiluk jotzen zuena. Hura polea batekin eoten omen zen ta nahi zen haina denbuan bueltata erailtzen omen zen, *dindin dindin dindin...* Guk lehenbiziko biyekin ingo gu joaldiya».

Anttoniok garai batean ikasi bezala jo zituen, Mainerrek azaldu ahala, argiezkila, angelusa, amaiez kila eta keda, jai bezperako joaldiak, meza aurretik jotzen zirenak... eta hortik aurrera joarazi zizkionak hauek izan ziren: nonbait ezustean sua pizten zenean jotzen zirenak, udan harria botatzeko arriskua zenean *konjuo arekin* batera jotzen zirenak, nonbait hiltzen zeneakoak eta



ARGAZKIAK: MAIDER ANSA

Anttonioren kanpai saioak eta talo jateak jende asko bildu zuen, baita kantaldiak ere.

festaren bat zenean jotzen zirenak.

Anttonio gustura aritu zen eta herriko jendeak gogora ekarri zituen garai haiek. Joaldi hauek zergatia ezagutzen ez zutenak ere ikasteko aukera izan zuen eta festa polita izan zen.

Gero Ganbaran izan zen *Piano bat Bertsotan* en kantaldira ere jende asko igo zen. Giro oso polita sortu zen eta Xabier Legarretak egindako Aranori buruzko bertso berriak ere kantatu eta entzun ahal izan zi-


ren. *Piano bat Bertsotan* eko kideek esan bezala, elkarrekin egin beharreko azken saioa izan zen eta eskerrak eman nahi izan zizkieten gerturatutakoei erakutsitako harrengatik. Haurrak ere kantariak datoz Aranoren eta pozteko berria da hori!

Talo eta gaztain jatera ere jende asko hurbildu zen eta prestaketan ere gero eta jende gehiago aritu zela nabarmendu zuten antolatzaileek. Deneren laguntzarekin, San Martinak ederki jantziak gelditu ziren, beraz.

### Gazteak Goizuetan

Bazkaltzera bestetara ezin izan ziren ailegatu, izan ere, San Martin egunaren prestaketetan burubelarri aritu behar izan zuten goizetik, baina Aranotik gazte koadrila bat joan zen Goizuetara, eskualdeko gazteekin elkartu eta festa giroan parte hartzera.

Hurrengo urteetan antola daitezkeen gazteen topaguneak bultzatzeko eta animoak bidaltzeko erabili nahi genituzke hitz hauek Aranotik.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

## armadenda

# andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
c.andueza@euskalnet.net

## LEITZA

GIZARTEA → AZAROAREN 27TIK ABENDUAREN 5ERA

# Nafarroaren Egunaren harira hainbat ekimen antolatu dira

Erakusketa,  
hitzaldiak eta  
kantaldia  
izanen dira

## TIPI-TTAPA

Nafarroari eskainitako ekitaldiak izanen dira egun hauetan herrian Udalaren eta ALKEren ekimenez. Alde batetik, *Nafarroa, euskal estatua* erakusketa ikusteko aukera izanen da Batzar Aretoan larunbat honetatik abenduaren 5era.

Hilaren 29an, berriz, *Nafarroako zatiketaren hasiera 1200, Gipuzkoaren jatorria* DVDaren emanaldia eta solasaldia izanen dira Beñi Agirerekin, 19:30ean. Abenduaren 1ean, 19:30ean, *Euskal Herriaren independentziaren bideragarritasunaz* solasaldia eskainiko du Oskar Aranzabalek. Eta abenduaren 3an, Nafarroaren Eguna dela-eta, kantaldia izanen da Jeiki abesbatzaren eskutik.

## Lizarraga kalea kamioientzat itxita

Kiroldegitik Patxi Arrazolara doan Lizarraga kalea debekatua dago kamioientzat. EAren bidez ailegatu zen udalbatzara proposamena, bere hitzetan, «zenbait auzotar ibilgailu hauen presentziaz kexatu» zirelako». Udalak onartu egin du EAren proposamena, baina Xabier Zabalo alkateak esan digunez, «Ezker Abertzalearen iritziz,

ez auzotarrak kexatu direlako, baizik eta eskola, osasun etxea eta kirol instalazioak bertan daudenez, umeak lasaigo ibiltzeko». Ezker Abertzalea, EA eta UPNren aldeko botoekin hartu da erabakia.

## Informazio puntuak

Leitzalarrean eta plazako garai bateko harategian informazio puntuak eraikitzen ari da Udala. Leitzalarrean, Ixkibarko berendulekutik abiatzen den bidea hartuta egin den harrizko gunean paratu dira informazio panelak, baita Irusoko ostatu ondoan, Lapurgaltzadan eta Ixkibarko berendulekuan ere. Bost panel jarri dira eta alkateak iragarri digunez, «abenduaren 1etik aurrera erabilgarri» egonen da. Gobernuak %75 emanen du 130.000 euroko inbertsiorako. *Zuk aukeratu, zuk erabaki* kanpainatik 10.000 euro lortu dira.

Plazako harategian, udan hasi ziren auzolanean eta Udalaren nahia Aste Santuetarako zabaltzea da. Teilatua moldatu, barrukoa hustu eta bertako harria garbitu dira, eta lerro hauek idazterakoan zarpeatzen ari ziren. «Barruan jarri beharreko informazioa aspalditik lantzen ari direla» gaineratu digu Zabalok.

## Ginekologia zerbitzua eskatuz

Hiru urte daramatzate Leitza eta inguruko



ARGAZKIA: SAGRARIO LASARTE

## 35 guraso Oialde Txokon eskua botatzeko prest

Aurten hirugarren urtez, azaroaren 6an ireki zituen atea Oialde Txokok, 12-16 urteko gazteei elkartzeko toki bat eskaini eta euren adinerako egokiak diren ekintzak bultzatzeko helburuarekin. Horretarako, noski, gurasoen laguntza behar izaten da eta Oialde Txokoren funtzionamendurako txandak antolatzeko egindako laguntza deialdiak erantzun ona izan du, 35 gurasok eman baitute izena. Gainera, ikasturte honetan ez da monitorerik izanen. Larunbat, igande eta jaiegunetan egoten da zabalik -16:30-18:30 seigarren mailako eta DBH 1.ekoak eta 18:30-20:00 DBH 2., 3. eta 4. mailakoak-. Guraso Katolikoen Elkarrekin Oialde Txokok erabiltzen duen lokala uzteaz gain, argia eta berogailua ere ordaintzen ditu eta Nafarroako Kutxaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* programan jasotako dirua erabiltzen da materialen gastuak estaltzeko. Lerro hauen bidez, gazteei joateko gonbitea luzatu diete.



ARGAZKIA: MENDIBIL MENDI TALDEA

## Mendiz mendi paraje ederrak ezagutz

Mendiz mendi, han eta hemen ateraldiak eginez segitzen du Mendibil Mendi Taldeak. Azaroaren 6an, esaterako, Bardeetara joan zen argazkian ageri den zortzikotea. Punta de la Estroza (462 metro) gainean ateratakooa da irudia. Hasieran laino itxia izan bazuten ere, mendizaleek esan digutenez, 11:00etatik aurrera eguzkipean ibili ziren: «zoragarria eta bertan oso gutxitan ikus daitezkeen errekatxoak ikusi genituen», baita bederatzi basurde hamar metrora eta 20 bat putre parez pare ere.

udalek ginekologia zerbitzua eskualdera ekar dezaten eskatuz. Tarte horretan, gestioak ere egin dira, baina «Gobernuak arazo hau kontuan ez hartzeko eduki duen axolagabekeriaren aurrean», Ezker Abertzaleko Aina Gastearna Erregereña eta Maria Azpiroz Hermandorenak Arartekoaren aurrean eskualdeko emakumeen egoera salatu dute berriki.

## Telebisten auzia

Telebista kateak ikusteko dauden zailtasunak direla-eta, Udalaren hitzetan, «bereziki azkenaldian» ugaritzen ari dira herritarren kexak, «herriko pilotariak ageri diren txapelketen emisioak jasotzeko ezintasunagatik». Horren harira, Ezker Abertzaleko eta EAko zinegotziek «behingoz telebista kateen saltza bilatera eta konpon dezan»

eskatu diote Gobernuari. Eta «ETB osotasunean eta bide egokietatik jasotzeko herritarrok dugun hizkuntz eskubidea» ere aldarrikatu dute.



HEZKUNTZA → GURASOEN ERABAKIZ

## Nazabal Aresoko Eskola da ikastetxearen izen berria

Guraso  
Elkarteak  
zuzendaritza  
berritu du

**Juana Mari SAIZAR**

Eskolako guraso guztien artean eskolari izena aldatu diote. Hemendik aurrera Nazabal Aresoko Eskola izango da eta logo propioa izango du, hau ere gurasoen artean hautatua.

Aipatu, bestalde, Eguberriak gainean ditugula jakinik, herrian jartzen den Jaiotzarako txapakumezko irudi berriak egiten ere hasi direla gurasoak, eta gerago umeen laguntzaz margotuko dituzte.

**GURASO ELKARTEKO  
ZUZENDARITZA**

Beste bi urtetarako Guraso Elkarteko zuzendaritza berritu da. Bozketen bidez erabaki da eta berrikuntzen artean, zuzendaria Ester Tolosa izango da, eta Amaia Agirrezabal idazkaria. Igone Goikoetxeak diruzain karguan jarraituko du.

Eskola kontseiluko bi kide berdinketarekin geratu dira, Estitxu Marzol eta Carmen Rezola. Biak joango dira bilere-tara baina batek soilik izango du boto eskubidea.

**Euskararen Eguna**

Abenduaren 3an egiten den Euskararen



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

### Eskola orduetan kirol anitzetako eremuan ibiltzea debekatua

Eskolako atzeko aldean plaka berria jarri dute, eta honen arabera eskola orduetan ezingo da kirol anitzetako eremuan ibili.

Eguna martxan da berriro ere. Baina aurtengoan Guraso Elkartek Udalarri laguntza eskatu dio goizeko ekitaldiak bere gain hartzeko. Gisa honetara, arratsaldekoak gurasoen gain geratuko lirateke.

Egun horretan egin-go diren ekitaldien artean, arratsaldeko antzerkia dago. Zurrumurrutaldea *Pantxika* eta

*Txinparta, ederra zala-parta* emanaldia eskainiko du 17:00etan eskolan. Kultur Elejiraren barne dago.

**EKITALDIA GEHIAGO**

Euskarabideak antolatzen duen Euskarazko zinema zikloaren barne, abenduaren 8an, *Ponyo amildegian* neska-mutikoentzako filma ikusgai izanen da esko-

lan. 18:00etan hasiko da emanaldia.

**Mendiak garbitzeko oharra**

Usoa Ehiztari Elkar-teak bandoa zabaldu du epea motzean mendia garbitu behar dela adieraziz. Ahalik eta txukun-uztea garrantzitsua izango da, errebisioa pasako baitute.



**ELGORRIAGA**  
BALNEARIO - BAINUETXE



**IGERILEKU TERMALEAN ERLAXAZIO ZIRKUITUA  
eta BAZKARIA EDO AFARIA**

**28€ pertsonako** asteburuetan | **25€ pertsonako** astegunetan

Eskaintzaren azken eguna: abenduak 15



Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) T. 948 45 60 45 [www.balnearioelgorriaga.com](http://www.balnearioelgorriaga.com)

# BAZTAN

HEZKUNTZA → NAFARROAKO GOBERNUAREN SARIAK

## Hezkuntza saria lortu dute Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdiko eskola ttikiek

Astearte honetan hartzekoa dute saria

### M. OTEIZA/TTIPI-TTAPA

Urdazubi-Zugarra-murdi eta Baztango Herrietako Eskolek sari berria eskuratu dute: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak aurreko lehendabiziko aldiz antolatutako dituen Nafarroako Hezkuntza Sarietako bat, hain zuzen. Hezkuntza mailan egindako lanetatik Nafarroako 14 ikasle, irakasle eta zuzendari eta sei ikastetxe saritu ditu Hezkuntza Sailak eta hondarreko atal horretan, gure eskualdean elkarrekin lan egiten duten 11 ikastetxeren funtzionamendua eta gizarte mailan duten inplikazioa saritu nahi izan di-

tu. Bertzeak bertze, Kazeta proiektua eta ikastetxeko bertze hainbat ekimen azpimarratu dituzte saria ematerako orduan. Eneko Fernandez ikastetxeetak koordinatzaileak adierazi duenez, «arras kontent daude» eta «Administrazioaren aldetik franko atzen duak dauden landa eremuko eskolek beren burua aldarrikatzeko balio-garria izan daiteke»

Astearte honetan, azaroak 23, hartzekoa zuten saria Iruñean.

### Metaziriren 14. alea kalean da

Kalean da Metaziri aldizkariaren ale berria, 14. a dagoeneko. Ale honetan landu diren gaiak hauek dira: *Aurrean biderik ez da, norberak egin ez bada* (Karlos Beristain Bereau); *Baztango (azpi)egitura politika*



UTZITAKO ARGAZKIA

### Denboraldiko Nafarroako bigarren eta hirugarren txapelaren bila

Amaiur taldeak nagusitasunez ekin dio Nafarroako sokatira denboraldiari, 630 kiloko kategorian Nafarroako txapela lortuta, hain zuzen. Bigarren jardunaldian, adibidez, nahiz eta Berriozarko mutilak arerio gogorrak izan, tiraldi guztiak irabazi zituzten amaiurtarrek. Bi jardunaldiren ondotik, sailkapen orokorrean, Berriozar izan zen bigarren, Basaburua-Imotz hirugarren eta Txantrea laugarren. 630 kilokoaren ondotik, orain 590 kilokoan ari da mutilen taldea. Kategoria honetan ere lehendabiziko jardunaldian nagusitu egin zen Amaiur eta larunbatean, hilak 27, Zugarramurdin jokatu den bigarren saioan erabakiko da txapela. Amaiurko neskek ere lan ederra egiten ari dira. 375 kiloko kategorian, lehen eta bigarren jardunaldian irabazi egin zuten, baina larunbatean Zugarramurdin argituko da txapela nork eramanen duen. Basaburua-Imotz eta Berriozar ditu arerioak.

(Kaparra); *Dantxarinea bentei buruzko elkarriketa Marifa Irazokiri*; *Baztango populazio ospatuaren egiturari buruzko hausnarketa*; *Tradizioaren menpeko* (Garbiñe Elizegi Narbarre); *Nafarrera batuarekin josiz* (Maitane Maritoren Azkarate); *Zerbitzu sozial publikoen aldeko solasaldiaren kronika*; *Lur(ra) hartu* (Aitor Azkarate Tomassone), eta *laburki eta piro beltza bezalako sailak*.

Toki hauetan eros daiteke: Arizkungo Dolatxean; Erratzuko Altxuko dendan eta Zubipuntan eta Elizondoko Axular, Intza eta Baztan Berriko goxoki-dendan.

### Adinekoa larri zauritua Elizondon

82 urteko emakumea larri zauritu zen hilaren 16an Elizondoko zeharbidean auto batek harrapatuta. Ezker hankako tibia eta peronea hautsi

zuten eta sabelaldea eta bularraldea kolpatu. Ospitalera eraman zuten.

### Izeta Sariketa

Bi urtetik behin egiten den Mariano Izeta Sariketaren laugarren edizioa abenduaren 8an egingen da Elizondon. Nafarroako 13 bertsolari ariko dira lehian, eta tartean bi baztandar: Amaia Elizagoien (Ornoz) eta Iñaki Aleman (Iruñita). Xehetasunak 5. orrialdean.





**BERTSOLARITZA** → LAUGARREN EDIZIOA

# Hurrengo legealdian alkatea izateko lanean ari dira Elbeten

**Batzar Nagusietan ordezkaririk gabe daude**

**TTIPI-TTAPA**

Elbeteko bizilagunek lan-taldea osatu dute eta, Baztango gainerako herrietan bezala, abenduan egingen diren herrietako alkateak eta kargodunak aukeratzeko hautakundeetan hautagaitzaren bat aurkeztea izanen dute helburu. Izan ere, azkeneko bi legealditan ez dute alkaterik izan Elbeten, beraz, lau urte daramazkete Batzar Nagusietan ordezkaririk izan gabe.

Joan den asteburuan biltzekoa zen Elbeteko lan taldea eta bertatik zozketa bidez aukeratzekoazuten 2011-2012 urteetan alkate izateko hautagaia. Bertze zenbait erabaki ere hartu dituzte elbetearrek. Bertzeak bertze, etxez etxe ur-kontadoreak hartzea eta mantenimendua zenbat kostako litzakeen jakiteko estudioa enkargatuko dute, kontsumo arduratsuagoa lortzeko.

**Urteko azken mendi ateraldiak**

Urte osoan Euskal Herriko hainbat bazterretan ibili ondotik, urteko azken ateraldiak egingen dituzte Baztango Mendigoizaleek asteburu honetan eta abenduan. Igande honetan, azaroak 28, Erdiz Bizirik irteera egingen dute; abenduaren 5ean Irubelasko-



ARGAZKIAK: ONDIKOL/TESTUA: TTIPI-TTAPA-M.OTEIZA

**Greba mugagabeen segitzen dute Marmoles Baztaneko langileek**

Ornoz Mugairiko Marmoles del Baztan lantegiko zuzendaritzak kaleratu nahi dituen 17 langileen kaleratzeen kontrako ekimenekin segitzen dute langileek. Azaroaren 12an, erraterako, 300 bat lagunek parte hartu zuten Elizondoko egindako manifestazioan. Manifestazioa LABek deitua zen, sindikatu honek bakarrik baitu ordezkaritza Marmoles Baztanen, baina ELAren babesarekin ere jaso zuen eta Baztan-Bidasoaldeko zenbait ordezkaririk ere parte hartu zuten. Horrez gain, azaroaren 17an 50 bat lagun bildu ziren Elizondoko plazan langileek deituriko kontzentrazioan, eta ondotik sei langilek itxialdia egin zuten Elizondoko Herriko Etxean. Azaroaren 19an, Doneztebeko ferietan, Merkaturiko Plazan elkarretatzea ere egiteko zuten. Bertzalde, hilaren 18an akitu zen erregulazio espedientearen kontsulta epea eta egun horretan ere kontzentrazioa egin zuten langileek Lan Ikuskaritzaren aitzinean. Enpresa eta langileen ordezkariek ere bildu ziren inspektzioarekin, baina akordiorik lortu gabe gelditu ziren. Enpresak egoera ekonomiko txarra eta produkzioaren jaitsiera azpimarratu zituen kaleratzeak aurkezteko. Eta langileek espedientearen erretiratzeko eta elkarriketa bide bat irekitzeko eskatu zuten, «inolako mehatxurik gabe eskatu dugu soluzioak bilatze bidean». Akordiorik lortu ezenez, orain Nafarroako Gobernuaren eskuetan dago onartu ala ez. Bitartean langileak hilaren 10ean hasitako greba mugagabearekin segitzen dute.

ra joanen dira; abenduaren 12an Hirumugetara; 19an Legatera eta urteari behar bezalako akaberarekin, abenduaren 26an Auzara.



**PERTSONAIA**  
Agustín OTONDO

Karlos III.a Prestuaren Gurutzea eman dio Gobernuak

Nafarroako Karlos III.a Prestuaren Gurutzea Agustín Otondo Dufurrena Txileko Nafar Etxearen bazkide fundatzaileari eta lehenengo presidenteari eman dio Nafarroako Gobernuak. Nafarrek Txilen izandako agerpenari buruzko ikerketa eta zabalkunde historikorekin inguruan hainbat lan egindakoa da eta horren harira jaso du. Erratzun jaino zen 1934an eta 15 urte zituela Txilera joan zuen. Han, okindegi sektorean aritu eta industriaburu izatera iritsi zen Francisco anaiarekin. Aldi berean, higiezin enpresa bateko zuzendaria ere bada. Baina ez hori bakarrik, kontseilaria (zinegotzia) ere izana baita Santiagon, edo okindegi enpresaburu ordezkaria ere bai, Txile eta euskal kulturaren inguruko mugimenduetako kidea... Gauegun, Txileko Nafar Etxearen presidenteordea da eta Patricio Legarragarekin, bertzeak bertze, *Emigración a Chile del Valle de Baztan (Navarra) en el siglo XX* liburua idatzi du. Bertze liburua ere baditu, aunitz Baztani lotuak.

**ARMUA JATEA**  
T. 948 590 131  
www.armua.com

**MENDI ostatua**  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**MENDI ostatua**  
T. 948 453 060 - AMAIUR  
www.mendiostatua.com

## URDAZUBI

KULTURA → EUSKAL KANTU ZAHARRAK

# Dena prest dago larunbateko zazpigarren Kantu Zaharren Egunerako

Txartelak salgai paratu eta bi egunetan agortu dira

## TTIPI-TTAPA

Nafarroa Garaia, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Bizkaia, Gipuzkoa... Toki aunitzetako jendea bilduko da larunbat honetan Urdazubin. Euskal kantak abestea maitatzen dutenek urteko hitzordua Dantxarineako Peio Bentan egin baitute aurten ere, Lugarana jatetxean. Larunbat honetan, azaroak 27, egingen da aurten zazpigarren urtez segidan, Kantu Zaharren Eguna, sortze erantsundarra baina Sunbillan bizi den Angel Mariezkurrena erantsundarraren ekimenez.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Arrakasta haundiko ekimena izaten da Dantxarinean egiten den Kantu Zaharren Eguna.

## EGITARAUA

Egun osoko egitaraua antolatu du: 14:00-etan bazkaria egingen da, eta bazkalondoa kantuan ariko dira. 20:00-etan, berriz, berendufaria egingen da eta on-

dotik kantuan segituko dute 22:30 aldera bitartean.

Urtetik urtera izaten dira sorpresak jaialdi honetan, eta aurten ere hala izanen dela azaldu digu eratsundarrak. Ipar

zein Hego Euskal Herriko kantariak hurbiltzekoak dira, baina ezustekoa zein izanen den ez du argitu: «sorpresak izanen dira baina egun berean jakinen da zer diren».

## 300 TXARTEL SALDUAK

Dagoeneko agortuak dira bazkarirako txartelak. Mariezkurrenak 300 txartel paratu zituen salgai 50 eurotan, baina bizpahiru egunetan denak saldu zirela adierazi dio TTIPI-TTAPAri. Horren harira, «alde batetik, oso kontent» dagoela aipatu digu, baina bertzetik, «pena» ere ematen omen dio, jendea aukerarik gabe gelditu delako.

Joan den urtean bezala, euskal abestiek osatutako 2.500 liburuxka prestatu ditu eta guztiak banatzeko asmoa du. Iazkoak 145 kantu bazituen, aurtengoak 160 inguru edukiko ditu: «horietatik 40 bat berriak dira, tartean 12 bat mexikar daude», dio Mariezkurrenak.

## ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN  
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxa: 948 581 210

## ZUGARRAMURDI

SOKATIRA → NAFARROAKO TXAPELKETA

# Goma gaineko txapelketako azken saioa jokatu da larunbatean

Azketa frontoiak Nafarroako talde onenak hartuko ditu

### Koro eta Margari

Zugarramurdi herri bestalaria da, baina hala ere, tarteka kirol kontu batzuk ere ikusteko aukera izaten dugu. Oraingo huntan, larunbat honetan, azaroak 27, izanen da horretarako modua, 17:00etatik aitzinera: Nafarroako Sokatira Txapelketako azken jardunaldia jokatu da Azketa pilotalekuan.

Neskak 375 kiloko kategorian ari dira eta hiru herri hauek lehiatuko di-

ra: Amaiur, Berriozar eta Basaburua-Imotz. Gizonezkoak, bertzalde, 590 kiloko mailan dabilta, eta bertze hauek ari dira: Amaiur, Berriozar, Txantrea eta Basaburua-Imotz.

Gure herrian jokatu den saioa, 590 kiloko kategorian gizonezkoentzat bigarrena eta azkena izanen da, eta emakumezkoentzat, 375eko kategorian hirugarrena eta azkena.

Maila hauetan, bai emakumezkoetan eta bai gizonezkoetan ere, momentuz sailkapenean aitzinetik doazenak Amaiurko taldeak dira. Mutiletan 630 kiloko txapelketa irabazi duena ere Amaiur izan da.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

### 400. urteurreneko ekitaldiak ezin hobeki

Arras modu interesgarri eta hunkigarri finitu ziren 400. urteurreneko ekitaldiak. Interesgarria: herritarrei egiaz gertatutakoak jakin genituelako; eta hunkigarria: argia, musika eta dantzarekin behar zuten oroimena eta ohorea eskaini genielako. Egitarauaren barne, Gustav Heningsen ikertzaile haundiari omenaldia ere egin zitzaion larunbat goizean.



### Eskolak sarituak

Gure herrietako eskola ttikiak kontuak aipatzen ditugarrik, maiz arazo kontuak izaten dira: haur gutti, irakasleen dantza, eta halakoak. Baina oraingo huntan juxtu kontrakoa gertatu da, arras berri ona baita: Nafarroako Gorbenuko Hezkuntza Departamentuak Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango Eskola Ttikiak saritu ditu. Azken 20 urteetan eskola hauek arteko koordinazioaren ibilbidea saritu dute, eta egindako hainbat proiektu ere bai. Beraz, zorionak lan egin duten eta egiten ari diren guztiei, eta segi bide horretatik, gure etorkizunaren alde (haur eta gaztetxoak).

**1951tik**  
**Casa Cambra**  
**lentzeria-etxea**

edredoi fundak  
albornozak  
edredoi nordikoak  
ohe estalkiak  
mantelak  
kaxinak  
toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA  
948 230 634

Edredoi fundak eta nordikoetan espezializatuak

## SENPERE

KULTURA → OMENALDIA IGANDE HONETAN

# Amets Arzallus xapeldunak kantatuko du Matxin Irabolaren omenaldian

Colina, Mihura eta *Xalbador II.a* ere ariko dira bertsutan

**Franck DOLOSOR**

Matxin Irabola bertsulari haundiaren omenaldia ospatuko da hazilaren 28an, igandearekin Larraldean baserrian. Irabolaren biografiaren aurkezpenaren ondotik, 18:30ean bertsu saioa izanen da eta hantxe entzuten ahalko dira Amets Arzallus, Sustrai Colina, Fermin Mihura eta Mixel Aire *Xalbador II.a*. Joana Itzaina Bertsularien Lagunak elkarte buruak

proposatuko ditu gaiak. Omenaldi horren karietarat, bi belaunaldi lotu nahi dira: bertsularitzan dabilzan gazteak eta due-la urte batzuk besta guzietan bertsuak entzuten zituzten senperrak. Iparraldeko bigarren xapelketaren ondotik, bertsu giroa piztu nahi da herriz herri eta lehen hitzordua Larraldean izanen da, Bertsularien Lagunak eta euskal elkarte andanak duten egoitzan.

**EKHI ZORTZIGARRENA**

Berriki ospatu den Xilaba bertsu xapelketako finalean, Ekhi Erremundegi baionesa –Senperen erroak dituen– zortziga-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

### Saltzaileen eguna Inharrean

Hazilaren 11n Jondoni Martine eguna besta da Senperen bi arrazoinentzat: Gerla Haundiko armistizio eguna eta saltzaileen eguna. Aurten, bigarren ekitaldia ospatu dute herriko 27 saltzaile bilduz. Artxelua kantari gazte taldeak aperitifa denbora alaitu zuen eta gero 150 lagun bildu zituen bazkari ondotik egin zen lehen moda desfileak. Herriko elkarteeko ordezkariak desfilea egin zuten Koko't Karrika Nagusiko jantzi saltegi berriko beztitzeoak erakusteko. Gaitzeko giroa sortu zen.

rren sailkatu zen. Azken hilabeteetan guti kantatu eta finalerat arratsalde goxoa pasatzerat joan zela aitortu zuen eta preseski esku zarta zaparrada batekin agertu zen taula gainerat. Aipagarria, finalean hastapenean txalotxalen eskuratu zuen bertsularia izan zela. Bere aldeko ikurrak ere agertu ziren Donibane Lohizuneko Jai-Alai pilotalekuan. Biba zu Ekhi eta laster arte, agian Senpereko bertsu saio batean!

### Prefeta Herriko Exearen kontra

Hazil hondar huntan jakinen da justiziak zer deliberatuko duen Herriko Etxeak Euskal Herriko Laborantza Ganbara elkarteari eman dion dirulaguntzaren gain. Prefetatek du batere begionez ikusten gure hautetsiek diruz laguntzea elkartea eta auzitan eman du herria. Maiatzean salaketa eman zuen prefetatek baina justiziak arrazoin eman zion herriari. Berehala,

prefetatek errekurtsioa presentatu zuen, bere ustez, elkarte horrek ez diolarik deusekartzeko herriari zuzenean. Herriko Etxeko abokatak dio herriko laborariekin egiten diren proiektu jakinak laguntzeko eman zela laguntza: bio saila, eguzki lorearekin erregaia egiteko...

Ez da lehen aldian prefetatek auzitan ematen due-la herria. Bere aldetik Christine Bessonart auzapezak dio EHLG laguntzen segituko dutela.

## KULTURA

BERTSULARITZA → XIBERUA, LAPURDI ETA BAXENABARREKO BERTSULARI XAPELKETA

# Amets Arzallus berriz xapeldun

Odei Barrosorekin jokatu du buruz burukoa

**TIPI-TTAPA**

Donibane Lohizuneko Jai-Alai pilotalekua beteta zegoela, 1.900 lagun aitzinean jantzi zuen

azaroaren 13an Amets Arzallus hendaiarrak 2010eko Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko txapela. 660 puntu lortu zituen eta Mixel Itzaina Euskaltzain urgazleak parta zion txapela.

Odei Barroso urruñarrekin jokatu zuen buruz burukoa, baina Barrosoren lana ere azpima-

rratzekoa izan zen lan bikaina egin eta 607 puntu lortu baitzituen. Hirugarren Sustrai Colina gelditu zen (386 puntu) eta ondotik, hurrenez hurren, Joanes Etxebarria (347,5 puntu), Eneritz Zabaleta (344,5), Xumai Murua (338), Miren Artetxe (329,5) eta Ekhi Erremundegi (320) sailkatu ziren.



Amets Arzallus txapela soinean.

ARGAZKIA: WWW.XILABA.NET

GIZARTEA → URRITASUNA DUTENEN ALDE

## Telethon ekimenak abenduko lehen asteburuan izanen du segida

Larunbatean Larrunera trenez upatu eta oinez jautsiko dira

Joanes GARCIA

Urritasunak dituztenei laguntzeko ekimenek ez dute etenik. Hazilaren 14an, erraterako, Turismo Bulegoak eta AFM elkarteek Christian Amorenaren laguntzarekin, kontzertu bat antolatuzuten Omordia gelan. 90 bat lagun hurbildu ziren Joan Garriga (Dusmin-guet ohia) artista kataluniarrek zuzentzen duen La Troba Kung-fu taldea ikusterat. Bertaratu zirenak cumbia edo rumba bezalako doinuez asetu ziren. Bildu zen diru guzia AFM Telethon elkar-tearen alde izan da.

Elkarte honen alde beste ekintza batzuk ere antolatuko dira. Abenduaren 3ko arratsaldean hiru eskoletako haurrekin euskal jokoak egingen dira errebotean. Eta bihar-munean, 14:30ean Larrunera upatzea egingen da treinez eta 15:30ean oinez jautsi. 17:00etan Krakada izanen da Pullman ostatuan.

### Kotto beti gogoan

Jada bortz urte pasatu dira Kotto joan denetik eta horren harira, lagun eta senideek zombait ekitaldi antolatu zituzten haren oroimenez. Urriaren 31n mendirteera egin zen Hirufagoetara eta hazilaren 7an, ateraldia egin zen Kottok aunitz maite zuten Otsandako Labiaga aterpera.



ARGAZKIA: TURISMO BULEGOA

La Troba Kung-fu taldearen kontzertuan bildutako dirua Telethonaren alde izanen da.

## Santa Katalinen kari, besta eguna izanen da astehondarrean lhalarren

Urtero bezala Santa Katalinen kari, lhalar au-zoan besta giroa biziko da. Hazilaren 27an, larunbatsean, tripotx jatea izanen da Baratzarte-an.

Biharramun goizean, 10:30ean, Santa Katalina kaperan meza emanen da. Ondotik mutxi-

koak dantzatu eta tripotxak dastatzeko parada izanen da Baratzarte-an.

### EKITALDI GEHIAGO

San Josepe eskolak Aita Noël edo Bizarxuri merkatua antolatu du larunbaterako, hazilak 27, errebotean.

Egun berean, baina es-

kola publikoak 19:00-etatik goiti mus eta pokers txapelketak antolatu ditu. Bertan jatekoa eta edatekoa izanen da. Parte-hartzea 10 eurokoa izanen da bikoteko. Izen-emaiteak hazilaren 24a aitzin egin behar dira 063 1215792ra deituz.

Eguna borobiltzeko 100 bat lagun lhartzegarria bildu ziren bazkaltzeko.

### Kontseiluko berriak

Herriko Kontseiluaren azken bileran bi erabaki dira nabarmentzekoak: batetik, Larrungo mazelak zaintzeko, 70.000 euroko traktore katedun bat erosi da Azkaingo Herriko Etxearekin.

Bertzetik, egoitza Aimize Monjolosen duen Euskal Herriko Laborantza Ganbarari 2000 euro eskaintzea erabakida.

**MONTXO OSTATUA**  
Dantxarinetatik 2 km-tara  
**ТАВԱԿՈ-ԸՆԴՈՒ ԱՆՅԱՆ-ԲՈՐԴԱ • ՎՐԴԱԶՎԻ**  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

## FLASH

### Kirol kontuak PASAKA

Sarako Izarrak lau bikote aurkeztu ditu. *Ohorezko mailan*, Jean Jacques Eliceiry eta Andoni Allik Hardoy-tarren eta Zaharrer Segi baigorriarren kontra galdu dute 13-4 eta 13-1. Aldiz, Zaharrer Segi 3ren kontra 13-12 irabazi.

**Bigarren mailan**, berriz, aitzineko urtean partida bat soilik irabazi baldin bazuten, aurtengo txapelketari bikain ekin diote Patrick Sasaki eta Mathieu Berrouetek. Lehen partidatan Zaharrer Segi-koak 13-12 gailendu dituzte Plekan eta bestean Hiriburuko Ainharrak-ei 13-9 irabazi. Prestakuntza fisiko garrantzitsu baten ondorioa segur aski.

Beste bi bikoteak B multzoan dira eta lehen partidatik bata bestearen kontra aritu dira. Francois Pouyet eta Nicolas Peryk Patxi Barandiaran eta Bixente Blondiri 13-4 irabazi diete. Azken horiek bigarrena ere galdu dute 13-10 Noiz-baiten aurka.

### ERRUGBIA

Errugbiari dagokionean, sasoi hastapena zaila izan bada, Basurdeak iratzarri dira bi garaipen lortuz. Lehen Zibururen kontra 31-5 partida on baten ostean eta bigarrena Narrossen 14-9 (erre-serbak 13-0 galdu zuten).

HERRIKO ETXEN  
EDXNTEGIX  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0559542519  
Mariano eta Warrapue  
**SARA**

# TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



**DESKONTUAK**  
**ZOKKETAK**  
**ALDIZKARIA**  
**MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

## ZOKKETAK

ttipi txarteldun guztien artean  
zokketatuko dira sari hauek



**KAMISETA 1  
ONDDO  
TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



**JERTSE 1  
ONIN ART**

[www.oninart.com](http://www.oninart.com)



**LIBURUAK  
IKASTOLEN  
ELKARTEA**

[www.ikastola.net](http://www.ikastola.net)



**HERIOTZARAKO  
JANTZITA  
LIBURUA  
EREIN**

[www.erein.com](http://www.erein.com)



**RUPER ORDORIKA  
MUSIKA CDa  
ELKAR**

[www.elkar.com](http://www.elkar.com)



**LIBURUAK  
IBAIZABAL**

[www.ibaizabal](http://www.ibaizabal)

## DESKONTUAK



## EZKONTZAK

**Jon Ustaritz Rodriguez** eta **M<sup>a</sup> Pilar Bertiz Mallotte**, Irungoa eta Donostiakoa, azaroaren 6an Lesakan.  
**Jabier Telletxea Erasun** eta **Intza Elizalde Aiestaran**, Beintza-Labaiengoa eta Iturengoa, urriaren 16an Donezteben.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Alaitz Ibarra Bereau**, Arantzakoa, azaroaren 17an.  
**Mikel Barberena Opoka**, Elizondokoa, urriaren 6an.  
**Lander Ezkurdi Gonzalez**, Leitzakoa, urriaren 25ean.  
**Oier Arruabarrena Irurtzun**, Lesakakoa, urriaren 26an.  
**Martxel Urroz Torrescillas**, Legasakoa, azaroaren 7an.  
**June Juanena Larraza**, Doneztebekoa, urriaren 25ean.  
**Mikel Arretxea Tumas**, Doneztebekoa, urriaren 27an.  
**Nahia Elizondo Hoyo**, Doneztebekoa, urriaren 31n.  
**Izadi Erasun Ortuoste**, Doneztebekoa, azaroaren 6an.  
**Onintza Garraus Bernabeu**, Iturengoa, azaroaren 7an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Periko Berruet Tomasena**, Zugarramurdikoa, azaroaren 8an, 67 urte.  
**Michelle Larria**, Sarakoa, urriaren 24an, 87 urte.  
**Dionisio Arotzarena**, Sarakoa, azaroaren 4an, 82 urte  
**Marcel Telletxea**, Sarakoa, azaroaren 10ean, 81 urte.  
**Rosa M<sup>a</sup> Martinez Albiasu**, Doneztebekoa, azaroaren 3an, 61 urte.  
**Miguel Cordoba Lizasoain**, Elizondokoa, azaroaren 9an, 87 urte.  
**Matias Telletxea Zozaia**, Etxalarkoa, azaroaren 7an, 83 urte.  
**Begoña Iturriria Andueza**, Almandozkoa, azaroaren 5ean, 77 urte.  
**Sergio Iribarren Mutuberria**, Eltzaburukoa, azaroaren 10ean, 33 urte.  
**Maria Zabaleta Goldarazena**, Leitzakoa, azaroaren 11n, 99 urte.  
**Hilario Sagastibeltza Zabaleta**, Leitzakoa, azaroaren 12an, 81 urte.  
**Juan Jose Dendarieta Urrutia**, Erratzukoa, azaroaren 12an, 82 urte.  
**Eduardo Zabala Telletxea**, Leitzakoa, azaroaren 13an, 79 urte.  
**Joakin Sukilbide Salaburu**, Erratzukoa, azaroaren 15ean.



### Victoria HITA ARGE 'Bittori'

Alejandro Jaunikotena Torresen alarguna

**VI. URTEURRENA**  
Gancunen (Mexiko) hil zen, 2004ko azaroaren 27an

*Ez agurrik, ez adiorik  
gero arte baizik.  
Gure bihotzetan betiko  
maite zaitugu amatxi.  
Gogoan zaitugu.*

**ZURE FAMILIA**



### Matias TELLETXEA ZOZAIA

Etxalarren hil zen, azaroaren 7an, 83 urte zituela

*Gure oroimenean  
izanen zara betiko.  
Ez agurrik, ez adiorik,  
geroarte baizik.*

**ZURE FAMILIA**



### Inaxio BALEZTENA MONACO

Iruñean, 2009ko abenduaren 12an  
**I. URTEURRENA**

*Gure gau ilunak  
argituko dituen izarra,  
buruan bueltaka dabilen  
irriaren oihartzunaren islada.  
Zu gure bihotzean  
beti altxatuko dugun  
Inaxio maitea zara.*

**AMA, ANAI-ARREBAK ETA ILOBAK**

PILOTA → 18 URTEREKIN PROFESIONALETARA

# Jon Jaunarenak abenduaren 29an debutatuko du Asperekin

Hiru urterako kontratua egin dio Aspe pilota enpresak

## TIPI-TTAPA | LEITZA

18 urte dituen Jon Jaunarena (1992/03/02) leitzarra fitxatu berria du Aspe hiru urterako. Dagoeneko profesionale-tako lehen partidarako hitzordua ere finkatu dute: Leitzako aurrelariak abenduaren 29an, asteazkenarekin, debutatuko du Tolosako Beotibar pilotalekuan.

Duela bizpahiru urte bota zion begia Aspe Jaunarenari. Leitzarrak 15 urte zituela, hiru urtez Eibarko enpresare-

kin entrenatzeko kontratua sinatu zuen. Jabi Perez eta Justo Lillo-rekin hasi ziren lanean lehenbizi eta entrenamenduak etorri ziren gero. Hiru urteko saioen ondotik, Aspeko pilotaria da orain. Eta aldi berean, momentu hone-tan profesionaletan ari diren hirugarren pilotari leitzarra izanen da, Barriola (Aspe) eta Bengoetxearekin (Asegarcé) batera.

Gaztea izanagatik, palmeres ederra du atzetik Jaunarenak, hainbat txapel eskuratu baititu pilotan daramatzan urteotan, bana-ka zein bikoteka, eta frontoi osoan zein lau t'erdian.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jon Jaunarena leitzarrak 18 urte baino ez ditu eta etorkizun handiko pilotaria izan daiteke.

TXINGAK → ABENDUAREN 5EAN

# Euskal Herriko Gizonezkoen Txapelketako finala Goizuetan

Nafarroako II. mailako aizkolarien finala ere jokatu da

## TIPI-TTAPA | GOIZUETA

Herri kirol jaialdi ederra prestatu dute Goizuetan abenduaren 5erako. 12:00etan hasita, alde batetik, Euskal Herriko Gizonezkoen

Txinga Txapelketa jokatu da. 7-8 kirolari ariko dira lehiari: **Migel Angel Sukuntza (Leitza)**, Simon Tomas Callaghan (Nafarroa), Imanol Martin (Nafarroa), Jesus Domingo Larrazabal (Araba), Andoni Zubiaurre (Gipuzkoa), Beñat Arriola (Bizkaia), Juan Jose Agirregabiria (Gipuzkoa) eta oraindik zalantzan dagoen Oskar Perez (Bizkaia).



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sukuntza leitzarra izanen da eskualdeko txingalari bakarra.

Nafarroako bigarren mailako finala ere egun berean jokatu da. Aitzineko alean aipatu bezala, Julen Kañameres (Berriozar), Ruben Sara-

legi (Iruñea), Aitor Senosiain (Olague), Juan Jose Erdozia (Etxarri Arantz) eta **Xabier Midegia (Beintza-Labaian)** ariko dira lehiari.

## PILOTA

Malerrekako binakako txapelketan izena emateko epea zabailk

## TIPI-TTAPA

Hilaren 30ean akituko da Malerrekako Eskuz Binakako Pilota Txapelketan izena emateko epea. IX. edizioa izanen da aurtengoa eta benjamin (1.maila), alebin (1.maila), infantil (1.maila), kadete (1.maila), jubenil (1.maila), 22 urtez behetiko eta elite mailako seniorrei egonen da zuzendua. Kategoria guztietan lehiaketa irekia izanen da, seniorretan izan ezik, kasu honetan gonbidatuta etorriko direlaokoz pilotariak. Izena emateko bi aukera daude: *salaae@gmail.com*-era edo faxez 948 450991 zenbakira idatzita. Izena ematean, telefonoa edo fax zenbakia eta helbide elektronikoa utzi beharko dira. Txapelketa urtarri erdialdean hasi da eta otsailko azken astean edo martxo lehendabizikoan bukatuko da. Igande goizez egingen dira partidak Doneztebe (senior eta jubenilenak), Legasa (benjaminenak), Lesaka (kadeteenak), Irurita (alebinenak) eta Berako (infantil eta 22 urtez azpikoenak) frontoietan. Arratsaldetan ere jokatu dira batzuk, eta horiek Doneztebe eta Berako pilotalekuan egingen dira. Kanporaketa moduko txapelketa izanen da eta federazioko lizentzia eguneratua edukitzea ezinbertzekoa da.



FUTBOLA → INAUGURAZIO EKITALDIAK

# Lesaka eta Berako futbol zelaietan egindako lanak inauguratu dituzte

Mastegin aldagela berriak egin dira eta Matzadan argiteria paratu

TTIPI-TTAPA | BERA/LESACA

Bortzirietako futbol zelaietan egindako lanak inauguratu zituzten azaroaren 12an. Horretarako, Berako eta Lesakako udal ordezkariekin batera, Beti Gazte eta Gure Txokoako presidente eta zuzendaritza batzordeetako kideak eta Nafarroako eta Gipuzkoako Futbol Federazioetako ordezkariak, Jose Luis Diez eta Juan Luis Larrea presidentek izan ziren inaugurazio ekitaldian.

ALDAGELAK MASTEGIN

Lesakako Mastegin futbol-zelaiako aldagela berrien inaugurazioa ekin



UTZITAKO ARGAZKIA

Lesakako futbol-zelaiaren inaugurazio ekitaldia.

taldi hunkigarria izan zen. Izan ere, Beti Gazte elkarreko lehenbiziko bazkideak, 95 urte dituen Justo Urkijo Bizkarguenagak, egin zuen zintaren mozketa. Beti Gazteko arroparekin jantzitako Olaia lantzik eta Justoren birbilobek, Manex Larralde eta Narroa Vilalvak, zintari eutsi bitar-

tean. Zinta moztu eta aldagelak inauguratuztat eman ondotik, Nafarroako Futbol Federazioko Felix Gonzalezek origarri bat eman zion Justo Urkijori, Federazioaren korbata, hain zuzen. Salvador lantzi Beti Gazteko presidentek ere elkartearen intsignia eman zion eta eskerrak

eman zizkien, bi federazioei, Udalari eta Nafarroako Kutxari.

ARGITERIA MATZADAN

Erregionaleko Gure Txokoa eta Beti Gazte Bren arteko derbiaren atarian egin zen Matzadako argiteriaren inaugurazioa. Argi berriak irailetik erabiltzen ari dira

Beran, Gure Txokoa elkarteak, Udalak eta Gipuzkoako Futbol Federazioak sinatutako hitzarmen baten bidez. Gipuzkoako Futbol Federazioak osorik ordaindu ditu lanak, 90.000 euro inguruko inbertsioarekin, baina dirua kinielak sortzen duen irabazietatik bideratu omen da proiektu honetara. Angel Ponbar Gure Txokoako presidente gustura ageri da argiteri berriarekin, entrenamenduetarako eta partida ofizialen ordutegirako aukerazabalagoa eskaintzen duelako.

Behin bi instalazio horiek lortuta, belar artifizialan inguruko asmo berriekin dabilta bai Beti Gazte eta bai Gure Txokoa ere. Beran belar artifizialeko futbol-zelaia egiteko asmoa dute eta Lesakan, abudo 14 urte beteko dituen belar artifizialaren ordeztu, berria jartzeko.

LASTERKETA → 46. EDIZIOA

# Eskualdeko 168 lasterkarik bukatu dute Behobia-Donostia lasterketa

Horietatik 29 emakumeak dira eta 139 gizonezkoak

TTIPI-TTAPA | BEHOBIA

Euria eta hotza lagun, aurtan 46. aldiz Behobia-Donostia lasterketa ospetsua egin zen azaroaren 14an. 20.481

atletek emana zuten izena, baina azkenean 17.373 lagunek bukatu zuten 20 kilometro dituen ibilbidea.

Helmugaratu zirenen artean, 168 eskualdekoak izan ziren: 29 emakumezkoak eta 139 gizonezkoak.

HERRIZ-HERRI

Herriz-herriz hona hemen

zein izan ziren parte-hartzeak: **Arantza** 7, **Baztan** 35 (Amaiur 2, Aniz 2, Arizkun 5, Arraioz 4, Elizondo 15, Gartzain 2, Irurita 3, Lekaroz 1 eta Oronoz-Mugairi 1), **Bera** 26, **Bertizarana** 3 (Narbarte 3), **Doneztebe** 12, **Elgorriaga** 1, **Eratsun** 1, **Etxalar** 4, **Goizueta** 6, **Igantzi** 5, **Ituren** 1, **Lei-**

**tza** 18, **Lesaka** 19, **Sunbilla** 8, **Urdazubi** 2, **Zugarramurdi** 1, **Sara** 5 eta **Senpere** 14.

LEHENBIZIKOAK

Eskualdeko korrikalariei dagokienez, bi baztandar izan ziren gizonezkoetan zein emakumezkoetan denborarik onena egin zutenak: Alberto Barberena Go-

ñi lekaroztarra gizonezkoetan (01:08:12) eta losune Ortega Arraztoa elizondarra emakumezkoetan (01:23:43).

Horrez gain, aipatzeko da, Iturenko 12 joalduen ere osatu zutela ibilbidea. Joareak soinean bortz ordu inguruz egin zituzten Behobiatik Donostiarako 20 kilometroak.

## azaroak 25-abenduak 15

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58**Bertsoak**

BORTZIRIAK | 2010.12.10-11

**Taldeko XII. txapelketan zortzi hirukote**

Bortz herrietako sei hirukoterekin batera, Baztan eta Malerrekako txapelketan ariko dira Beran eta Lesakan. Finala Lindurren bordako afalondoan-

**Ospakizunak**

URDAZUBI | 2010.11.27

**Euskal Kantu Zaharren Eguna zazpigarren edizioa**

Berriz ere lepo beteko da Dan-txarineariko Lugarana jatetxea, Kantu Zaharren Egunean. Bazkaria, bazkal ondoko giroa, berendu-afaria eta gero gerokoak.

**Erakusketak**

LEITZA | 2010.11.27-12.05

**Nafarroa Euskal Estatua erakusketa eta solasaldiak**

Nafarroa Euskal Estatua erakusketa zabalduko da udal-etxekeo batzar aretoan eta solasaldiak eta kantaldia ere izanen dira egunotan.

## DONEZTEBE

**Emakume****baseritarren begirada**

**Azaroaren 19tik 29ra** ikusgai izanen da Alhondigan EHNEk antolatutako argazki erakusketa (17:00-19:00).

## LEITZA

**Nafarroa euskal****estatua erakusketa**

**Azaroaren 27tik abenduaren 5era** udal-etxekeo batzar aretoan.

**Ospakizunak**

## LEGASA

**Kattalin Eguna**

**Azaroaren 27an.**

## URDAZUBI

**Kantu Zaharren Eguna Lugaran**

**Azaroaren 27an** Kantu Zaharren Eguna ospatuko da Urdazubiko Lugarana jatetxean.

## IGANTZI

**Kultur Egunak**

**Abenduaren 5etik 8ra** Kultur Egunak ospatuko dira.

## NARBARTE

**San Andresak**

**Abenduaren 4an eta 5ean.**

**Bertsoak**

## DONEZTEBE

**Malerrekako taldeko txapelketa**

**Abenduaren 3an** Ekaitza ostatua. Irabazleek Bortzirietako txapelketan parte hartuko dute.

## ERRATZU

**Baztango taldeko txapelketa**

**Abenduaren 10ean** Erratzuko Elkarteak. Irabazleek Bortzirietako txapelketan parte hartuko dute.

**Solasaldiak**

## BERA

**Gurasoen hizkuntz kezkei buruz**

**Abenduaren 1ean** Iñaki Eizmendik *Nola eragin seme-alaben hizkuntza ohituretan?* solasaldia eskainiko du 17:00etan Beralandetan euskaraz. Ondotik, 18:30ean leku berean, *No sabemos euskera... ¿Cómo podemos ayudar a nuestras hijas e hijos?* solasaldia izanen da gaztelerez. Antolatzailea: Bortzirietako Euskararen Mankomunitatea.

**Ferriak**

## LESAKA

**Bortzirietako azienda lehiaketa**

**Azaroaren 25ean** azienda feria eta Bortzirietako lehiaketa. Xehetasunak 530. alean.

**Kontzertuak**

## ELIZONDO

**Esne Beltza Lurren**

**Abenduaren 4an** Esne Beltza taldeak kontzertua eskainiko du Lur dantzalekuan.

**Nafarroako Kamara Abesbatza**

**Abenduaren 12an** Nafarroako Kamara Abesbatzak kontzertua eskainiko du Arizkunenean 19:30ean.

## LESAKA

**Doneztebeko Mendi Abesbatza elizan**

**Abenduaren 3an** kontzertua eskainiko du Doneztebeko Mendi Abesbatzak San Martin elizan, eguerdian.

## LEITZA

**Demode Quartet-en komedia musikala**

**Azaroaren 27an** umorez betetako musika ikusikizun harrigarria eskainiko du Demode Quartet taldeak 20:30ean.

**Erakusketak**

## ELIZONDO

**Gorputzaren amaiera arte garaikidea**

**Azaroaren 10etik 28ra** *Gorputzaren amaiera, terapiak pro-*

*posatzen ditugu* erakusketa Arizkunenean.

**Patxi Aranoaren pintura erakusketa**

**Azaroaren 29tik urtarrilaren 8ra** Patxi Aranoaren pintura erakusketa Arizkunenean.

## BERTIZ

**Diana Iniestaren margo erakusketa**

**Urriaren 1etik azaroaren 30era** Diana Iniestaren *Juegos de luz* margo erakusketa Natur Parkean.

## PROPOSAMENA

## ELIZONDO

**Lehiaketan saritutako filmak Arizkunenean**

Ikuspuntua 2010 Zinema Dokumental jaialdian saritutako filmeak ikusteko aukera izanen da abendu hasieran Arizkunenean. Horien artean lehenbizikoa, ikusleen sari berezia jaso zuen «Sweetgrass» abenduaren 4an. Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundeak Kultura eta Turismo Departamentuak antolatuta emanaldiak.



**BERA-LESAKA**

**Bortzirietako XII. taldekako txapelketa**

**Abenduaren 10ean** Berako Espidobaitan eta **11n** Lesakan, Arranon eta Zialdon kanporaketak jokatu ondokik, finalerdiak Haizegoan eta Atxaspin eta finala Linddu-renbordan.

**ELIZONDO**

**Mariano Izetaren IV. Sariketa**

**Abenduaren 8an** eliza ondoko aretoan, goiz-arratsaldez.

**Lehiaketak**

**BERA**

**Bortzirietako haur eta gazteen ipuin lehiaketa**

**Abenduaren 3a arte** aurkezten ahal dira lehiaketarako idazlanak.

**Zinema**

**LEITZA**

**Zinema denboraldia**

**Azaroaren 26 eta 28an** Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren *80 egunean*. Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

**ELIZONDO**

**Zinema dokumental jaialdiko saridunak**

Ikuspuntua 2010 Zinema Dokumental jaialdian saritutako filmak Arizkunenean.

**Abenduaren 4an** *Sweetgrass* filma ikusgai 18:00etan.

**Abenduaren 5ean** *Amanar Tamasheq* filma ikusgai 18:00etan. *The Darkness of day* filma ikusgai 18:15ean.

**Abenduaren 6an** *Le plein pays* filma 18:00etan.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**




Buelta bat aitontxuarekin

**XABIER MENDIGUREN**

Elkar, 2010

**A**itona Paxkualek ia ehun urte bete dituela-eta, Azaharren egoitzara joan da Malen, amarekin batera, bere birraitona edo aitontxuari bisita egitera. Telebista itzaliaren aurrean aurkitu dute, triste eta aspertuta. Musuzapi batzuk eraman dizkiote oparitarako, gustatzen zaizkion gauza guztiak debekatuta ditu eta. Aitontxuak, halere, badu urtebetez egunean gustura jasoko lukeen kutxia bat: buelta bat autoan. Xabier Mendiguren Elizegi Beasaingo editore eta idazleak 10 urtetik goitiko irakurleendako liburua idatzi du eta irudiz hornitzeko, Pololoak trilogiarengatik ezagun egin den Patxi Gallegoren marrazkiak erabili dituzte. «Askatasun nahiaren ideia helarazi nahi nuen istorio honekin, lau hormen artean ihes egin nahi duenarena», adierazi du Mendigurenek. Patxi Gallego ere pozik agertu da egindako lanaz. «Ongi ezagutzen dugu elkar, eta bion artean konplizitate handia dugu. Horrek asko erraztu digu lana», erran du marrazkilariak.

**Musika**



REN FAN

**AMA SAY**

Bonberena Ekintzak, 2010

**A**ma Say erran eta erran ibili zen mendearen bukaeran. Beraien abestiak eta diskoak ezinbertzeko erreferentzia bilakatu dira denboraren bitartez musikazale eta musikari aunitzentzat. Ama erran eta erran ibili zen euskararen mundura Munduko musikak geureganatzen. Erran eta erran euskal kulturaren bertze kultura batzuk txertatzen. Deus berriak ez, baina bau haize bolada fresko eta ederra Amak ekarri ziguna. Eta orain berriro egin dute! Bi urte amaren erranak herriz herri zabaltzen ibili ondokik, Ama gauza berriak erraten hasi ez zaigu ba! Gauza berriak, abesti berriak, aire berriak. Berrogei urteko umeak eta berriro lortu dute. Nola demontre egiten dute? Non demontre bilatzen dute indar berria? Hainbat abesti berri dira, haize boladak, eztenkadak, arrunkeraren kontrako lemak, etsipena gaintzeko dosiak, evolutio ero honen aurkako galgak. Ama ez ixildu, arren.

**Internet**



Italiako Associazione Culturale Euskara

**WWW.EUSKARA.IT**

**E**uskal kultura zabaldu eta euskaldunen topagune izateko jaio zen Italiako Associazione Culturale Euskarak webgune berria du. Erroman egoitza duen elkarteak azaldu duenez, webgune horretan albisteak, hiztegiak eta italierara itzultitako hainbat erreferentzia aurkituko ditu bisitariak. Horrez gain, Erromako UPTER unibertsitateko euskara sailaren edukiak ere argitaratuko ditu. Webguneak dakarren bertze berritasuna RSS bidez harpidetu eta argitaratzen diren albisteak denbora errealean jasotzeko aukera da. Aldatzen ez dena elkarrean e-posta da: [info@euskara.it](mailto:info@euskara.it), nahi duenak bertara idatz dezake informazioa eskatzeko, euskara ikastaroetan izena emateko, eta abar. Nola bait, Italiako euskaldunen topagune birtuala berri dela erraten ahal da, baina Italiaren edo italieraren berri izan nahi duten euskaldunentzat ere aski webgune interesgarria da.

**Nire aukera**



Rosa OLAIZOLA  
Goizuetako tabernaria

**«Zinera joan baino nahiago dut nire lagunekin poteo txiki bat egin»**

**T**abernako lanaz gain, goizetan aurrean herrian lehen aldiz ireki den Haur Txokoa aritzen da Rosa bost ume zaintzen eta denboraldian, Olaizola sagardotegian ariko da. «Hale-re, gustoko gauzak egiteko denbora harrapatzen dut gehienetan», dio. Eta gustokoen artean, «eskulanak, papeira, egurra, buztina, harrapatzen dudak guztia-ekin». Irakurtzea ere gustatzen zaio, «baina etxean Internet sartu zenetik gutxiago irakurtzen dudala», onartu du. Zinemara joan baino nahiago du «nire lagunekin poteo txiki bat egin». Eta noski, Aimar eta Asier lehengusuen pilota partidak ikustera joatea ere gustatzen zaio. Ez du sekula mundua ezagutzeko kuriositate handirik izan, baina Kadiz eta Sevillara egindako bidaiak gogoan ditu. Baita Brasilerako ezkonbidaia ere: «ikusgarria, polita, kuriozosa baina beti etortzen zait burura haur ttiki haien miseria». Beraz, udan Urumea erreka bazterrean ere «ongi aski» pasa daitekeela uste du.

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**DONEZTEBE.** Rosa Seminarion, 3. solairuan dagoen pisua salgai. Eskailera batzuen bidez, trastelekura komunikatua. 3 logela eta 2 komun. Mobleztatua. ☎679 109423.

**ETXALAR.** Lizaietako parajeon zaharberritzeko borda salgai. Lur eremuarekin. ☎661 121540.

**BERA.** Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukalde bakoietarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. 3. solairuan eta igogailuarekin. ☎948631381/697 436845/ elvetea-rra@aol.com.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581 459  
anzabal@anzabal.com

**DONEZTEBE.** Zazpigarutze plazan 115m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreinatua gabea. ☎630 948271.

**BERA.** 89m<sup>2</sup>ko pisua salgai, 4. solairuan. 3 logela, bainugela, komuna, sukaldia, egongela, trastelekua eta balkoi handia, bista ederrarekin. Gas naturala, berogailua eta igogailua. ☎681 017423.

**BERA.** Pisua salgai. 2 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Oso eguzkitsua. ☎699 397279.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**LESAKA.** Bi familiako etxebizitza salgai. Prezio onean. ☎609 477277.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan eman

**ETXALAR.** Bi bizitako etxebizitza lur eremuarekin errentan emateko. ☎662 244389/696 890471.

**ORONOZ-MUGAIRI.**

Familia bakarreko etxebizitza errentan emateko. Mobleztatua, berogailuarekin. Lorategia eta garajea baditu. ☎675 934853.

**BERA.** Pisua errentan emateko. Berogailu zentralarekin. ☎650981950.

**BERA.** Eztegarra pasealekuan (28.a), pisua errentan emateko. 3 logela, sukaldia eta bainugela ditu. Gela guztiek kanpora ematen dute. Bero-

gailua. 600 euro hilean. ☎620 364541.

**DONEZTEBE.** Herri erdian pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, egongela-jangela eta sukaldia. Gela guztiek kanpora ematen dute. ☎699 798207.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
salgai

**BERA.** Kanttonberri karrikan 78 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. ☎627 914271.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
errentan eman

**BERA.** Legia karrikan 250 m<sup>2</sup>ko lokala errentan emateko. ☎948 631022/688 609905.

**ETXALAR.** Funtzionamenduan dagoen ile-apaindegia errentan emateko. ☎948 635025.

**DONEZTEBE.** Udaletxe ondoan lokala konpartitzeko. Elkartea, kultur taldea, edozein ekintzetarako bulegoa... Arrazoizko prezioan. ☎948 451443/687 976828/ dizdira@anasaps.org.

**IRUÑEA.** Errotxapea auzoan 835m<sup>2</sup>ko lokal errentan emateko. ☎948 265801.

**LURRAK/ORUBEAK**  
erosi

**BERA.** Partikular batek eraikitako lur eremua erosiko luke. ☎616 308344.

**LANA**  
eskariak

**LEITZA, LEKUNBERRI EDO DONEZTEBE INGURUAN.** Neska bat lan bila. Urte osoan ariko litzateke: umeak edo edinekoak zaintzen... ☎695 716894/ 948 510665.

**BORTZIRIAK.** Emakume bat adinekoak zainduko litzuzke. ☎671 122776.

**BAZTAN-DONEZTEBE-**n neska gazte bat Lehen Hezkuntzako umeei klase partikularrak ematen edo hurrak zaintzen ariko litzateke. Esperientzia duena eta norbere autoarekin. ☎678 309025.

**MALERREKA, BAZTAN edo BORTZIRIETAN** neska gazte bat edozein lanetan ariko litzateke. Sukaldean laguntzen eta hurrak zaintzen esperientzia duena. Autoa ere badu eta ordutegi zabalarekin. ☎660 481578.

**ZERBITZUAK**  
denetarik**MOTORRAK**  
salgai

**Golf TDI** salgai, egoera onean. ☎650 064912.



**Ford focus 1.8 TDI** salgai. GTX matrikula. 13.500 euro. ☎635 739849.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (azaroaren 5etik 12ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 31,00 € (+1,00)

**Zerri gizena**  
1,014 € kiloan. (=)

**Zerramak:**  
0,400€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,98 (+0,03)  
**1.koa** 3,67 (+0,03)  
**2.koa** 3,14 (+0,03)  
**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,06 (+0,03)  
**1.koa** 3,77 (+0,03)  
**2.koa** 3,44 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 200,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)  
**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,70/2,80  
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 7,40/8,10  
8-10 kilokoak: 6,30/6,60

**Citroen Berlingo** 1.9 diesela salgai. 80.000 kilometro. ☎686 990087/948 630217.

**Kawasaki KLX650R** motorra salgai. Egoera onean eta ITVa pasatua. ☎639 007629.



**Aixan 400 S** karnetarik gabeko autoa salgia. Egoera onean. 16.000 kilometro. ☎699 047051.



**LESAKA.** Yamaha R1 egoera onean salgai. Gurpila eta arrastreko kit-berriak. Extra askorekin. 2.900 euro. ☎619 738965.



**Opel Corsa** 1.2 salgai. 90.000 KM. Egoera oso onean. Errebisioak kontzisionarioetan pasatuak. 1.000 euro. ☎655 716411.

**Explorer Kobra** KBR 125 motorra salgai. 0 kilometro. 1.500 euro. ☎948 637840.



**MOTORRAK**  
tailerrak

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**ANIMALIAK**  
opari

Hilabeteko 2 **ardi zakurkume** oparitzeko. ☎948 510224.

Hispaniel eta artzain zakurraren arteko nahasketako 2 **zakurkume** oparitzeko. ☎679 892622.



**ANIMALIAK**  
salgai

20 **ardi latxa** salgai. ☎948 514188.

**DENETARIK**

**galdu/aurkituak**

**LESAKA.** Nabaz auzoan 5 hilabete eta erdiko artzain zakurra galdu zen urriaren 31 goizean. Lepoko urdina du eta anti-parasito marroia. Txiparekin. ☎637 836023.

**BERTIZARANA.** 40 litroko 4 esne bidei edo letxera aurkitu dira. ☎948 581864.

**LESAKA.** Bizikleta bat agertu da ekainean. ☎948 637005.

**LESAKA.** Bizikleta agertu da, haurren aulkia gibelean duela. ☎948 637005.

**DENETARIK**

**salerosketak**

**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287 /699 461394.

**URDAZUBI.** Bigarren eskuko sutegi kaseta salgai, Seguin markakoa eta egoera onean. 70x55x47 neurrikoa. ☎649 830152.

Zero Sette 4 ahotseko **trikitrixa** profesionala salgai. Oso gutxi erabilia, berri-berria. Gorria. ☎646 212584.



**DONEZTEBE.** Taxi plaza salgai. ☎609 486052.

**Belar idorren boloko** salgai. ☎660 393436.

Hergon markako **egurrezko berogailua** eta **sukalde-kalefaktora** haundia salgai. ☎948 453110.

Audi A4 S4ren 18"ko **llantak** eta **kubiertak** salgai. Edozein Volkswagen eta

Audirentzat balio dute. 5. lanta eta segurtasun torlojuak opari. Dena 585 eurotan. Prezio negoziagarria. ☎667 605233.



**SANTESTEBAN Tailerrak**

<b>MEGANE II DYNAMIQUE</b> 1.6 DCI 105 CV 44.500 km - 2007/08	<b>LAGUNA II EXPRESSION</b> 1.6 DCI 130 CV 41.000 km - 2007/08	<b>MEGANE II EXTREME</b> 1.6 DCI 130 CV 32.000 km - 2008/08
<b>ETA GAINERA</b> Serdan Dynamique 1.6 DCI 105 CV - 2007/08 Citroen C4 1.6 DCI 110 CV - 2007/08 Citroen C4 1.6 DCI 110 CV - 2007/08 Citroen Xantia 2.0i Scania 1.9 D Renault Clio 1.2 85 CV Renault Clio 1.9 D Peugeot 106 1.5 D		
<b>TRAFFIC &amp; PLAZAKO</b> 1.6 DCI 105 CV 44.500 km - 2007/08		

DONEZTEBEN RENAULT-en KOTXE IA BERRITAN SEKULAKO ESKAINTZAK

**MALERREKAKO MANKOMUNITATEA**  
Tel: 948 45 17 46  
Merkatarien karrika, 17  
31740 DONEZTEBE (Nafarroa)

**Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez aldi baterako betetzeko Malerreko Mankomunitateko idazkari-kontuhartzaile eta kudeatzailea lanpostua**

Malerrekako Mankomunitateak, Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamenduko 42. artikuluan jasotako presako prozeduraren bidez, aipatutako tokiko erakunde horretako idazkari-kontuhartzaile eta kudeatzailea lanpostua aldi baterako beteko du, horretarako onetsitako oinarrien arabera.

Deialdi honetan parte hartzeko interesa izan, oinarrietan ezarritako baldintzak bete eta bizilekua dagokion eremuan dutenek, inskribatuak egon behar dute enplegu eskatzaile edo enplegu hobekuntza eskatzaile gisa Doneztebeko Enplegu Bulegoan, 2010eko azaroaren 30a baino lehen.

Halaber hautapen prozesuan onartuko ditugu baldintza horiek betetzen dituzten izangai guztiak, egiaztatzen badute epaimahaiaren aitzinean eta hautaprobak hasi baino lehen, edozein Enplegu Bulegotan enplegu eskatzaile edo enplegu hobekuntza eskatzaile gisa inskribatuak daudela.

Kontratazioaren ezaugarriak:

- Hitzarmenaren iraupena:** sei hilabete; goienaz lanpostua behin betiko bete arte luzatzen ahal da.
- Ordainsaria:** A mailari dagokiona eta plantilla organikoan onartutako osagarriak.
- Lanean noiz hasi:** hautapen epaimahaiaren proposamena onartuz Lehendakartzak ebazpena egin eta hurrengo astean.

Hautapen prozesuko probak deialdiko oinarrien arabera egingen dira; deialdia Doneztebeko Enplegu Bulegoan eta Malerreko Mankomunitateko bulegoetan dago. Probak Sunbillako Udalan izanen dira, 2010eko abenduaren 15ean goizeko 09:00etan; izangai guztiak toki eta ordu horretara deituak geldituko dira.

Donezteben, 2010eko azaroaren 9an.  
LEHENDAKARIA  
Alberto San Miguel Mindeguia

**DEKO**  
DEKORAZIOA ETA ERREFORMAK

Pinturak | Dekorazio proiektuak | Gremioen koordinatzailea  
ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

T. 629 68 71 71 | dekolan@hotmail.es

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



**NAHIA ENDARA** beratarra urtea beteko du azaroaren 28an. Zorionak eta muxu aunitz familiarren partetik.



**NAHIA ENDARA** beratarra urtea beteko du azaroaren 28an. Zorionak eta muxu aunitz atta eta amaren partetik.



**NAHIALA DUARTE LARRETCHERI** zorionak bere hirugarren urtebetetzean. Muxu haundi bat denen partetik.



**AIMAR ZAMORANO DUARTE** lesakarrak 10 urte beteko ditu azaroaren 29an. Muxu haundi bat familiarren partetik. Aupa pilotari!!



Amaiur eta Elizondoko **OLAIA, UNAI** eta **ASIER, ASIEREK** eta **OLAIAK** 3 urte bete dituzte azaroaren 20an eta 13an eta **UNA** urtea bete du urriaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat familiarren partetik, eta segi tabarra ematen.



Arriatzoko **BEÑAT EZKURRA NAVARROK** 3 urte beteko ditu azaroaren 26an. Zorionak eta mila muxu familiarren partetik.



**OHAN ITURRIA** arantzarrak 4 urte bete ditu azaroaren 22an. Zorionak etxekoan eta baserrikoen partetik, eta bereziki Aiora eta Karmeleren partetik.



**NAHIA BERTIZ BABAZE** sunbildarrik abenduaren 14an urtea beteko du. Zorionak sorgintxo! Muxu haundi bat atta-tto eta amatxoeren partetik.



**NAHIA BERTIZ BABAZEK** urtea beteko du abenduaren 14an. Zorionak eta muxuak xinpatika! Gurasoak, ataxiak eta amatxiak Sunbilla eta Urroztik.



**NAHIA BERTIZ BABAZEK** urtea beteko du abenduaren 14an. Zorionak Sunbilla eta Urrozko osabazibeben partetik. Segi orain bezain polit eta alai!



Leitzako **DIEGO BIURRARENA ORTIZEK** azaroaren 30ean 9 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu pila familiarren partetik. Ongi pasa eta segi horren alai.



Berako **JOSE JABIER ZELAIETAK** azaroaren 28an urteak beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren eta bereziki iloba tikiak diren Iraide eta Garaineren partetik. Ongi pasa eguna. Muxuk.



Sunbillako **NAROA PETRIRENA ANZIZARREK** abenduaren 1ean 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez familiarren eta bereziki Klemente, Maider eta zure lagun diren Iraide eta Garaineren partetik. Ongi pasa eguna eta hiru mila muxu.



Gartzaingo **AITOR ESKUDERO BARRENETXEK** 2 urte bete ditu azaroaren 21ean. Zorionak Gartzaingo eta Urdazubiko familiarren partetik eta bereziki Julen, Ane eta Maitaneren partetik. Muxux bihurtuko!



Igantziako **PATXI LOIARTE PETRIKORENAK** azaroaren 27an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta aupa pilotari!



Oronoko **UNAI TORRES ALEMANK** 6 urte bete ditu azaroaren 23an. Zorionak aita, ama eta bereziki Markel anaiaren partetik. Ongi pasa panderojole



Elizondoko **UNAX** eta **UGAITZEK** azaroaren 1ean eta 28an urteak beteko dituzte. Muxu haundi bat gure granjeroei! Ongi pasa eguna Iturengo familiarren partetik.



**IRATXE MUXIKA** lesakarrak 8 urte beteko ditu abenduaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat.

**ttipi-ttapa FUNDAZIOAK**

**zure laguntza behar du**  
eginazu ttipi-ttaparen alde  
proiektu zenbakia: 15.996

Dagoeneko **888** LAGUNEK egin dute gure alde

**Eskerrik asko**  
Zure laguntza eskertzeko, poltsa eder hau izanen duzu opari.

Eska ezazu ttipi-ttaparen proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu ttipi-ttapara 2010eko abenduaren 30a baino lehen.

geure bezeroek aukeratutako proiektua **can**

# ESNEBELTZA

AZARAK  
4  
LARUNBATA

00:30 - 10€

# DJMERVIN | HOLANDA

AHENDUAK  
7  
ASTEARTEA

01:00 - 02:00 Dohainik  
02:00etatik aintzinerá 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

# DJNASH | LURDJOTAK

AHENDUAK  
11  
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik  
02:00etatik aintzinerá 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

# JOSEINA

AHENDUAK  
18  
LARUNBATA

01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

# TXUTXINIBAÑEZ

AHENDUAK  
25  
LARUNBATA

00:30 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

+ TEKILADA  
DEBALDE



# URTEZAHARGAUA

AHENDUAK  
31  
OSTIRALA

02:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 04:00ak arte  
Irekia 09:00ak arte

# ETAURTARRILAN... GATIBU

OSTARRILAK  
22  
LARUNBATA



garagardotegia

**MENUAK, MUSIKA ZUZENEAN...**  
OSTIRAL, LARUNBATA ETA JAIEGUNEKO BEZPERETAN IREKIA  
KONTSUMIZIOA: TEL. 940581883



WWW.LURELIZONDO.COM



**NAFAR MENDI**  
merkatalgunea  
Arraioz | Baztan-Bidasoa

**HIPERSIMPLY** Baztan  
Bidasoa

**AURREZPEN** Naren izarrekin  
Eguberri  
dizdi  
ratsu  
agoa



Eta gainera...  
Parte hartuko duzu  
**auto baten**  
**eta moto baten**  
**ZOZKETAN**

Hipersimply Baztan Bidasoako  
bezeroendako bakarrik

Gutxieneko erosketa 30€  
eta SIMPLY biartelarekin,  
Eguberrietako Zozketa Handian  
parte hartuko duzu.

Zozketa eguna:  
2011/01/15, 15.00etan.  
Saria egun horretan bilduko da.

Zozketaren oinarriak saltokian daude ikusgai.



**1. SARIA**  
auto bat  
Peugeot 206+



Argazki honek ez du  
kolortatu baliorik.



**2. SARIA**  
moto bat